

ORDENANTZA FISKALAK 2011

AURKIBIDEA

ORDENANTZA FISKALA ZK.

ORRIALDEA

1.- KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKAPENARI BURUZKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA.....	5
2.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINeko ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA.....	33
3.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	51
4.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	65
5.- HIRI-LURREN BALIOA GEHITZEAREN ONDORIOZKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	71
6.- ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA LANEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	81
7.- HIRIGINTZAKO DOKUMENTAZIO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	87
8.- IBILGAILUAK IBILGETU, KROKATU ETA BIDE PUBLIKOTIK ERRETIRATZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEARI DAGOKION TASA, HALA NOLA, HORIEK UDAL LOKALETAN EGOTEARI DAGOKIONA.....	91
9.- ESTOLDERIA ETA UR-HARGUNE ZERBITZUA ESKATINZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	93
10.- AGIRI ADMINISTRATIBOAK LUZATZEARI BURUZKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	99
11.- UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	105
12.- AUTO-TAXIEN ADMINISTRAZIO-BAIMENAK ETA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.....	109
13.- ZARAMA JASOTZEKO ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	113
14.- IREKITZE-BAIMENAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	119

15.- EUSKARA IRAKASTEARI, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOEN LAGUNTZARI, ETA KULTURA ETA KIROLARI DAGOZKION ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.....	123
16.- UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.....	143
16-G.- ZERGA ORDENANTZA, TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUEN USTIATZAILE DIREN ENPRESEK JABARI PUBLIKO LOKALAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEARREN.....	151
16-H.- UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURPE EDO HEGALKINAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA, HORNIKETAREN ZERBITZUA USTIATZEN DUTEN ENPRESEN MESEDETAN EGITEN DEN ERABILERARENA.....	155
17.- UDALTZAINGOAREN ZERBITZU BEREZIAK ESKAINTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.....	159
18.- KONTRIBUZIO BEREZIEI BURUZKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA....	161
19.- KONTROLATU GABEKO ABEREAK ETA ETXEKO ANIMALIA ABANDONATUAK JASOTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEAGATIK EZARTZEN DIREN TASAK	167
20.- UDAL TALDEAK EGIN BEHARREKO KONPONKETA ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO TASA	171
21.- AURRETIAZKO KOMUNIKAZIO ETA/EDO AITORPEN ARDURATSUAREN MENPE DAUDEN ESTABLEZIMENDUAN IREKITZE ONDORENGO KONTROLEKO UDAL JARDUERARENGATIKO TASA.....	173

LEHENENGO ORDENANTZA FISKALA

KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKAPENARI BURUZKO ORDENANTZA **FISKAL OROKORRA**

I. IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. Artikulua.- Udal honek Ordenantza Orokor honetara makurtuko ditu bere ekintzak, zergen gaineko kudeaketa, bilketa eta ikuskapena egitekoan.

2. Artikulua.- Ordenantza hau udal barruti osoan aplikatuko da.

3. Artikulua.- Zergen kudeaketa, bilketa eta ikuskapena Udal Administrazioak egingo du, baina hala ere, Foru-Aldundiari ordezkartzan eman lezaizkiokeenaren kalterik gabe, edo Komunitate Autonomoari eman lezaizkiokeenaren kalterik gabe, edo Administrazio Publikoekin, orokorrean, elkarlankidetzarako egon daitezkeen eredu desberdinen kalterik gabe.

Halaber, Udal Administrazioak erabaki lezake, adierazitako ondorio horietarako, Udala integra daitekeen elkartze-erakundeek eskainitako zerbitzuak erabiltzea.

II. ZERGEN KUDEAKETA

4. Artikulua.- Zergen gestioa, martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren III. Tituluan ezarritakoaren arabera, garatuko da.

5. Artikulua.- Hobarien aplikazioa: Baldin eta, toki-zergak arautzen dituen Zerga Ordenantzetan adierazitako hobarietatik, norbaitek bat baino gehiago aplikatzeko eskatuko balu, horiek ezingo litzaizkioke aldi berean aplikatu, eta bakarrik, eskatzailearentzat onuragarriena litzatekeen hobaria aplikatuko litzateke.

6. artikulua.- Zergaren bilketaren kudeaketako eragingarritasun eta ekonomia mailako irizpideen eraginez, salbuetsita geldituko dira 6,01 euroak gainditzen ez duten kuota likidoak duten likidazioak. Salbuespen hori ez zaie aplikatuko 10. eta 15. zerga-ordenantzetan, hurrenez hurren, araututa dauden agiri administratiboak ematearen tasari dagozkion likidazioei, ez eta euskararen irakaskuntza-zerbitzuak ematearen tasari, etxez etxeko eta hirugarren adinekoen asistentzia, kultura eta kirol mailako zerbitzuak ematearen tasari dagozkion likidazioei ere.

III

DIRU-BILKETA.

I. KAPITULUA. XEDAPEN NAGUSIAK.

7. artikulua. Diru-bilketaren kudeaketa.

1. Diru-bilketaren kudeaketa zorrak eta zerga-zehapenak eta Udalari ordaindu beharrekoak asetzeko izaera publikoko gainerako baliabideak kobratzea helburu duen funtzio administratiboa egikaritzean datza.

2. Helburu horretarako, izaera publikoko kredituei zor esango zaie eta Udal Ogasunak zor baten zati bat edo zor osoa ordaintzea eskatuko dien pertsonak edo erakundeak ordaintzera behartuta egongo dira.

3. Diru-bilketa honela gauzatu ahal izango da:

- a) Borondatezko epean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitako epeetan ordainduta edo bete beharrekoa beteta.
- b) Epealdi exekutiboan, ordaintzeko beharra berez ordainduta edo beteta edo, hori hala egiten ez bada, premiamenduko administrazio-prozeduraren bidez.

8. artikulua. Erregimen orokorra.

Zerga-zorren eta –zehapenen eta izaera publikoko gainerako baliabideen Diru-bilketaren Kudeaketa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauak ezarritakoaren arabera arautuko da, Tokiko Ogasunen Foru Arauan eta Udal Ordenantza honetan aurreikusitako berezitasunekin. Bertan aurreikusitako guztia, ordezkari, gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzerakoan emandako lege-mailako xedapenak aplikatuko dira eta, zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Araudia, 215/2005 Foru Dekretuaren bidez abenduaren 27an onetsitakoa.

9. artikulua. Diru-bilketaren Kudeaketako Organoak.

1.- Zerga-zorren eta –zehapenen eta izaera publikoko gainerako baliabideen Diru-bilketaren Kudeaketa Basauriko udalak berak gauzatuko du Diru-bilketa Sekzioaren bidez; dena den, diru-bilketa exekutiboaren arloan laguntza- eta aholkularitza-lan batzuk horretarako kontratatutako kanpoko enpresa batzuek egin ditzakete.

2.- Udal Diruzaintzari atxikita dagoen Diru-bilketa Sekzioa Basauriko Udalaren Arlo Ekonomikoaren barnean dago eta modu autonomoan kudeatzen ditu bere eskumenen xede diren gaiak eta bere barneko antolakuntza.

II. KAPITULUA. DIRU-BILKETAREN KUDEAKETA. ARAU KOMUNAK.

10. artikulua. Ordainketa-epeak.

1. Zorren diru-bilketa borondatezko epealdian eta epealdi exekutiboan egin ahal izango da.

2. Ondorengo hauek izango dira borondatezko epealdian zorrak ordaintzeko epeak:

- a) Auto-likidazio baten ondoriozkoak badira, zerga bakoitza arautzen duen Udal Ordenantzak ezartzen dituenak.
- b) Administrazioak gauzatutako likidazioaren ondoriozkoak badira, borondatezko epealdia hilabetekoa izango da jakinarazpenaren datatik aurrera.

Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoen eraginez ordaintzera behartuta dagoenari edo haren ordezkariari jakinaraztea ezinezkoa denean, haren helbide fiskalean edo interesdunak adierazitakoan bi bider saiatu ondoren, zerga-obligaziodunari edo haren ordezkariari dei egingo zaio Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren iragarkien bidez jakinarazpena agerraldi bidez izan dezan. Edonola ere, agerraldia 15 eguneko epean egin beharko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den egunaren

biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta agertu izan ez balitz, jakinarazpena egintzat hartuko litzateke agerraldia egiteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

- c) Aldizkako kobrantzako eta jakinarazpen kolektiboko likidazioak direnean, borondatezko epealdian ordaintzeko denbora-tartea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den eta Udalaren iragarki-oholean ezarriko den kobrantza-iragarkian zehaztutakoa izango da.

3. Borondatezko epealdiko ordainketarako ezarritako epea guztia ordaindu gabe epemugak zehazten du dagoen zorraren epealdi exekutiboa automatikoki noiz hasten den.

4. Epealdi exekutiboa hasteak zehaztuko du berandutze-interesak eta epealdi exekutiboaren gainordaina eskatzea, baita, gertatuz gero, premiamendu-prozeduraren kostuak ere.

5. Berandutze-interesa hori eska daitekeen epean indarrean den diruaren legezko interesa izango da ehuneko 25 handituta, ezarritakoa beste kopuru bat ez bada.

Zerga-izaera ez duten zergei ezingo zaie diruaren beste legezko interes-mota bat aplikatu.

6. Epealdi exekutiboa hasteak zehaztuko du berandutze-interesen sortzapena, premiamendu-probidentzia ematen denetik probidentzia horri buruzko jakinarazpenaren datatik hilabetera arteko epean izan ezik, aipatu denbora-tartean sartutako diru-kopuruak direla eta.

7. Gainordain exekutiboa ehuneko 5ekoa izango da, modu automatikoan sortuko da zerga-zorretarako eta zerga arloko zorrak ez direnetarako eta epealdi exekutiboa hastean eskatu ahal izango da.

8. Premiamendu-probidentziari buruzko jakinarazpena eginda eta haren jakinarazpenetik epe bateko denbora-tartea igarota zerga-zorra edo zerga arloko zorra ordaintzeko, ehuneko 20ko premiamendu-gainordain bat eskatuko da.

11. artikulua. Epeen zenbaketa.

1. Besterik adierazten ez bada, epeak egunen arabera zehazten direnean, lanegunak direla ulertu behar da eta larunbatak, igandeak eta jaiegun gisa izendatutakoak zenbaketatik kanpo geldituko dira.

Epeak egun naturalen arabera zehazten direnean, idatziz jaso beharko da hori dagozkien jakinarazpenetan.

2. Egunetan adierazitako epeak dagokion ekintzaren jakinarazpena edo argitalpena egiten den egunaren biharamunetik edo isiltasun administrazioaren araberako onespina edo onespen ezaren biharamunetik aurrera kontatuko dira.

3. Epea hilabeteka edo urteka finkatzen bada, horiek dagokion ekintzaren jakinarazpena edo argitalpena egiten den egunaren biharamunetik edo isiltasun administrazioaren araberako onespina edo onespen ezaren biharamunetik aurrera kontatuko dira. Epemuga-hilabetearen ez balego zenbaketa hasten den egunaren parekorik, epea hilabetearen azken egunean iraungiko dela ulertuko da.

4. Epearen azken eguna baliogabea bada, luzatutzat joko da hurrengo lanegunera arte.

5. Egun bat laneguna bada interesduna bizi den udalerrian edo Komunitate Autonomoan eta baliogabea, berriz, udalerrri honetan, edo alderantziz, baliogabe gisa hartuko da. Bigarren kasuan, interesdunak Administrazioari hori jakinarazten dioneko hurrengo lanegunera aldatuko da epemugaren data, behin egiaztapen egokia egin ostean.

12. artikulua. Helbide fiskala.

1. Helbide fiskala ordaintzera behartuta dagoenaren kokapen-lekua da Udal Ogasunarekin dituen harremanetarako eta 2/2005 Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 47. artikuluan araututa dago.

2. Diru-bilketarako oro har, eta Zergen gaineko Foru Arau Orokorrak (ZFAO) araututakoaren arabera, helbide fiskala ondorengo hau izango da:

Pertsona fisikoentzat, ohiko egoitza.

Pertsona juridikoentzat, sozietatearen helbidea.

3. Ordaintzera behartuta dagoenak beste helbide bat eman ahal izango du, berea edo bere ordezkariarena, administrazioaren jakinarazpenak bertan jasotze aldera.

4. Edonola ere, ordaintzera behartuta daudenak behartuta daude haien helbidean izandako aldaketak zehaztera eta Udal Ogasunetik igorritako komunikazioetan izan litezkeen okerrak adieraztera, baina egoitza-aldaketak ez du eraginik izan behar Udal Ogasunean aipatu adierazpena aurkeztu arte.

Egoitza-aldaketaren adierazpenak ez du ordezkatzeko helbide fiskalaren adierazpen zehatza beste administrazio-eragin batzuetarako, esaterako, biztanleen erroldarako.

5. Udal Ogasunak jakiten badu ordaintzera behartuta dagoenaren helbidea ez dela bere datu-baseetan agertzen den bera eta ez badu horren gaineko jakinarazpenik jaso, helbide fiskala zuzendu ahal izango du dagokion egiaztapena egin ondoren, ordaintzera behartutako bakoitzari lotutako kudeaketa-elementu gisa barneratuko du eta diru-bilketa kudeaketatik eratorritako jakinarazpen guztiak zein helbidera bidali behar diren zehaztu beharko du.

6. Balio osoa izango du, oro har, ordaintzera behartuta dagoenaren jardueraren helbidean edo zerga izaerako edo izaera publikoko beste baliabide batzuen gaineko agiri baten azken bidalketan egindako jakinarazpenak.

13. artikulua. Diru-bilketa arloko jakinarazpenak.

1. Zergak ordaintzera behartuta dagoenari egindako jakinarazpenen erregimena administrazioko arau orokorretan aurreikusitakoa izango da, ZFAOn eta Ordenantza honetan ezarritako berezitasunekin.

2. Jakinarazpenak egiteko tokia:

- a) Interesdunaren eskariz abiatutako prozeduretan, jakinarazpena zerga aldetik behartuta dagoenak edo bere ordezkariak horretarako zehaztutako tokian gauzatuko da eta hori ezinezkoa balitz, baten edo bestearen helbide fiskalean.
- b) Ofizioz hasitako prozeduretan, jakinarazpena zerga aldetik behartuta dagoenaren edo bere ordezkariaren helbide fiskalean egin ahal izango da, baita lantokian, jarduera ekonomikoa gauzatzen duen beste edozein tokitan

edo interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazitako ekintzaren berri jaso izana frogatzeko aukera ematen duen beste edozein lekutan ere.

3. Jakinarazpenak jasotzeko legimitatuta dauden pertsonak: jakinarazpena zerga aldetik behartuta dagoenak edo bere ordezkariak horretarako zehaztutako tokian edo nahiz baten, nahiz bestearen helbide fiskalean egiten denean, entregaren unean bertan ez baleude, leku edo helbide horretan dagoen eta bera nor den erakuts dezakeen beste edozein pertsonak hartu ahal izango du jakinarazpena, baita ordaintzera behartuta dagoen pertsonak edo bere ordezkariak jakinarazpenak jasotzeko zehaztutako tokiko edo etxeko bizilagunen komunitateko langileek edo jabeek ere.

Interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazpenari uko egiten badio ere, jakinarazpena egintzat joko da lege mailako ondorioetarako.

4. Agerraldi bidezko jakinarazpena:

- a) Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla medio zergak ordaintzera behartuta dagoenari edo haren ordezkariari jakinarazpena helaraztea ezinezkoa denean, gutxienez bitan helbide fiskalera edo interesdunak zehazturiko beste lekuren batean jakinarazpena igortzen saiatu ostean, hartzailea aipatu helbidera eta tokian ezezagun gisa agertzen denean saiakera bakarra egitea nahikoa izanik, behartuta dagoenari edo bere ordezkariari deituko zaio agerraldi bidez jakinarazpena jaso dezaten argitaratu behar diren iragarkien bidez, behin bakarrik interesdun bakoitzarentzat Probintziako Aldizkari Ofizialean, hilabete bakoitzaren 5. eta 20. egunean edo, egokia bada, hurrengo lanegunean. Dena dela, bigarren jakinarazpen saiakerak ere porrot egiten badu, jakinarazpena – ordainketa-gutuna bertan utzi ahal izango da hartu izanaren oharrik gabe behartutako pertsonak jakin dezan.
- b) Argitalpenean falta diren jakinarazpenen zerrenda, ordaintzera behartuta dagoena edo bere ordezkaria, jakinarazpenaren arrazoiak den kontzeptua edo prozedura, haien tramitazioaren erantzulea den organoa eta agerraldirako lekua eta epea. Elementu komunak dituzten ekintzen argitalpenen kasuan, batera argitaratuko dira bat datozen aldeak, ekintza bakoitzaren banako aldeak soilik zehaztuta.
- c) Aurretik zehaztutakoaren arabera gauzatutako ekintzek jasota gelditu beharko dute espedientean, baita jakinarazpenerako zehaztutako helbidean entrega egitea eragotzi duen edozein egoerak ere.
- d) Agerraldia hamabost egun naturaleko epean gauzatu beharko da. Epea igarota agertu ez balitz, jakinarazpena gauzatzat joko litzateke lege aldetik izan ditzakeen ondorio guztietarako aipatu epearen mugaren biharamunetik.

5. Jakinarazpena gauzatzea:

- a) Jakinarazpenaren entrega materiala Correos Posta Zerbitzuaren, Udal jakinarazle baten edo Udalak jakinarazpenen banaketa-zerbitzua gauzatzeko kontratatu duen enpresako langileen bidez egin ahal izango da.
- b) Correosek, jakinarazleak edo enpresa jakinarazleak bidali behar duen hartu izanaren adierazpenean ondorengo guztiak agertu beharko du: egindako jakinarazpenetan, data, identifikazioa eta hartzailearen sinadura eta, jakinarazpenaren berezko hartzailea ez bada, jakinarazpena hartu duen pertsonak ordaintzera behartuta dagoenarekin duen harremana agertuko dira; onartu ez diren edo gauzatu ez diren jakinarazpenetan, berriz,

jakinarazpena gauzatzeko saiakeraren data eta ordua eta jakinarazpen-saiakeraren arrazoiak.

6. Gauzatu ez diren derrigorrezko jakinarazpenak: Erroldan modu desegokian sartu den alta bat antzematen denean eta horren gaineko jakinarazpena ordaintzera behartutakoari zuzenean bidali behar izango zitzaiokeenean, zor hori epealdi exekutiboan baldin badago, Udal diruzainak premiamendu-probidentzia ezeztatuko du eta ez zaizkio gainordaina eta interesak eta, kasuan kasu, kostuak eskatuko; aurretik, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzaren Sekzioak eginbide bat igorriko du dagokion likidazioaren jakinarazpen falta eta Diru-bilketa Sekzioak egiaztagiri gisa artxibatuko duela adierazita.

III. KAPITULUA. ZORRAREN IRAUNGIPENA.

14. artikulua. Zorraren iraungipena.

Zorrak ordainketa, indargabetze, konpentsazio, kaudimen-gabeziagatiko behin-behineko baja eta legezko xedapenetan aurreikusitako gainerako bideen bidez iraungi ahal izango dira.

I. ATALA. ORDAINKETA.

15. artikulua. Legitimazioa, lekua eta ordainketa-modua.

1. Ordainketarako legitimazioa: Ordaintzera behartutako edozein pertsonak eta zorra iraungitzeko ahalmena duten beste pertsona batzuek gauzatu ahal izango du. Alabaina, zor bat ordaindu duen beste pertsona horrek ezingo dio Administrazioari eskatu diru-sarrera itzultzerik, okerreko diru-sarrera bat ez bada, jakina, eta ezingo ditu, halaber, ordaintzera behartutako pertsonaren beste eskubide batzuk egikaritu, zuzenbide pribatuaren arabera bidezkoak diren ekintza errepikatuak gorabehera.

2. Kobrantzarako eskumena: zorren ordainketa Ordenantza honetako 18. artikuluan zehaztutako diru-bilketa arloko lankidetzak gauzatzeko baimendutako Gordailu-entitateetan gauzatu ahal izango da; ordainketa Udal Diru-bilketaren Kutxan egitea salbuespeneko egoera batzuetan onartuko da soilik.

Ordainketak jasotzeko eskumenik ez duten organoei, erakundeei edo pertsonari egindako ordainketek ez dute zorduna salbuetsita utziko ordaintzeko betebeharretik eta behar ez den hartzaileak maila askotako erantzukizunak izango ditu.

3. Ordainketa-modua: Zorraren ordainketa esku-dirutan egingo da. Administrazioak, salbuespen gisa, zenbait kasutan zorra espezetan ordaintzea onartuko du borondatezko epealdian edo epealdi exekutiboan, edozein ondasun edo eskubide emanda, Udal Diruzaintzak zehazturiko baldintzei eta betekizunei jarraiki.

Zor bat esku-dirutan ordaindutzat joko da zenbatekoa Udal Diru-bilketa Kutxan edo diru hori onartzeko eskumena duten Erakunde Laguntzaile baimenduetan sartu denean.

Ordainketak dagokion eragina izan dezan, zor osoa bete beharko du, harik eta zatika ordaintzea utzi ez bazaio. Zor osoa ez pagatzekotan, aipatu zorrari modu partzialean aplikatuko zaio egindako ordainketa.

Borondatezko epealdian ordaindu ez diren zorrak epealdi exekutiboan ordaintzeko eskatuko da eta, kasuan-kasuan, epez kanpo pagatutako zenbatekoak kontuko ordainketa gisa zenbatuko dira.

16. artikulua. Ordainketarako epeak.

1. Zerga-zorrak ordaintzeko epeak Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluan zehaztutakoaren arabera egongo dira araututa.
2. Ordainketa geroratzea edo zatika ordaintzea onartzen bada, Ordenantza honek horietarako ezarritako araudiari lotu beharko zaio.
3. Zerga arlokoak ez diren zorrak horien gaineko arauak zehazten dituzten epeetan ordaindu beharko dira edo, halakorik ezean, Ordenantza honetan xedatutako aplikatu beharko da.

17. artikulua. Ordainketa-bideak.

1. Ordainketa ondorengo bideen bidez gauzatu ahal izango da:
 - a) Erakunde Laguntzaileak.
 - b) Bankuko edo Aurrezki Kutxako helbideratzearen bidez.
 - c) Udalaren mesederako irakiteko kontuetan egindako Bankuko edo Aurrezki Kutxako transferentzien bidez.
 - d) Bankuko edo Aurrezki Kutxako kontu korrante batera zuzenduta igorritako txekue baten bidez; behar bezala adostuta edo ziurtatuta egon beharko du, txekuea igorleari zuzenduta igortzen bada izan ezik.
 - e) Posta bidezko igorpena.
 - f) Udal honek baimendutako beste edozein ordainketa-modu.
2. Esku-dirutan ordaindu beharreko zor guztiak legezko diru bidez ordaindu ahal izango dira, edozein delarik ere ordainketa jaso behar duen organo edo erakundea, ordainketa egiteko diru-bilketa epea eta zorren zenbatekoa.
3. Diru-bilketa banku edo aurrezki kutxa laguntzaileen bidez gauzatuko da; zenbait salbuespen-egoeratan, Udal Diru-bilketako bulegoetan bertan egin ahal izango da.

18. artikulua. Erakunde laguntzaileak.

1. Diru-bilketaren Kudeaketan laguntzaileak dira Udal honek baimendutako Gordailu-erakundeak. Ondorengo funtzioak izango dituzte:
 - a) Ordaintzera behartuta daudenek egindako diru-sarrerak onartzea Udal Administrazioak horretarako ateratako inprimakiak aurkeztuta.
 - b) Diru-sarreretatik datozen funtsak Diru-bilketaren kontu mugatuan sartzea zergadunek eragiketarik egiten dituzten egunean berean.
 - c) Kutxa-zerbitzua mantentzea mota horretako diru-sarreretarako lanegun guztietan Banku-erakundeentzat.
 - d) Aldian-aldian ordaindutako kredituari eta ordainketa-datari buruzko datuak ematea euskarri informatikoen bidez.
 - e) Funtsen transferentzia egitea Udalaren kontu murriztutik kontu operatibora hamabosteroko diru-sarreraren epe bakoitzaren amaieraren hurrengo zazpi lanegunen barruan eta hilabete bukaera baino lehen.
 - f) Haien jarduera egokitzea alkatetzak emandako jarraibideetara Udal Diruzaintzaren bidez.

Gordailu-erakundeek eta gainerako laguntzaileek ez dute Udal diru-bilketako organo izaera izango inondik ere, zergadunarentzat Udalak igorritako eta diru-sarrera jasoko

duen Erakunde Laguntzaileak behar bezala bideratutako agiriak izango duen kitatzeko indarra baztertu gabe.

2. Ordainketa erakunde laguntzaileen bidez gauzatzen denean, zordunari diru-sarreraren egiaztapena ematean zorretik salbuetsita geldituko da egiaztagirian agertzen den datatik aurrera eta bertan agertutako kopuruaren arabera; kreditu-erakundea une horretatik eta zenbateko horren arabera behartuta geldituko da, data edo egiaztagiriaren baliozkotzean agertzen den zenbatekoa zehatza ez dela modu sinesgarrian frogatuko balitz.

19. artikulua. Bankuan edo aurrezki kutxan helbideratzea.

1. Ordaintzera behartuta daudenen haien zergen, prezio publikoen eta izaera publikoko bestelako diru-sarrera batzuen ordainketa helbideratu ahal izango dute edozein Finantza-erakundetan.

2. Helbideratzea ondorengo ordainketetarako erabili ahal izango da:

- a) Aldizkako epemugako eta ordaintzera behartuta daudenen taldeko jakinarazpeneko zerga bat, batzuk edo guztiak; eskaera egiteko mementoan dauden zerga-objektuetarako dauka eragina.
- b) Zerga-likidazioak edo Diru-bilketa Sekzioak kudeatutako izaera publikoko beste diru-sarrera batzuen gaineko likidazioak, dagokion ebazpena jakinarazi ondoren.
- c) Administrazioak egindako edozein ordainketa-errekerimendu, diru-bilketa borondatezko epealdian izan edo exekutiboan izan.
- d) Espediente exekutibo bat bertan sartutako zorren zenbateko osoarekin, gainordaina, interesak eta, kasuan-kasuan, kostuak barne.

3. Aldizkako izaerako zorrari eta borondatezko epealdiko jakinarazpen kolektiboari dagozkion ordainagiri helbideratuak helbideratze-kontuan zordunduko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako kobrantzaren iragarkian zehazturiko egunean.

Aldizkako kobrantzako eta jakinarazpen kolektiboko ordainagiriak epez kanpo helbideratuz gero, kontuan zordunduko da hilaren 5ean edo 20an edo hurrengo lanegunean eta helbideratuta geldituk oda dagokion zerga hurrengo urtetik aurrera. Helbideratuta ez dauden ordaingarriak kobratzeko borondatezko epealdia amaitutakoan, zerga helbideratzeko edozein eskaerak hurrengo urtetik aurrera izango du eragina.

4. Artikulu honetako 4. atalaren b), c) eta d) puntuetan aurreikusitako gainerako aukerei dagokienez, kontuan zordunduko dira hilaren 5ean edo 20an edo hurrengo lanegunean.

5. Banku-helbideratzearen bidez egindako ordainketak egintzat joko dira aipatu helbideratze horiek kontuan zorduntzeko datan eta diru-sarreraren egiaztagiri gisa hartuko da ordainketa helbideratuta dagoen gordailu-erakundeak horretarako egindako agiria.

20. artikulua. Helbideratzearen eskaera, aldaketa edo baliogabetzea.

1. Banku-helbideratze bidezko ordainketek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Ordaintzera behartuta dagoenak izan behar du ordainketa helbideratutako kontuaren titularra eta kontu horrek kreditu-erakunde batean egon behar du zabaldua. Administrazioak hala ezartzen duenean, behartuta dagoenaren

titulartasunekoa ez den kontu batean helbideratu ahal izango da ordainketa, harik eta kontu horren titularrak helbideratzea baimentzen badu.

- b) Ordaintzera behartuta dagoenak bere helbideratze-aginduen berri eman beharko dio Administrazioari kasu bakoitzean ezarritako prozeduren arabera.

2. Helbideratzeak baliozkotasun mugagabea izango du, harik eta agindu-emaileak ez badu balio gabetzen edo beste erakunde edo kontu batera aldatzen, eta ez badio Udal Ogasunari egindakoaren berri ematen.

6. Helbideratzea edozein unetan espresuki balio gabetuko du interesdunak, eta bere eragina galduko du, edo Udalak ordainagiriak behin eta berriz itzuli ostean. Aldizkako izaerako eta jakinarazpen kolektiboko zergei dagokienez, helbideratze bat balio gabetzeak edo aldatzeak eragina izango du zordunketaren data baino 10 egun lehenago eskatuz gero.

3. Ordainketara behartuta dagoenari egotzi ezin zaizkion arrazoen eraginez helbideratutako ordainagiriak ez badira kontuan zorduntzen edo epe zorduntzen badira, Udal diruzainak balio gabetuko du premiamendu-erabakia eta ez dira gainordainak edo interesak eskatuko, ez eta, kasuan-kasuan, kosturik ere, baina aldez aurretik Diru-bilketa Sekzioak eginbide bat aurkeztu beharko du helbideratzea bideratzerakoan akatsa izan dela zehaztuta, helbideratzeen artxiboan behar bezalako egiaztapenak egin ostean. Gainera, balio gabetuta geldituko da premiamendu-erabakia Erakunde Laguntzaileek egindako diru-sarreraren atzerapena gertatzean; Diru-bilketa Sekzioak egiaztatutako gisa artxibatuko du.

4. Udal Ogasunak ordaindu gabeko ordainagiri helbideratuen diru-bilketari ekingo dio premiamendu-bidetik. Helbideratutako ordainagiriak pagatzeari behin eta berriz utzi gero, helbideratzea balio gabetu egingo da.

21. artikulua. OHZren eta EJZren helbideratzea.

1. Aldizkako epemugako eta jakinarazpen kolektiboko zorrak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari eta Ekonomia Jardueren Zergari dagozkien eta ordainketa helbideratuta duten zorrak, borondatezko epealdian ordainketa automatikoa bi epetan zatikatu ahal izango da, zorraren zenbatekoaren %50ekoa bakoitza, eta horien epemuga Aldizkari Ofizialean argitaratutako kobrantzaren iragarkian zehazturikoa izango da; ezingo dira berandutze-interesak eskatu ahal izango. Zatikapen hori lehen zatia epemugaren barnean ordaintzeak baldintzatzen du; ez bada ordainketa hori burutzen, zor osoaren epealdi exekutiboa hasiko da.

2. Udalak ordainketa automatikoaren zatikatze hori aplikatu ahal izango du helbideratutako ordainagiriaren aurkezteko puntuaren ezarritako baldintza berekin, aldizkako epemugako eta jakinarazpen kolektiboko beste zor batzuetarako, harik eta kobrantzako iragarkian hala zehaztuta baldin badago.

22. artikulua. Banku-transferentzien bidezko ordainketa.

1. Udal kontu korronteren batera egindako banku-transferentzia bidezko ordainketa Diru-bilketa Sekzioak ordaintzera behartutakoari jakinarazten dion kasuetan soilik onartuko da.

2. Transferentziaren agindua zorraren zenbatekoaren berdina izango da; Administrazioaren errekerimenduan adierazitako erreferentzia zehatza agertu beharko da, baita ordaintzera behartutakoaren identifikazio zuzena ere, transferentziaren agindu-emailearekin bat ez badator ere.

3. Ordainketa-modu hau baliatzeak dakartzan banku-komisioak edo gastuak ordaintzera behartuta dagoenak hartu beharko ditu bere gain.

4. Ordainketa-une gisa hartuko da udal kontu korronteetan dagokion zenbatekoa sartzen deneko data, eta une horretatik aurrera Udal Ogasunaren aurrean ordaintzera behartutakoa zorretik libre geratuko da.

23. artikulua. Txeke bidezko ordainketa.

1. Zor bat ordaintzeko egindako txekeek, merkataritza arloko legeriak eskatzen dituen baldintza nagusiez gain, ondorengo ezaugarriak bete beharko dituzte:

- a) Basauriko Udalaren aldeko txeke izendunak izatea.
- b) Erakunde jaulkitzaileak adostuta edo ziurtatuta egotea, noiz eta nola zehaztuta.

2. Ordaintzera behartuta dagoenari zorretik ordaindutako zenbatekoa kenduko zaio txekea diru bihurtzean. Kasu horretan, dagokion kutxan txekea sartu den egunetik aurrera izango du eragina.

24. artikulua. Ordainketa-ziurtagiria.

1. Zor bat ordaintzen duenak egindako ordainketaren egiaztagiri bat izateko eskubidea izango du. Ondorengo hauek izango dira eskudirutan egindako ordainketen ziurtagiriak:

- a) Baimendutako Banketxeek edo Aurrezki Kutxek edo Diru-bilketa Sekzioak behar bezala baliozkotutako ordainketa-gutunak.
- b) Diru-bilketa Sekzioak egindako eta behar bezala bideratutako zorraren ordainketa-ziurtagiriak.
- c) Udalak ordainketa-ziurtagiri izaera espresuki ematen dion beste edozein agiri.

2. Zorren ordainketa aurretik aipatutako agirietatik egokia dena erakutsita soilik justifikatuko da.

3. Ordainketa-ziurtagiriek, gutxienez, ondorengo datuak izan beharko dituzte zehaztuta:

- a) Izena eta abizenak edo izen sozial osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia, agertzen bada, eta zordunaren helbidea.
- b) Kontzeptua, zorraren zenbatekoa eta horri dagokion epea.
- c) Ordainketa-data.
- d) Ordainketa-ziurtagiria egin duen erakundea.

4. Ordainketaren ziurtagiriak bitarteko mekanikoen bidez ematen direnean, aurreko puntuko zehaztapenak zorduna eta ordaindutako zorra identifikatzeko moduko klabeen edo laburduraz adierazi ahal izango dira.

5. Aldearen eskariz okerreko diru-sarrerak itzultzeko prozeduretan, interesdunek itzultzearen eskaerari dagozkion diru-sarreraren ordainketaren jatorrizko agirien kopia aurkeztu beharko dute Diru-bilketa Sekzioak erkatuta diru-sarrera horiek gauzatu direla ziurtatze aldera, baita data, kobrantza-erakundea eta subjektu pasiboaren identifikazioaren egiaztapen eta aurretiazko itzulketa partzial edo osoa gauzatu ez dela ziurtatze aldera ere.

25. artikulua. Ordainketen egozpena.

1. Zorrek autonomoak dira. Zenbait zor ordaintzera behartuta dagoenak ordainketa bakoitza zorrari egotzi ahal izango dio modu librean hautatutako borondatezko epealdian.

2. Geroagoko epemugako zor baten kobrantzak ez dio Administrazioari kenduko kobratu ez diren aurreko beste zor batzuk kobratzeko eskubidea.

3. Epealdi exekutiboan diren zorrei dagokienez, zorraren kopuru osora heltzen ez den edozein zenbateko printzipalarekiko, gainordainarekiko eta interesekiko modu proportzionalen aplikatuko da, hurrengo puntuan zehazturiko irizpidearen arabera.

4. Nahitaezko betearazpeneko kasuetan eta ofizioko konpentsazioko kasuetan, ordaintzera behartuta dagoenaren zenbait zor pilatuta badaude eta guztiz ordaindu ezin badira, Administrazioak, zenbait kredituren lehentasuna ezartzen duten arauak baztertu gabe, ordainketa antzinasun handienetik txikienera aplikatuko zaie zorrei; antzinasun hori zor bakoitzaren ordainketarako borondatezko epemuga-datak zehazten du. Alabaina, Udal diruzainak, salbuespen gisa, ordainketaren beste aplikazio bat onartuko du berak zehazturiko baldintzen eta betekizunen arabera.

26. Ordainketa zainpean jartzea.

Ordainketara behartuta daudenek zorraren zenbaketakoa eta, kasuan-kasuan, egiaztatutako kostuak zainpean jarri ahal izango dituzte Udal Diruzaintzan eta ondorio etenarazleak izango dituzte.

II. ATALA. ORDAINKETAREN GERORATZEA ETA ZATIKATZEA.

27. artikulua. Geroratzea eta zatikatzea. Irizpide nagusiak.

1. Zerga-zorren eta izaera publikoko gainerakoen ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango da, Zergen Foru Arau Orokorraren 63. artikuluan eta ordenantza honetan aurreikusitako moduan.

2. Ordainketa-plan terminoa erabiliko da ordainketaren geroratzea eta zatikatzea batera izendatzeko.

3. Ondorengo hauek dira ordainketa-plan bat emateko irizpide nagusiak:

a) 150 euroko edo hortik gorako zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira ordaintzera behartuta dagoenaren eskariz.

b) Epeei dagokienez:

- 6.000 eurotik beherako zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira hamabi eguneko gehieneko epean.

- Zenbatekoa 6.000 eurotik gorakoa bada, epeak 18 hilabetera arte zabaldu ahal izango dira.

c) Zatikatzeean epeen ordainketa-aldizkakotasuna hilabetekoa izango da.

d) Zatikatzee 50 euroko gutxieneko zenbatekoa izango dute.

4. Salbuespen gisa, ordaintzera behartuta dagoenaren ordainketa-ahalmenaren eta zenbateko egokiaren arabera, aipatu zor-zenbateko, amortizazio-epealdi, aldizkakotasun edo zatikatze-zenbatekoak betetzen ez dituzten ordainketa-planak baimenduko dira.

5. Derrigorrezko ordainketa-modua banku-helbideratzea izango da; behartuta dagoenaren titulartasunekoa ez den kontu batean helbideratu ahal izango da ordainketa, harik eta kontu horren titularrak helbideratzea baimentzen badu.

Epemugak, oro har, dagokion hilabetearen 5. edo 20. egunean edo hurrengo lanegunean izango dira.

6. Ordainketa-plan baten eskaerari erantzun aurretik, zorra ordaintzeko kontuan diru-sarrerak egin ahal izango dira; horrek ez du esan nahi, baina, ordainketa-planaren eskariari baiezkoa eman zaionik.

7. Ordainketa-plan baten eskaera bideratuko da harik eta, eskatutako zorraz gain, zordunak epealdi exekutiboan geroratu edo baliogabetu gabe dituen zor guztiak barneratzen baditu.

8. Borondatezko epealdian, ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera egin gabe, edozein zerga-zorri edo izaera publikoko beste zorren bati dagokion diru-sarrera falta bada, bertan behera geldituko da baimendutako ordainketa-plana eta beste ordainketa-plan bat egingo da zor berri hori ordaintzeko dagoen zordunketaren barnean sartuta; gainera, ordaintzeko kuota handitu egingo da eta mantendu egingo da amortizazio-epealdia eta banku-helbideratzea.

9. Ez betetzeagatik edo beste zor exekutibo baten pean erortzeagatik bertan behera utzitako aurreko plan batzuk errepikatzea dakarren ordainketa-plan baten eskaera aurkeztuz gero, ez da onartuko zatikatzearen zenbatekoa handitzea edo amortizazio-epealdia murriztea ekarriko duten aldaketak bertan barneratuta ez badaude eta eskaera egiten den unean kontuan diru-sarrera bat egin beharko da.

28. artikulua. Eskumena.

1. Ordainketa-planen eskaeren gaineko erabakiak hartuko dira bermea aurkezteko edo ez aurkezteko betebeharrari erantzunez, ordenantza honetako 27. artikulua 1. atalean zehazturiko baldintzak beteta.

2. Ordenantza honetako 27. artikulua 1. atalean zehazturiko baldintzak ez betetzeagatik bermea aurkezteko betebeharra dagoenean:

- a) Ordainketa-planaren eskaera Udalaren Erregistro Orokorrean egin beharko da.
- b) Ordainketa-plan horri baiezkoa edo ezezkoa emateko organo eskuduna alkatea bera izango da.
- c) Eskaera Udal Diruzainari zuzenduta egongo da eta berari dagokio ordaintzera behartuta dagoenaren finantza eta ekonomia mailako egoera aztertzea zordunketak kitatzeko aukerari dagokionez.
- d) Bermeak onartzea, ordezkatzeta eta indargabetzea Udal diruzainaren eskumenekoa izango da. Gainera, Udal diruzainak, erabat edo modu partzialean, bermeak ematea dispentsatu ahal izango du kasu bakoitzean zehazturiko baldintzen arabera, aurkeztutako aitorpenetik Administrazioak egiaztatu badu ez dela bermeak emateko ondasunik eskubiderik ala ondasun edo eskubide nahikorik.
- e) Diru-bilketa Sekzioaren buruak diruzainari informazioa emango dio behin zor bermedun osoa ordaindu dela egiaztatuz gero bermea kendu ahal izateko. Berme-kentze hori diruzainaren ebazpen soil batez egingo da, ofiziozko izapidea abiatuta.

3. 27. artikulua 1. atalean zehazturiko baldintzak betetzeagatik bermea aurkezteko betebeharrak ez dagoenean:

- a) Ordainketa-planaren eskaera Udalaren Diru-bilketa bulegoan egingo da.
- b) Ordainketa-plan horri baiezkoa edo ezezkoa emateko organo eskuduna Udal diruzaina izango da.

- c) Eskaera eta automatikoki jasotako onespina Diru-bilketa Sekzioko langileek formalizatuko dituzte, harik eta ordainketa-plana ordenantza honetan jasotako irizpide nagusiak betetzen dituzten baldintzen arabera eskatzen bada.
- d) Irizpide nagusiak betetzen ez dituzten baldintzetan eskatzen bada, Diru-bilketa Sekzioko langileek formalizatuko dute baina ordainketa-plan hori ez da automatikoki onartuko, interesdunak eskatu zaizkion agiriak aurkezten dituenetik bost eguneko epean baino, Udal diruzainak zehazturiko irizpideen arabera. Eskatutako dokumentazioa ez bada 10 eguneko epean aurkezten, geroratze- edo zatikatzeko-eskaera ez-aurkeztutzat joko da.

29. artikulua. Eskaera.

1. Ordainketa-plan baten eskaera ordaintzera behartuta dagoenak egingo du Udalaren Erregistro Orokorrean edo Diru-bilketa bulegoan, aurreko artikuluan zehazturiko artikuluen arabera.

2. Udal Diruzaintzak behar duen guztia eskura izango du aurreko puntuan aipaturiko eskaerak ordainketa-planak onesteko edo ez onesteko irizpideak eta diruzaintza mailako zailtasunak funtsatzeko beharra zehaztuko dituen agiri espezifiko batean egin daitezen, aurreko ataletan zehazturiko agiriak aurkeztuta.

3. Geroratze- edo zatikatzeko-eskaeran ondorengo guztia egongo da zehaztuta nahitaez:

- a) Izena eta abizenak, izen soziala edo izendapena, eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbide fiskala eta, kasuan-kasuan, haren ordezkaria den pertsonarena, telefonoa eta helbide elektronikoa, izanez gero.
- b) Eskatzen den geroratzeari edo zatikatzeari dagokion zerga, Udal Administrazioak egindako ordainketa-eskaera aurkeztuta. Eskaerak epealdi exekutiboan dagoen zerga osoa barneratu beharko du.
- c) Eskaturiko geroratze- edo zatikatzeko-eskaeraren epeak eta baldintzak.
- d) Eskaera egitearen arrazoiak.
- e) Ordenantza honetako 27. artikulua 1. ataleko baldintzak betetzen ez bada, eskatzen den berme nahikoa. Eskaera-fasean kreditu-erakundearen abal solidarioa eskaintzen denean, nahikoa da bermea eman duen erakundearen konpromiso-gutuna aurkeztea. Gainerako bermeetarako, bermean eskainitako ondasunen balorazioa aurkeztu beharko da; balorazio hori profesional independenteek egin beharko dute eta, gainera, ondasun higiezinak direnean, jabetza-eskriburaren fotokopia eta Jabetza-erregistroaren karga-ziurtagiria.
- f) Banku-helbideratzearen agindua, geroratutako edo zatikatutako ordainketen kobrantza helbideratutako den finantza-erakunde bateko banku-kontuaren zenbakia zehaztuta (20 digituak).
- g) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.

4. Bermearen dispentsa osoa edo partziala eskatzen denean, eskatzaileak, gainera, ondorengo dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a) Pertsona fisikoek:
 - Ondasun nahikorik ez dutela adierazten duen aitortpena.
 - Erakunde ordaintzaileak behar bezala kontratatutako nomina edo diru-sarreraren egiaztagiria.
 - Azken bi urteetako PFEZren aitortpena.

- Azken urteko banku-mugimenduak.
 - Erroldaren ziurtagiria.
- b) Pertsona juridikoek:
- Ondasun nahikorik ez dutela adierazten duen aitortpena.
 - Azken hiru ekitaldietako urteko kontuak eta ikuskaritza-txostena, baldin badago.
 - Bideragarritasun-plana, baldin badago, eta ekonomia, finantza eta ondare mailan garrantzia duen eta egokia den eta eskatutako gerorapena betetzeko aukera justifikatzen duen beste edozein informazio-mota.

5. Geroratze- edo zatikatzeko-eskaeraren eraginak:

- a) Ordainketa-planaren eskaera borondatezko epealdian aurkezten bada eta aipatu epealdia amaitzerakoan eskaeraren gaineko erabakirik hartzen ez bada, bertan behera geldituko da epealdi exekutiboaren hasiera.
- b) Ordainketa-planaren eskaera epealdi exekutiboan aurkezten bada Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluan 3. atalean zehazturiko epea amaitu aurretik, ez da abiatuko zordunaren ondarearen kontrako exekuzioa eta eskatu ahal izango den gainordaina exekutiboa izango da.
- c) Ordainketa-planaren eskaera aurreko puntuan zehazturiko epea amaitu ostean aurkezten bada bertan behera geldituko da premiamendu-prozedura. Alabaina, eskaeraren data baino lehen bideratutako agindu guztiek aurrera jarraituko dute eta dagokien eragina izango dute. Ordainketa-plana onetsiko balitz eta zorraren zenbatekoa murriztuko balitz eskaera-data baino lehen bideraturiko bahikuntza-aginduen eraginez, ofizioz bidaliko zaio zergadunari ordainketa-planaren onespén berri bat; bertan mantendu egingo da ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa eta murriztu egingo da amortizazio-epealdian, banku-helbideratzea mantenduta.

30. artikulua. Bermeak.

1. Arau orokor gisa, eskatzaileak kreditu-erakundeko abal solidarioa aurkeztuko du berme gisa. Abal gisa osatutako bermeak baliozkotasuna izango du Udalak hori bertan behera uztea baimentzen ez duen bitartean. Aipatu abal hori lortzea ezinezkoa balitz edo horrekin enpresaren bideragarritasuna estutasun larrian jartzen bada, diruzainak nahikotzat jotzen duen beste edozein berme.
2. Bermearen zenbatekoa: bermeak ordaintzeko dagoen zerga berdindu beharko du eta horri zenbateko horren ehuneko 25 gehitu beharko zaio, eska daitezkeen berandutze-interes guztiez gain.
3. Bermearen formalizazioa: bermea onespén-akordioaren gaineko jakinarazpena egiten denetik hilabete bateko epean formalizatu beharko da eta horren eragingarritasuna horren prestazioaren arabera egongo da baldintzatua. Epe hori hiru hilabetera arte zabaldu ahal izango du Udal diruzainak, interesdunak, aurretik, arrazoitutako eskaera bat aurkezten badu, epe horretan formalizatzea eragozten duten arrazoiak daudela justifikatzen denean. Epe horiek igarotakoan bermea ez bada formalizatu, onespén-akordioa bertan behera geldituko da.
4. Bermea kenduko da zorra erabat ordaindu dela egiaztatzen denean.

31. artikulua. Bermeen galdagarritasun eza eta dispentsa.

1. Oro har, ez da bermerik eskatuko geroratzea edo zatikatzea eskatzen diren zorren zenbatekoa 7.500 eurotik beherakoa denean edo eskaturiko geroratze- edo zatikatze-epealdia ez denean hiru hilabete baino gehiagokoa.

2. Udal diruzainak, erabat edo modu partzialean, bermeak ematea dispentsatu ahal izango du kasu bakoitzean zehazturiko baldintzen arabera, aurkeztutako aitorpenetik Administrazioak egiaztatu badu ez dela bermeak emateko ondasunik eskubiderik ala ondasun edo eskubide nahikorik.

3. Ez da bermerik eskatuko Zuzenbide Publikoko Erakundeek eskatutako ordainketa-planetarako.

32. artikulua. Ebazpena.

1. Ordainketa-planen gaineko ebazpena bi hilabeteko gehieneko epealdian eman beharko da. Epe hori zabaldu ahal izango da akatsik izanez gero, oker horiek konpontzeko izapideak irauten duen bitartean. Gehieneko epea amaitutakoan ebazpenik eman ez bada, ezezkoa eman dela ulertuko da.

2. Ordainketa-planak onesteko ebazpenetan zehaztuko dira kasu bakoitzaren eragingarritasuna baldintzatuko duten betekizunak.

Ebazpenean agertu beharko dute epeek eta ordaintzera behartuta dagoenak geroratze- edo zatikatze-eskaeran zehaztutako horien banku-kontuko helbideratzeak. Epemuga hilabete bakoitzaren 5. edo 20. eguna edo hurrengo laneguna izango da.

Ebazpenean eskaturiko epeak eta baldintzekiko desberdinak diren epeak eta baldintzak zehaztu ahal izango dira.

3. Ebazpena ezezkoa balitz eta geroratze- edo zatikatze-eskaera borondatezko ordainketa-epealdian egingo balitz, zorra Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 60, artikulua 1. atalaren b) puntuan zehazturiko epeetan ordaindu beharko da, dagozkion interesekin.

Geroratzea edo zatikatzea Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 60, artikulua 3. atalean zehazturiko epealdian eskatuko balitz, hamar eguneko epea emango da jakinarazpenetik hasita, zorraren diru-sarrerara egin ahal izateko gainordain exekutiboa barne; epe horretan ezingo da eskatu premiamendu-gainordaina.

4. Onespenaren edo ukapenaren jakinarazpena eskatzailearen helbide fiskalean edo berak jakinarazpena jasotzeko zehazturikoan egingo da. Alabaina, epe berdinean eta eskaeran zehazturiko zenbatekoak gainditzen ez dituztela egiten bada, kobrantza egin ahal izango da helbideratze-kontuan zordunduta, akordioaren jakinarazpen eragingarriaren data baino lehen.

33. Baliogabetze aurreratua.

Onetsitako ordainketa-plana erabat edo modu partzialean modu aurreratuan baliogabetuko da ondorengo kasuetan:

a) Zordunaren eskaeraz.

b) Ofiziozko konpentsazio bidez, geroratutako edo zatikatutako zorrak borondatezko ordainketa-epean egon ezean, Administrazioak ordaintzera behartutako pertsonaren alde onartutako edozein krediturekin, bai diru-sarrerak itzultzearen eraginez, bai beste arrazoiren bat dela medio. Konpentsatutako zenbatekoa zorra kitatzeko erabiliko da eta zergadunari, ofizioz, ordainketa-planaren onespén berri bat igorriko zaio, ordaintzeko dagoen zorraren zenbatekokoa izango dena; bertan, mantendu egingo da

kuotaren zenbatekoa, murriztu egingo da amortizazio-epea eta mantendu egingo da banku-helbideratzea.

34. artikulua. Interesak.

1. Geroratutako edo zatikatutako ordainketen zenbatekoek Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 26.3 artikulua eta Aurrekontu Lege Orokorraren 17. artikulua aipatzen dituzten berandutze-interesa edo legezko interesa sortuko dute, zerga arloko zorrak diren edo ez diren arabera, hurrenez hurren.

2. Ordainketa-plana onesten bada, interesak zorraren gainean kalkulatu dira, baldin badago, dagokion epealdi exekutiboaren gainordaina kanpoan utzita, eta borondatezko epemugatik geroratzerako edo zati bakoitzerako diru-sarrera egiteko emandako epea amaitu arte igarotako denbora neurtuta. Zati bakoitzetik sortutako interesak zati bakoitza ordaindu beharreko epealdian eta zati horrekin batera ordaindu beharko dira.

3. Ordainketa-plana ukatuko balitz edo zorraren diru-sarrera ebazpena baino lehen egingo balitz, borondatezko epemugatik ukapen-ebazpenaren edo zorraren diru-sarreraren data arteko epearen interesak kalkulatu beharko lirateke.

35. artikulua. Geroratutako edo zatikatutako zenbatekoen ordainketa faltaren ondorioak.

1. Geroratzeetan, emandako epemuga iritsi eta ordainketarik egiten ez bada: eskaera borondatezko epealdian aurkeztu bada epealdi exekutiboa abiatuko da eta eskaera epealdi exekutiboan aurkeztu bada premiamendu-prozedurari jarraituko zaio ordaintzeko dagoen zorra gauzatzeko.

2. Onetsitako ordainketen zatikatzeetan, epemugetakoren bat iritsi eta ordainketarik egiten ez bada, honela jokatu da:

- a) Ordaindu gabeko zatirako eta epemugaren hurrengo egunetik aurrera sortutako interesetarako, konturako zorduntze berri bat igorriko da epemuga gisa hilabete bakoitzaren 5. edo 20. egunean edo hurrengo lanegunean hurrengo bidalketa hartuta eta interesdunari konturako zorduntzearen jakinarazpena igorriko zaio.
- b) Aipatu zordunketaren ordainketa betetzen ez bada, amaitutzat joko dira ordaintzeko dauden zatiak eta epealdi exekutiboa abiatuko da edo premiamendu-prozedurarekin jarraituko da, zatikatzea borondatezko epealdian edo exekutiboan izan den arabera.
- c) Geroratutako edo zatikatutako zorraren epemuga iritsi eta ordainketa egiten ez bada, berriz kalkulatu dira ordainketa egiten den unera arteko berandutze-interesak kalkulu nagusiaren oinarri gisa.

III. ATALA. PRESKRIPZIOA.

36. artikulua. Zorren preskripzioa eta baliogabetzea.

1. Zerga-zorren ordainketa eskatzeko epea lau urtetan preskribatzen da, borondatezko epea maiztzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Zerga arlokoak ez diren izaera publikoko zorren preskripzio-epea horien kudeaketa arautzen duen araudi partikularrean oinarrituta zehaztuko da. Eskubide publikoko baliabidea arautzen duen Legean aurreikuspen zehatzik ez balego, Aurrekontuen Legearen 15. artikuluan zehaztuta dagoen lau urteko preskripzio-epea aplikatuko litzateke.

3. Preskripzio-epea eten egingo da ondorengo kasu hauetan:

- a) Administrazioak ordaintzera behartuta dagoenari modu formalean jakinarazita egindako edozein ekintzaren eraginez; zorraren diru-bilketara zuzenduta egongo da modu eragingarrian.
- b) Edozein motako erreklamazioak edo errekursoak aurkeztuta, aipatu erreklamazio edo errekurso horiek bideratzerakoan ordaintzera behartuta dagoenari modu formalean jakinarazita, Kontzertu Ekonomikoan aurreikusitako Arbitraje-batzordearen aurrean gatazka bat planteatuta edo zordunaren lehiaketaren aitortze bidez edo zorra kobratzera zuzendutako ekintza zibilak edo penalak gauzatuta, baita bidean den administrazio-prozedura bat geldiaraztea agintzen duen jurisdikzio-organismoaren jakinarazpena jasota ere.
- c) Ordaintzera behartuta dagoenaren edo hirugarren baten edozein jarduera frogagarriren bidez haren kontura eta jakinaren gainean egonda, zorra aitortze, ordaintze edo kitatze aldera.

4. Etendura horren eraginez, preskripzio-epea berriz kontatzen hasiko da etendura-datatik aurrera, Zergei Buruzko Foru Arau Orokorrean zehazturiko salbuespenekin.

Preskripzio-epea etetea, etendura horrek ordaintzera behartuta dauden guztiengan izango du eragina.

5. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da eta diruzainak aitortuko du; diruzainak, urtero, bakarka preskribatu gisa izendatu ez diren urtean preskribatutako zor guztien gaineko espediente kolektiboa bideratuko da. Espediente hori organo eskudunaren onespeneren mende egongo da, zenbatekoaren arabera, alkatearen edo Gobernu-batzordearen mende; aipatu espediente hori Kontu-hartzearen bidez fiskalizatu ahal izango da. Preskribatutako zorrei baja emango zaie udal kontabilitatean.

6. Preskripzio-epeen kontaketa eta horien etendura Zergei Buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

IV. ATALA. KONPENTSAZIOA.

37. artikulua. Konpentsazio-arau orokorrak.

1. Diru-bilketa fasean, bai borondatezkoan, bai exekutiboan, dauden Udal Ogasunaren aldeko zorrak iraungi ahal izango dira erabat edo modu partzialean konpentsazio bidez, Udal Ogasunak aitortutako zordunaren aldeko kredituekin.

2. Konpentsazioa ofizioz edo ordaintzera behartuta dagoenaren eskariz adostuko da.

Alkatea da Udal Diru-bilketa Sekzioari egotz dakioken diru-bilketa kudeaketaren mende dauden zorren konpentsazioa onesteko organo eskuduna, zordunaren aldeko ordainketekin.

38. artikulua. Konpentsazioa ordaintzera behartuta dagoenaren eskariz.

1. Ordaintzera behartuta dagoenak bai borondatezko epealdian dauden zorren konpentsazioa eskatu ahal izango du, bere alde aitortutako kredituekin.

2. Konpentsazio-eskaerak ondorengo datuak bilduko ditu:

- a) Izena eta abizenak edo izen sozial osoa, ordaintzera behartuta dagoenaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbide fiskala eta, kasuan-kasuan, haren ordezkariarena.
- b) Konpentsatzea eskatutako zorraren identifikazioa, gutxienez, haren zenbatekoa, kontzeptua eta borondatezko epean diru-sarrera egiteko epearen epemuga-data zehaztuta.

- c) Udal Ogasunak eskatzailearen alde aitortutako kredituaren identifikazioa eta horren konpentsazioa zenbatekoa eta kontzeptua zehaztuta ematen da. Zorrak eta kredituak zordun berarenak izan behar dute.
- d) Kreditua beste pertsona bati eskualdatu, laga edo endosatu ez izanaren aitortpen espresua.
- e) Lekua, data eta interesdunaren sinadura.

3. Konpentsazio-eskaera bat borondatezko epean aurkezteak eragotzi egingo du zorraren epealdi exekutiboa abiatzea hori bideratzerakoan aitorturiko kredituarekin batera. Horrek ez du eragotziko kredituaren aitortpen-data arte edo ukapen-ebazpenaren data arte izan daitezkeen berandutze-interesen sortzapena.

4. Zorraren iraungipena eskaera aurkezten den unean edo zorretarako edo kredituetarako eskaturiko baldintzak betetzen direnean gertatuko da, une hori aipatu aurkezpena baino geroagokoa bada. Konpentsazio-akordioak iraungipen hori aitortuko du.

39. artikulua. Ofiziozko konpentsazioa.

1. Zerga-administrazioak ofizioz konpentsatuko ditu zerga-zorrak eta epealdi exekutiboan dauden zuzenbide publikoko gainerako zergak.

2. Gainera, ofizioz konpentsatuko dira borondatezko epealdian diru-sarrera egiteko epeko egiaztapen mugatuko edo ikuskaritzako prozedura berdin batetik edo aurreko bat baliogabetu izanagatik martxan jarritako likidazio berri baten egintzatik eratorritako sartu eta itzuli beharreko diru-kopuruak.

3. Ofizioz konpentsatu ahal izango dira, borondatezko epealdian diru-sarrera egiteko epea amaituta dagoenean, zuzenbide publikoko Erakundeek Udal honekin dituzten iraungitako zorrak, zor likidoak eta zor galdagarriak.

4. Kredituak eta zorrak, azken hori borondatezko epean egonik ere, zerga-helburu eta epealdi berari aipamena egiten badiote, Administrazioak ofizioz konpentsatu ahal izango ditu zenbateko konkurrentearen arabera, eta hortik sor daitezkeen diferentzia erreklamazio- edo itzultze-xede izango da, harik eta kredituaren titularrak espresuki baimentzen badu, eta baimen horretan zehaztuko du ez duela hura itzultzea eskatuko bidezkoa ez den diru-sarreragatik.

5. Artikulu honetan arauturiko ofiziozko konpentsazioa gauzatze aldera, hirugarren baten aldeko betekizun aitortu bat dagoen bakoitzean ordainketa gauzatu aurretik, Diruzaintza Sekzioari kontsulta egingo zaio hirugarren horrek epealdi exekutiboan zorrik bat ote duen edo zuzenbide publikoko Erakunde bat den jakiteko; kasu horretan, Diru-bilketa Sekzioari igorriko zaio konpentsazio-espeditentea bidera dezan.

6. Zorraren iraungipena epealdi exekutiboa hasten den unean gertatuko da edo zorretarako eta kredituetarako eskaturiko baldintzak betetzen direnean, une hori geroagokoa baldin bada. Konpentsazio-akordioak iraungipen hori adieraziko du.

Artikulu honetako 2. atalean aurreikusitako kasuan, iraungipena zorrak eta kredituak bat egiten duten unean gertatuko da.

40. artikulua. Erakunde Publikoen zorrak.

1. Udalaren aldeko zorrak, zorduna Lurralde Erakunde bat, Erakunde Autonomo bat, Gizarte Segurantzak edo Zuzenbide Publikoko Erakunde bat denean eta erakunde horren jardura ez da ordenamendu pribatuaren arabera arautzen ez denean, ofizioz konpentsatu ahal izango dira borondatez epean diru-sarrera egiteko epea igarotakoan.

2. Konpentsazioa Erakunde Publikoen zorrak iraungitzeko bide gisa aplikagarria ez denean Erakunde horiek Udalaren kontrako krediturik ez dutelako, diruzainak Erakunde zordunaren Kontu-hartzeari eskatuko dio udalari ordaintzeko betekizuna aitortzearen egiaztagiria.

Diru-bilketa Sekzioaren buruak Udal diruzainari emango dio bere ikerketen ondorioz bildu duen dokumentazioa jasoko duen espediente. Zorraren eta zordunaren izaera eta espedientearen tramitazioaren garapena aztertu ostean, diruzainak ondorengo jarduera-proposamen bat egingo du. Hauetako bat izan daiteke jarduera-proposamen hori:

- a) Estatuko Administrazioari edo Administrazio Autonomikoari eskatzea zorraren zenbateko bereko atxikipena aplikatu dadin eta Udalaren esku jar dadin, Erakunde zordunaren alde agindu daitekeen transferentziei kargua eginda.
- b) Foru Ogasunaren lankidetzak eskatzea zorrak egikaritzeko.

Aurreko puntuan aipaturiko jardueretatik kreditu-egikaritzarik ez badator, ikertu egingo da ondare-ondasunak dauden ala ez, behar izanez gero horiek bahikuntza agintze aldera.

Gauzatu beharreko jarduerak alkateak onetsi beharko ditu diruzainaren proposamenez eta horren ebazpenetik jakinarazpen formala igorriko zaio Erakunde Zordunari.

41. artikulua. Konpentsazioaren eraginak.

- 1. Konpentsazioa adostu ostean, zorrak eta kredituak zenbateko konkurrentearen arabera joko dira iraungitzat.
- 2. Zuzenbide Publikoko Erakundearen zorraren konpentsazioaren kasuan, kreditua zorra baino txikiagoa baldin bada, kreditua gainditzen duen zorraren zatitik segidako konpentsazio batzuk hitzartuko dira kredituekin eta, aurrerago, erakunde horien aldeko gisa onartuko dira.
- 3. Gainerako kasuetan, kreditua zorra baino txikiagoa bada, diru-bilketa prozedurari jarraituko zaio kreditua gainditzen duen zorraren zatitik.
- 4. Kreditua zorra baino handiagoa baldin bada, konpentsazioa hitzartu ostean, interesdunari diferentzia ordainduko zaio.
- 5. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, Administrazioak interesdunari zorraren iraungipenari dagokion egiaztagiria eman behar dio, konpentsatutako kreditua iraungitzat joko duen hitzarmena egin behar du eta egokiak diren kontularitza-eragiketak gauzatu beharko ditu.

V. SEKZIOA. HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK.

42. Zordun kobraezina eta kreditu kobraezina.

- 1. Hutsegin gisa hartuko dira ordaintzera behartuta daudenak haien zorra ezin bada bideragarri egin dagozkion diru-bilketa prozeduretan haien kaudimen-gabezia frogatzen baldin bada.
- 2. Kreditu kobraezintzat joko dira zordun nagusiak eta, kasuan-kasuan, erantzule solidarioak eta subsidiarioak kaudimen-gabekoak direlako eta hutsegintzat jotzen direlako premiamendu-prozeduran bideragarri egin ezin diren zorrak.

43. artikulua. Prozedura.

- 1. Diru-bilketa Sekzioak, diruzainaren zuzendaritzapean, zuzenean edo beste udal organo batzuen bidez, partikularren edo beste erakunde batzuen gainean egin

beharreko eta zerga-kredituak eta zuzenbide publikoko gainerako zergak egikaritzea helburu duten informazio-jarduerak gauzatu beharko ditu.

Jarduera horiek jasota geldituko dira espedienteen zordun nagusiek eta erantzule solidarioek bahitu edo egikaritu daitekeen ondasunik edo eskubiderik ez izatea justifikatzeko eta hutsegintzat jo ahal izateko. Udal diruzainak joko du hutsegintzat.

2. Zordun nagusiak eta erantzule solidarioak hutsegintzat jo ostean, erantzule subsidiariorik ba ote dagoen ikertuko da. Erantzule subsidiariorik ez badago edo horiek ere hutseginak badira, kreditua kobraezintzat joko da.

Kreditu kobraezin gisa jotze aldera, Diru-bilketa Sekzioaren buruak espedienteak behar bezala dokumentatuko ditu eta diruzainari igorriko dizkio ordaintzera behartutako kaudimen-gabezia frogatuagatik kredituen behin-behineko baja-proposamena egin dezan eta Alkatetzaren edo Gobernu-batzordearen dekretu bidez onets dadin zenbatekoa; baja-proposamen hori Kontu-hartzearen bidez fiskalizatu ahal izango da.

44. artikulua. Kreditua kobraezintzat jotzearen eraginak.

1. Kreditua kobraezintzat jotzeak ez dakar berehala zorraren iraungipena, dagozkien kredituen kaudimen-gabeziagatik behin-behineko konturako baja bakarrik baizik.

Kobraezintzat jotze horrek ez du eragozten legeen arabera egikari daitezkeen ekintzak dagoenaren kontra egikaritzea, harik eta Administrazioak ordainketa eskatzeko eskubidea preskribatu bada.

2. Diru-bilketa Sekzioak zaindu egingo du hutsegintzat jotako behartuek eta erantzuleek bat-batean kaudimena izan ote dezaketen, horretarako diruzainak zehazturiko jarduerak burututa. Helburu horrekin, diruzainak udal informazio nabarmenena aldian-aldian eskura izateko eta ezagutzeko administrazio-zirkuituak antolatuko ditu.

Berehalakoan egoera hori gertatuko balitz eta zorrak preskribatuta egongo ez balira, kobratu gabeko kredituak birgaitzeari ekingo litzaioke.

Diru-bilketa Sekzioaren buruak zordunak kaudimena baduela jakingo balu, diruzainari jakinarazi beharko lioke eta azken horrek proposatuko du kobratu gabeko kreditua birgaitzea, Alkatetzaren Dekretu bidez onetsi dadin.

3. Zorra behin betiko iraungita geldituko da preskripzio-epealdian birgaitzen ez bada.

4. Ordaintzera behartuta dagoen bat hutsegintzat jotzen bada, amaitutzat hartuko dira hutsegintzat jotzeko data baino geroagoko epemuga dutenak eta, horren arabera, baja emango zaie, harik eta beste behartu edo erantzule batzuk ez baldin badaude.

5. Zorduna hutsegintzat jotzearen berri eman beharko da, Merkataritzako Erregistroan izena emandako pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, Udal diruzainak egindako Erregistroan idazteko agindu baten bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Araudiaren 40. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Erregistro hori derrigortuta egongo da Diru-bilketa Sekzioari jakinaraztera erakunde zordunaren gainean inskribatzeko aurkezturiko edozein ekintza, kobraezintzat jotako kredituak birgaitu ahal izateko.

45. artikulua. Kreditua kobraezintzat jotzearen justifikazioa.

1. Prozedura-legezketasunaren printzipioaren errespetua eskura dauden baliabideen erabilerako eragingarritasun administratiboarekin batze aldera, jarraian zenbait jarduera zehatz aipatuko dugu. Jarduera horiek kontuan hartu beharko dira kreditua kobraezintzat jotzea justifikatzeko eta behar bezala dokumentaturik egon beharko dute dagozkien espediente exekutiboetan; baldintza horiek kreditua kobraezintzat jotzeko proposamena baino lehenago egiaztatu beharko dira.

2.- Justifikazio-dokumentazioa desberdina izango da zorraren zenbatekoaren arabera. Ondorengo kasuak bereizi behar dira:

2.1.- 300 eurotik beherako zor pilatuengatiko espedienteak.

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.

2.2.- 300 eta 1000 euro arteko zor pilatuengatiko espedienteak.

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Espedientean ziurtatu behar izango da zorduna ez dela ordaintzera behartutako pertsona gisa agertzen Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, Ondasun Higiezen gaineko Zergaren erroldan edo jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erroldan, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sekzioak egindako Ondasun-ziurtagiri baten bidez.
- c) IFZ izanda, egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- d) Zordunaren IFZ ez izanda, egiaztatu egin beharko da Udal datu-baseetan kontsultak egin direla zorra egikaritze aldera.
- e) Egiaztatu egin beharko da soldatak, lansariak eta pentsioak bahitzeko saiakerak egin direla eta ezinezkoa izan dela, pertsona fisikoen kasuan.

2.3.- 1000 eurotik gorako zor pilatuengatiko espedienteak, pertsona fisikoen izena zehaztuta dituztenak:

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Espedientean ziurtatu behar izango da zorduna ez dela ordaintzera behartutako pertsona gisa agertzen Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, Ondasun Higiezen gaineko Zergaren erroldan edo jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erroldan, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sekzioak egindako Ondasun-ziurtagiri baten bidez.
- c) IFZ izanda, egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- d) Zordunaren IFZ ez izanda, egiaztatu egin beharko da Udal datu-baseetan eta beste datu-base batzuetan kontsultak egin direla zorra egikaritze aldera.

- e) Egiaztatu egin beharko da soldatak, lansariak eta pentsioak bahitzeko saiakerak egin direla eta ezinezkoa izan dela.
- f) Egiaztatu egin beharko da zordunaren izenean ez dagoela ondasun inskribatuta Jabego-erregistroen Aurkibide Nagusiaren Zerbitzuan, ezta beste Erregistro Publiko batzuetan ere.

2.4.- 1000 eurotik gorako zor pilatuengatiko espedienteak, pertsona juridikoen izenak zehaztuta dituztenak:

- a) Premiamendu-probidentzia baino lehenagoko jakinarazpena, tituluetan agertzen diren helbide guztietan, Zergadunen datu-basean agertzen den helbidean eta Biztanleen erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen-saiakerak eginda eta, kasuan-kasuan, BAOean iragarki bat argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazpena jaso ahal izateko.
- b) Espedienteen ziurtatu behar izango da zorduna ez dela ordaintzera behartutako pertsona gisa agertzen Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan edo jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erroldan, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sekzioak egindako Ondasun-ziurtagiri baten bidez.
- c) IFZ izanda, egiaztatu egin beharko da funtsak bahitzeko saiakerak egin direla zenbait banku-erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- d) Zordunaren IFZ ez izanda, egiaztatu egin beharko da Udal datu-baseetan eta beste datu-base batzuetan kontsultak egin direla zorra egikaritze aldera.
- e) Egiaztatu egin beharko da zordunaren izenean ez dagoela ondasun inskribatuta Jabego-erregistroen Aurkibide Nagusiaren Zerbitzuan, ezta beste Erregistro Publiko batzuetan ere.
- f) Merkataritzako Erregistroak emandako informazioa aurkeztu beharko da.

3. Zirkulazio-isunei dagozkien espediente exekutiboan eraginez kobraezinak diren kredituen espedienteak bideratzerakoan, zenbait bahikuntza-motako emaitza txarraren justifikazio-dokumentazioa desberdina izango da zorraren zenbatekoaren arabera. Ondorengo kasu hauek bereiziko ditugu:

3.1. Zorraren zenbatekoa 302 eurokoa edo gutxiagokoa da: ez dute emaitzarik izan zenbait banku-erakundetan funtsak bahitzeko egindako saiakerek.

3.2. Aipatu espedienteen zorraren zenbatekoa 302 eta 1000 euro artekoa da: ez dute emaitzarik izan zenbait banku-erakundetan funtsak eta soldatak, lansariak edo pentsioak bahitzeko egindako saiakerek.

3.3. Espediente horien zorraren zenbatekoa 1000 eurotik gorakoa da: ez dute emaitza onik izan zenbait banku-erakundetan funtsak eta soldatak, lansariak edo pentsioak, ibilgailuak edo ondasun higiezinak bahitzeko egindako saiakerek.

4. Artikulu honetan zehazturiko zenbatekoa zehazte aldera, zergadun batek ordaintzeke dituen zor guztiak zenbatuko dira, baita epealdi exekutiboan ordainketa epea amaituta daudenak ere eta, beraz, bahitu daitezkeenak; kontuan hartuko dira horien zenbateko nagusiak.

Artikulu honetako 2. atalean zehazturiko zenbatekoa zehazte aldera, ordaintzera behartuta dagoen batek ordaintzeko dituen, zirkulazio-isunekiko kontzeptu desberdinak dituzten eta bahitu ahal diren zerga guztiak.

46. artikulua. Baja-espediente sinplifikatuak.

Alkatetzak baja-espediente sinplifikatuak onartu ahal izango ditu hurrengo kasu hauetan, bakoitzerako zehazturiko prozeduraren arabera:

- a) Zordunak kokatzeko, zehazteko eta identifikatzeko oinarrizko datuak (abizenak eta izena, NAN/IFK edo helbidea) falta dituzten zorrak.
- b) Ofizioz baliogabetu eta bajan eman ahal izango dira 6,01 euroak gainditzen ez duen zenbatekoko epealdi exekutiboko zorrak, harik eta ordaintzera behartuta dagoenak epealdi exekutiboan beste zorrik ez badu.
- c) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Udal zergaren erreziboak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horien matrikulaziotik 10 urte baino gehiago igaro badira, eta kobratzeko gestioa Zerga-bilketa exekutiboak egin arren ondorioa negatiboa izan bada, eta Trafikoko datu-basean ibilgailuaren gaineko bahitura badago, edo ez badago derrigorrezko aseguruak kontratatuta.

IV. KAPITULUA. PREMIAMENDU-PROZEDURA.

47. artikulua. Erregimena.

Premiamendu-prozedura eta bahikuntza-jarduera Zergei buruzko Foru Arau Nagusiak eta Bizkaiko Lurralde Historikorako Diru-bilketa Araudiaren arabera gauzatuko da.

48. artikulua. Premiamendu-prozedura.

1. Premiamendu-prozedura zergadunari premiamendu-probidentziaren berri emanda abiatuko da eta bertan ordaintzeko dagoen zerga identifikatuko da, kasu bakoitzean sortzen diren gainordainak eta interesak barneratuta, eta ordainketa gauzatzeko eskatuko zaio.
2. Udal diruzainak egindako premiamendu-probidentzia titulu nahikoa izango da premiamendu-prozedura abiatzeko eta zergadunen ondasunen eta eskubideen kontra abiatzeko ebazpen judizialaren pareko indar exekutiboa izango du.
3. Premiamendu-probidentziaren kontra ondorengo aurkaritza-arrazoiak direla medio soilik onartuko dira:
 - a) Zorraren iraungipen osoa edo Zerga-administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahalmenaren egikaritzaren preskribapena.
 - b) Geroratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskaera borondatezko epean eta diru-bilketako prozedura bertan behera uzteko beste arrazoi batzuk.
 - c) Likidazioaren gaineko jakinarazpen falta.
 - d) Likidazioaren baliogabetzea.
 - e) Zorduna edo premiatutako zorra identifikatzea eragozten duen premiamendu-probidentziaren edukian akatsen bat edo hutsen bat izatea.
4. Zergadunak ordainketa ez badu premiamendu-probidentziaren jakinarazpenetik hilabeteko epean egiten, haren ondareak bahituko dira eta hori ohartaraziko zaio probidentzia horretan.

5. Prozedura bakar bat jarraitze aldera, premiamendu-prozeduran dauden zor guztiak prozedura bakar batean pilatuko dira. Alabaina, prozeduren beharrek hala eskatzen dutenean, pilatutako zorrak bereizi ahal izango dira.

49. artikulua. Bahikuntza-ekintza.

1. Bahikuntza-ekintza guztia dokumentatuta egongo da Udal diruzainak Diru-bilketa Sekzioaren buruaren proposamenez aurkeztutako eginbide bidez eta ekintza horren helburu den pertsonari jakinaraziko zaio.

Bahikuntza egin ondoren, zordunari horren berri emango zaio eta, kasuan-kasuan, ondasunen hirugarren titularri, edukitzaileari edo gordailuzainari horiekin ekintzak gauzatu ez badira, baita zordunaren ezkontideari ere bahitutako ondasunak irabazizkoak direnean, eta zordunarekin batera ondasun horien jabeak edo titularrak direnei ere.

2. Bahitutako ondasunak Erregistro Publiko batean inskriba badaitezke, Administrazioak eskubidea izango du dagokion Erregistroan bahikuntzaren prebentziozko oharra jartzeko, Udal diruzainak emandako aginduaren arabera.

3. Bahitutako ondasunen inorentzea enkante, lehiaketa edo esleipen zuzen bidez egingo da.

4. Ondasunen esleipenaren aurreko edozein unetan bahitutako ondasunak itzul daitezke zerga-zorra eta prozeduran zehar sortutako gerorako gainordaina, kostuak eta interesak ordainduta ere.

V. KAPITULUA. ETENDURA ERREKURTSOA JARRITAKO EGINTZAREN EGIKARITZAN.

50. artikulua. Etendura.

1. Ordaintzera behartuta dagoenak eskubidea du, dagokion errekurtsua edo erreklamazioa egiteko aukerarekin, aurka egindako egintzaren egikaritza eteteko, harik eta indarrean den legediak eskatzen dituen bermeak aurkezten baldin baditu.

Bermeak errekurtsuaren xedea den zorraren zenbatekoa berdinduko du eta errekurtsu-egilea kopuruaren gainerako zatia ordaintzera behartuta geldituko da. Zorra premiamendu-prozeduran baldin badago, bermeak, zorraz gain, haren %25 ere hartuko du barnean sor daitezkeen premiamendu-gainordainagatik, interesengatik eta kostuengatik.

Aurreko paragrafoan aipatu bermea denbora mugagabez aurkeztuko da.

Etendura edozein unetan eska daiteke errekurtsua edo erreklamazioa bideratzen ari den bitartean, baina errekurtsua jartzerako unean eskatzen ez bada, gerora sor daitezkeen prozedura-ekintzetan soilik izango du eragina.

Aurka-egiteak zerga-isun batean eragina izango balu, horren egikaritza automatikoki etengo litzateke bermerik aurkezteko beharrik gabe isuna bide administratiboan irmo izatera iristen den arte.

2. Aurreko puntuan aipatu etendura automatikoa lortzeko berme nahikoak Udal Diruzaintzan gordailatuko dira eta hurrengo motatakoak izango dira soilik:

a) Diru-gordailua edo titulu publikoak.

b) Kreditu erakunde baten izaera solidariokoa bala edo fidantza.

3. Interesdunak ezin baditu etendura lortzeko berme nahikoak aurkeztu, etendura hitzartu ahali zango da organo eskudunak nahikotzat jotako beste berme batzuk aurkeztuz gero; organo eskudunak etenduraren gaineko ebazpena aldatu ahali zango du etendura gauzatzea eragin zuten baldintzak mantentzen ez badira, aurkeztutako bermeei balioa edo eragingarritasuna galdu badute edo etenduraren gaineko ebazpena ematerako unean ezagutzen ez ziren beste ondasun edo eskubide batzuk daudela jakiten bada eta horiek berme gisa aurkez badaitezke.

4. Aurreko puntuei kalterik egin gabe, prozedura bermerik aurkeztu gabe etetea adostu ahal izango da ondorengo kasuetan:

- a) Akats aritmetiko, material edo egintzazko batean erori ahal izan dela ikusten denean.
- b) Errekurtsoa aurkeztu duenak argudiatzen eta justifikatzen duenean, erabakitze organo eskudunaren irizpidearen arabera, bermerik ematerik ez dagoela edo prozeduraren egikaritzak konpontzeko zailak edo ezinekoak diren kalteak sor daitezkeela.

5. Bide administratiboan sorturiko etendura mantendu egingo da interesdunak Administrazioari administrazioarekiko auzietako errekurtsoa aurkezteko epean errekurtso hori bultzatu duela eta bertan etendura eskatu duela. Etendura horrek aurrera jarraituko du bide administratiboan aurkeztutako bermea indarrean badago eta eragingarria bada, organo judizialak eskatutako etendurari dagokionez egokia den erabakia hartzen duen artean.

Zigorren kasuan, etendura mantendu egingo da aurreko paragrafoan zehazturiko baldintzen arabera eta bermea aurkezteko beharrik gabe, epaileak erabakia hartzen duen arte.

6. Erreklamazioaren edo errekurtsoaren ebazpenaren eraginez aurka egindako egintzatik eratorritakoz enbategia erabat edo modu partzialean sartu behar denean, berandutze-interesak likidatuko dira 26. artikuluari jarriki, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 3. atalaren 219. artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

7. Administrazioak, zenbatekoa egiaztatu ostean, zor baten egikaritza eteteko Administrazioaren ardurapean emandako bermeen kostuaren dirua itzuliko du, ebazpen edo erabaki administratibo batek bidegabekotzat jo eta erabaki hori irmo izan bezain pronto.

Zorra modu partzialean bidegabekotzat jotzen bada, aipatu bermeen kostuari dagokion zatia itzuliko da.

51. artikulua. Bermeen kostuen diru-itzultzea.

1. Ekintza bat eteteko emandako bermeen kostuen itzulketak bermea itzultzen den egunera arte etendura formalizatzeko, mantentzeko eta baliogabetzeko beharrezkoak diren gastuak barneratuko ditu.

2. Bermeen kostuen itzulketarekin, Zerga-administrazioak denbora-tarte osoan indarrean den berandutze-interesa ordainduko du; berandutze-interesa kostu horiek sortu direnoko data egiaztatutik diru-itzulketa jasotzeko eskubidea aitortuko duen hitzarmena sortzen den arte sortuko da.

52. artikulua. Bermeen kostuaren diru-itzultzerako prozedura.

1. Bermeen kostua itzultzea bideratzeko eta adosteko organo eskuduna alkatea izango da, Udal diruzainaren proposamenez.

2. Prozedura interesdunaren eskariz hasiko da. Ondorengo agiriak atxiki beharko dizkio eskari horri:

- a) Etendako administrazio-ekintza edo zorra erabat edo modu partzialean bidegabekotzat jotzeko ebazpen administratiboaren edo epaiaren kopia.
- b) Bermeen kostuaren kopurua zenbatekoa den egiaztatzen duen agiria, ordainketaren data eragingarria zehaztuta.
- c) Diru-itzulketa egiteko hautatutako bidearen adierazpen espresua; banku-transferentzia bidez egin ahal izango da zordunaren titulartasun peko kontu zenbaki bat zehaztuta, baita konpentsazio bidez ere.

3. Zerga-administrazioak eskatutako diru-itzulketaren jatorria egiaztatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatuko ditu eta, horiek amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, interesdunari entzunaldi baterako deituko zaio. Izapide hori ez da bete beharko interesdunak aurkeztutako egintzak eta alegazioak prozeduran agertzen ez direnean eta horiek baino hartzen ez direnean kontuan.

4. Organo eskudunak ebazpena emango du eta horren berri eman beharko da gehienez sei hilabeteko epean, Erregistro Orokorrean eskaera aurkeztzen den egunetik kontatzen hasita.

5. Jakinarazpena egiteko epea igaro eta jakinarazpen hori ez bada egin, interesdunak bere eskaera ez dela onartu ulertu ahal izango du aipatu ebazpenaren kontrako errekurtoa jartze aldera.

6. Bermeen kostuaren diru-itzulketa onartuko duen ebazpena egin ostean, dagokion ordainketa-agindua emango da pertsona edo erakunde hartzekodunaren alde.

IV. IKUSKARITZA

53. artikulua- Zerga-ikuskaritza gauzatuko da 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005 FORU ARAUAN eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskaritzaren araudia onartu zuen 2005. urteko ekainaren 21ko 99/2005 Foru Dekretuan zehazturikoaren arabera gauzatuko da. Alkatea izango da jarduera horietatik erator daitezkeen ekintzak emateko eskumena izango duena”.

V.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

54. artikulua- Zerga arloko arau-hausteak 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005 FORU ARAUAN zehaztutakoaren arabera kalifikatu eta arautuko dira.

Zerga arloko arau-hausteei aplikatu beharreko zigorrak 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005 FORU ARAUAN eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko Zigor-araudia onartu zuen 2005. urteko ekainaren 21ko 100/2005 Foru Dekretuan zehaztutakoaren arabera arautuko dira. Alkatea izango da jarduera horietatik erator daitezkeen ekintzak emateko eskumena izango duena.

VI. EGINTZAK ADMINISTRAZIO-BIDEAN BERRIKUSTEA

55. artikulua- Zerga arloan bide administratiboan emandako egintzen berrikuspena 2005. urteko martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga arloko 2/2005

FORU ARAUAN eta 2005. urteko abenduaren 16ko Tokiko Ogasunen gaineko 9/2005 Foru Arauan zehazturikoaren arabera gauzatuko da”:

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza horri behin-betiko onespena eman zitzaion, eta indarrean sartuko da 2007ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.”

BIGARREN ORDENANTZA FISKALA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINeko ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA

I.- DISPOSICIONES GENERALES

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasuna arautzen duen Foru Arauan eta Zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoari jarraiki, Jarduera Ekonomikoei buruzko Zerga ordaintzeko obligazioa ezartzen du, hori Ordenantza honen arabera egingo da, eta horren zati diren Eranskinetan datoz jasoak, aplikagarri diren koefizienteak eta indize-eskalak.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.-

3.1.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion zergapeko egitatea, udal barrutian, hurrengo jardueraren bat garatzetik sortzen da, hau da, bai jarduera enpresarialak, bai profesional edo artistikoak garatzetik, horiek lokal zehatzean egin edo ez, eta Zergaren Tarifetan zehaztuta egon edo ez.

3.2.- Zerga honen ondoriotarako, jarduera enpresarialak direla ulertuko da, ganaduzaleenak, baldin eta horiek izaera independentea balute, eta meatzaritzakoak, industrialak, merkataritzakoak eta zerbitzuetakoak. Ez daukate izaera hori beraz, nekazaritzakoak, menpekoak diren ganaduzaleenak, baso-ustiapenekoak eta arrantzazkoak.

Aurreko paragrafoan aurrikusitako ondoriotarako, ganadutegi independentearen izaera eukiko du, hurrengo kasu hauetako baten barne aurkitzen den ganadu-buru multzoak:

- a) Ezen, ganaduaren jabeak nekazaritzarako edo basogintzarako erabiltzen ez dituen lurretan bazka edo elikatzen bada.
- b) Finka landatarretatik kanpoko ukuiluratzea.
- c) Transhumantea edo barrutiz barruti dabilena.
- d) Abereak hazten dituen finkan ekoiztu gabeko pentsuekin elikatzen bada gehien bat.

4. Artikulua.-

4.1.- Jarduera bat izaera enpresarial, profesional edo artistikoz egiten dela ulertzen da, baldin eta ekoizpeneko baliabideak eta giza-baliabideak, edo bi horietakoren bat, bere kabuz antolatzen badira, ekoizpenean partehartzeko helburuarekin edo ondasunak edo zerbitzuak banatzeko helburuarekin.

4.2.- Zergapetutako jardueren edukia, zergaren Tarifetan zehazten da.

4.3.- Zergapetutako jarduerak egiten direla, zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliiz, probatuko da, eta bereziki, Merkatal Kodearen 3. artikuluan azaltzen direnen bidez.

III.- ZERGAPETU GABE

5. Artikulua. Zerga honen barnean ez da zergapeko egitate gisa hartuko, hurrengo jarduerak egitea:

- 1.- Enpresen aktibo finkoan barne sartutako ondasunen besterenganatzea, horiek ibilgetu gisa behar den bezala inbentariatuak egon badira, besterenganatutako dataren aurretik, bi urte baino gehiagoan, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatukoak diren ondasunen salmenta, baldin eta epealdi berean erabiliak izan badira.
- 2.- Lan pertsonal edo zerbitzu profesionalen ordainetan jasotzen diren produktuen salmenta.
- 3.- Establezimendua apaindu edo edertzeko helburu soilez artikuluak jendaurreko jartzea. Aitzitik, zergapeko egitatea izango da, bezeroentzako erregaliak jendaurreko jartzea.
- 4.- Txikizkako salmenta denean, baldin eta egintza bakarra edo ekintza isolatua egiten bada.

IV. SALBUESPENAK.

6. Artikulua.-

6.1.- Zerga ordaintzetik salbuetsirik egongo dira:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta Toki-Entitateak, hala nola, izaera administratiboa duten Erakunde Autonomoak.
- b) Subjektu pasiboak, baldin eta horiei aplikagarri bazaie salbuespena, Nazioarteko Itun edo Hitzarmenen arabera.
- c) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileak eta, indarrean dagoen legerian aurrikusi bezala eratuta dauden, Mutualitate eta Montepioak.
- d) Ikerketako erakunde publikoak eta gradu guztietako ikastetxeak, horiek Estatuaren, Euskadiko Komunitate Autonomoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren edo Toki Entitateen fondoekin ordaintzen direnean osorik, edo onura publikokoak deklaratuak izan diren Fundazioen fondoekin ordainduak, eta irakaskuntzako establezimenduak, bere maila guztietan, zeinek, irabazi asmorik gabeak izanik, hezkuntza kontzertu erregimenean leudekeenak, horietan ikasleei, liburuak edo idazmahaiko materiala eskaini, edo mantenu erdi eta barnetegi zerbitzua eskaintzen bazaie ere, nahiz eta salbuespen gisa, establezimendu berean saldu, heziketa horretara dedikatutako tailerretan egindako produktuak, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, inongo pertsona partikular edo hirugarren baten probetxurik gabe, lehengaiak eroatera edo establezimendua mantentzera soilik bideratzen bada.
- e) Minusbaliatu fisiko, psikiko eta sentsozialen Elkartea eta Fundazioak, irabazpide asmorik gabekoak direnean, minusbaliatuen hezkuntzarako, heziketarako, birgaitzeko eta babesteko helburuz izaera pedagogiko, zientifiko, asistentzial eta enpleguazkoak diren jarduerak egiten dituztenean, nahiz eta helburu horretarako dauzkaten tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, inongo pertsona partikular edo hirugarren baten probetxurik

gabe, lehengaiak erostera edo establezimendua mantentzera soilik bideratzen bada.

- f) Gurutze Gorria eta, Lurralde Historikoko xedapenen erabakiz, entitate asimilagarriak diren besteak.
- g) Beren jarduerari hasiera eman dioten subjektu pasiboak, hain zuzen, zerga honi dagokion bi lehen zerga-alditan, zeinetan jarduerari eutsiko dioten.

Ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko, ekitaldiari hasiera eman zaionik, hurrengo kasu hauetan:

1. Hori aurretik, beste titularitate baten azpian garatu denean, eta inguruabar hori gertatu dela joko da, beste zenbait kasuren artean, jardueri dagokien bat egitea, zatitzea edo jarduera horren adar desberdinen ekarpena gertatu den kasuetan.

2. Subjektu pasiboak, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua arabera, sozietate talde bateko parte denean, taldea osatzen duten ezein enpresak aurretik garatu gabeko jarduera berri bat ez bada behintzat.

3. Jarduera bera garatu duten enpresen parte hartzea 100eko 25ean baino gehiagokoa denean.

Aurreko puntuetan erabakitakoaren ondorioetarako, jarduera bera garatzen dela ulertuko da Zergaren Tarifen barruan, talde berean sailkatuta dagoenean hori.

2003ko urtarrilaren 1tik geroztik hasitako jardueri bakarrik aplikatu zaie salbuespen hau.

- h) 2.000.000 eurotik azpiko eragiketen zenbatekoa duten subjektu pasiboak.

Eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, 6/1989 Foru Arauaren 5. Artikulua, 5.1. atala, h) letra, hirugarren paragrafoan ezarritako arauak euki beharko dira kontuan, horrek arautzen baitu Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga, hori 7/2003 F.A. bidez aldatu zen, Toki zergen erregimena aldatzen duena.

Egoiliar izan gabe, Errenta gaineko zergaren ondoriozko zergadunei gagozkion bezainbatean, salbuespenak, establezimendu iraunkorraren bidez lanegiten dutenak bakarrik, hartuko ditu barne, eta beti ere, baldin eta 2.000.000 eurotik aspiko eragiketen zenbatekoa badute.

Edozein modutara, salbuespen hori aplikatu ahal izateko, subjektu pasiboak beharrezkoa izango du, hurrengo enpresek 100eko 25a baino parte-hartze handiagorik ez izatea ez zuzenean, ez zeharka, hain zuzen, letra honetan aurrikusitako eragiketen zenbatekoa betetzen ez duten enpresek, enpresa horiek ez badira behintzat, arrisku-kapitaleko funtsak edo sozietateak edo enpresa-sustapenerako sozietateak, horrela aipatzen baita, ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, Sozietateen Zergari dagokionean, eta parte-hartzea, azken horien gizarte-helburua betetzearen ondoriozkoa denean.

6.2.- Aurreko 1. ataleko d) eta e) letretan erregulatutako etekinek izaera erregutua izango dute, eta egoki denean emango dira, alderdi batek horrela eskatutakoan.

6.3.- Subjektu pasiboek, aurreko 1. ataleko a), b), c) eta f) letretan aipatutakoek, ez dute altaren deklarazioa aurkezteko obligaziorik, zergaren matrikulan.

6.4.- Aurreko 1. ataleko h) letran aurrikusitako salbuespena aplikatu ahal izateko, apirilaren 11ko 1346/2003 Foru Arauean adierazten da, ezen J.E.Z.-ari dagokion subjektu pasiboek, zein ingurumarietan aurkeztu behar duten, eragiketen zenbatekoari buruzko adierazpena, eta horretarako, 848 eredu onetsi zuen.

6.5.- Aurreko 1. ataleko h) letran aurrikusitako salbuespenari eragin lezaioketen aldaketak diren bezainbatean, Foru Arauaren 13. artikuluko 2. ataleko hirugarren paragrafoan aurrikusitakoa hartuko da kontuan, horren bidez subjektu pasiboek, hain zuzen, aurreko 1. Ataleko h) letran aurrikusitako salbuespena aplikagarri ez zaienean, Foru Aldundiari adierazi beharko diote eragiketen zenbatekoa, eta baita, eragiketen zenbatekoan eman litezkeen aldaketen berri ere eman beharko diote, baldin eta aldaketa horrek ordenantza honetako 6. artikuluko 1 ataleko h) letran aurrikusitako salbuespenaren aplikagarritasuna aldatzea balekar, edo baldin eta, ordenantza honetako 9. artikuluan aurrikusitako haztapen-koefizientea aplikatzearen ondorioz, kontuan hartu beharreko tartearen aldaketa balekar, lehen aipatutako 848 ereduaren bidez.

V.- SUBJEKTU PASIBOAK.

7. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan agertzen diren Entitateak, baldin eta zergapeko egitatea sortzen duen edozein jarduera, udalerrian, garatzen badute.

VI. ZERGAREN KUOTA.

8. Artikulua.- Zergaren kuota honako hau izango da, hots, Zergaren Tarifetetako gutxienezko kuotak aplikatzetik ondorioztatzen dena, eta bere kasuan, ondoren zehazten diren koefizienteak, indizea eta hobariak, eta Foru Gainkargua.

9. Artikulua.- Tarifetan zehaztutako gutxienezko udal kuotak areagotu egiten dira I. Eranskinean adierazten den haztapen-koefizientearen, eta hori subjektu pasiboaren eragiketa-zenbatekoaren pentzutan zehaztuko da.

10. Artikulua.- Aurreko artikuluan araututako haztapen-koefizientea aplikatzearen ondorioz areagotuko diren kuotak, II. Eranskinean adierazten den koefizientearen areagotuko dira, eta bat eta bakarra da, udalerrian garatzen diren jarduera guztietarako.

11. Artikulua.- Lokalen edo establezimenduen kokagune fisikoa haztatzeko helburuz, non zerga horrek zergapetzen dituen jarduerak egikaritzen diren, Ordenantza honetako 10. artikuluan arabera areagotutako kuota horiei, III. Eranskinean adierazten diren eskalako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoriaren arabera.

12. Artikulua.-

12.1.- Indizeen eskala aplikatzeko aurrakusi diren ondoriotarako, bide publikoak II. Eranskinean aipatzen diren kategorietan sailkatzen dira.

12.2.- Eskalan seinaltatu gabe dauden bide publikoak azken kategorikoak bezala hartuko dira, eta horrela sailkatuak geratuko dira, Udalbatzak dagokion kategorian onetsi lezakeenean ere, harik eta erabaki hori hartu zenetik, hurrengo urteko urtarrilaren 1a iritsi arte.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA.

13. Artikulua.-

13.1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, salbu eta alta deklarazioa denean, kasu horretan jarduerari hasiera eman zaion datatik urte naturalaren amaiera arte kontatuko baita, eta horrek ez dio kalterik eragingo artikulu honetako 3 atalean xedatutakoari.

13.2.- Zerga-zorra zergaldiko lehenengo egunean sortzen da, eta kuotak ezingo dira inolaz ere txikiagotu, ez bada gertatzen behintzat, jarduera hasitako eguna ez datorrela bat alta aitortuako egunarekin, kasu horretan kuotak, urtea amaitzeko fata diren hiruhilabete kopuruaren arabera, kalkulatuak dira, eta horren barnean sartuko da jarduerari hasiera emandako hiruhilabetea.

13.3.- Baja deklaratzeko den kasuetan, kuotak proportzionalki kalkulatuak dira, hain zuzen, bajaren eguna arte igaro diren hiruhilabete kopuruaren arabera, eta barne sartuko da zergapetutako jarduera etetzen den hiruhilabetea ere, salbu eta hori bat datorrenean alta aurkeztutako ekitaldi-urtearekin, zeinetan, bajak indarra, hurrengo urteko lehen egunetik, hartuko duen.

13.4.- Ikuskizunak diren kasuan, kuotak emanaldi isolatuengatik ezartzen direnean, sortzapena horietako bakoitza egiteagatik gertatzen da, eta horretarako, horiei dagozkien deklarazioak aurkeztu behar dira.

IX. ZERGAREN KUDEAKETA.

14. Artikulua.-

14.1.- Zergaren kudeaketa, horren Matrikulatik abiatuta, egingo da. Aipatu Matrikula urtero osatuko da, eta hor barne sartuko dira jarduera ekonomikoen, subjektu pasiboen, zergadun zorren, eta bere kasuan, foru gainkarguen erroldak. Matrikulak jendearen esku egongo dira.

14.2.- Subjektu pasiboek altari dagokion zentsu-deklarazio egokiak aurkezteko obligazioa dute, eta matrikulan barne sartzeko helburuz, beharrezko liratekeen elementu guztiak adierazi behar dituzte, aurreko atalean adierazitakoari jarraiki, eta legez ezarriko den epearen barruan. Ondoren, Administrazio eskudunak dagokion likidazioa egin, eta subjektu pasiboari, horri buruzko jakinarazpena egingo dio, eta horrek legokion diru-sarrera egin beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek jakinarazi egin beharko dituzte, zergapetutako jardueren egikieran gertatu diren aldaketak, hain zuzen, bai arlo fisikoan, bai ekonomikoan bai juridikoan gertatutakoak, baldin eta zerga honen ondorioetarako eraginik balu, eta jakinaraztekoan, legez ezarritako epe eta moduan egingo du.

14.3.- Erroldetan dauden datuak barne sartzea, alde batera uztea edo aldatzea, horiek zerga-ikuskatzailetzaren edo alta eta jakinarazpenak formalizatzearen jardueretatik gertatzen baldin badira, egintza administratiboak direla ulertuko da, eta horretarako erroldaren aldaketa egin beharko da. Matrikularen edozein aldaketa egiteko, aldaketa hori erroldan dauden datuei buruzkoa bada, derrigorrez, aurretik errolda horiek aldatu beharko dira.

14.4.- Zerga hau autolikidazio erregimenean galdatu ahal izango da.

15. Artikulua.-

15.1.- Hurrengo ahalmenak, hots, ordainarazpen, kudeaketa, likidazio, ikuskaritza eta zerga-bilketari buruzkoak, bai borondatezko epean, bai premiamendu bidean, Udal Administrazioari dagozkio.

15.2.- Bereziki, Udal honi dagozkion zereginak dira, matrikula jendaurreko jartzea, kobratu beharreko ordainagiriak egitea, helegite eta erreklamazioei ebazpena ematea, zergak kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zergadunari informazioa eta laguntza emateko jarduera burutzea, baldin eta dagokion Zerga horren gaiari buruzkoak badira.

15.3.- Udalak eta Foru-Aldundiak Zergaren Matrikula osatu eta zaintzeko lanetan elkarri laguntza emango diote, hala nola jarduera ekonomikoen kalifikazioan eta dagozkion kuoten zehaztapenean.

15.4.- Hobariak eman eta ukatu aurretik, edozein kasutan, Foru Aldundiak egingo duen txosten teknikoa beharrezkoa izango da, eta ondoren hartutako erabakiaren berri udal honi emango dio.

15.5.- Artikulu honetako 1. zenbakian erabakitakoaz gain, Foru Aldundiaren esku egongo dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienez.

16. Artikulua.- Zerga hau kudeatzeko, likidatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ahalmenak Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango dira, hori Udalbatzak erabakiko duen terminoen eduki eta zabaleran egingo da, eta bestalde horretarako, dagokion hitzarmena izenpetuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza horri behin-betiko onespina eman zitzaien, eta indarrean sartuko da 2007ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.”

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

I. ERANSKINA

ERAGIKETEN ZENBATEKOA	HAZTAPEN KOEFIZIENTEA
2M.-TIK 6M. ARTE	1,20
6,01 M.-TIK 10 M. ARTE	1,22
10,01 M.-TIK 50 M. ARTE	1,24
50,01 M.-TIK 100 M. ARTE	1,27
100 M.-TIK GORA	1,30
ERAGIKETEN ZENBATEKO GABE	1,25

II. ERANSKINA

GEHIKUNTZA KOEFIZIENTEA	2,20
-------------------------	------

III. ERANSKINA

BIDE PUBLIKOEN SAILKAPENA

LEHEN KATEGORIA.- INDIZEA: 1,77

KALEAREN IZENA	ZENBAKIAK
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	27-33
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	36-46
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	39-71
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	48-72
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	Z/G
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	2-22
ANTONIO TRUEBA KL	2-4
ANTONIO TRUEBA KL	1-5
ARABA KL	3
ARABA KL	2-4
AXULAR KL	1
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	13-19
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	14-18
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	20-30
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	1-7
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	9-11
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	2-12
BEGOÑAKO ANDRA MARI. KL	13-21
BEGOÑAKO ANDRA MARI. KL	10-18
CLEMENTE BELTRAN HEREDIA. KL	2-14
GALIZIA KL	1-3
GALIZIA KL	2-4
IBARRETA AUZOTEGIA. AU	1 (MERCABILBAO)
JUAN XXIII. KL	1-3
JUAN XXIII. KL	2-12
KAREAGA GOIKOA. KL	107-113
KAREAGA GOIKOA. KL	85-103

KAREAGA GOIKOA. KL	105
KAREAGA GOIKOA. KL	30-32-34
KAREAGA GOIKOA. KL	40-42-50
KAREAGA GOIKOA. KL	ORUBEAK (2-4-13-15-17)
KARMELO TORRE. KL	1
KARMELO TORRE. KL	2
LAPURDI. KL	2-6
LAPURDI. KL	1-9
MENENDEZ Y PELAIO. KL	2
MENENDEZ Y PELAIO. KL	1-7
NAFARROA KL	1-7
NAFARROA KL	8-16
KALE NAGUSIA KL	1
KALE NAGUSIA KL	13-17
KALE NAGUSIA KL	26-28
KALE NAGUSIA KL	Z/G
KALE NAGUSIA KL	(2-4) EL SOCIAL ETA EGOITZA
KALE NAGUSIA KL	6-8
KALE NAGUSIA KL	10-16
KALE NAGUSIA KL	3-11
RESURRECCION M. DE AZKUE KL	1-3
SOLOBARRIA PLAZA PL	1-2
SOLOBARRIA PLAZA PL	3-4-5
ZABALANDI AUZOTEGIA AU (BILBONDO)	Z/G

BIGARREN KATEGORIA.- INDIZEA: 1,65

KALEAREN IZENA	ZENBAKIAK
ABAROA. KL	(1-13)
ABAROA. KL	(2-6)
ABAROETA	2-10
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	(24-34)
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	(73-91)
AGIRRE LEHENDAKARIA. ETORBIDEA	(74-80)
ALDATZA KL	2
ANTONIO FERNANDEZ. KL	(1-19)
ANTONIO TRUEBA KL	(7-13)
ANTONIO TRUEBA KL	(6-8)
ARABAREN PT	(2-4)
ARABAREN PT	(1-5)
ARAGOI. KL	(5)
ARAGOI. KL	(1-3)
ARAGOI. KL	(4-6-8)
ARAZTOI KL	1-5
ARAZTOI KL	2-4-6
ARIZ TORREA. AU	(2-8)
ARIZ TORREA. AU	(1-9)
ARIZGOITIKO PLAZA. PL	2-ORUBEA
ARIZGOITIKO PLAZA. PL	(3-4-5)
ARIZGOITIKO PLAZA. PL	(6-7-8-9-10-11)

ARRATIA IBARRA. KL	(2)
ARRATIA IBARRA. KL	(1-3)
ARTEAGA. KL	Z/G
ARTEAGA. KL	(5-33)
ARTEAGA. KL	(2-18)
ARTEAGA. KL	(4-6-8-9-11-13) ORUBEAK
ARTEAGOITI KALEA (PO/ARTEAGOITI)	ZENBAKI GUZTIAK
ARTEAGOITI. AU	ZENBAKI GUZTIAK
ARTUNDUAGA AUZOTEGIA. AU	ZENBAKI GUZTIAK
ARTUNDUAGA (PO/ARTUNDUAGA) ^o	ZENBAKI GUZTIAK
AUTONOMIA. KL	(14-16-18)
AUTONOMIA. KL	(2-4)
AUTONOMIA. KL	(1-7)
AUTONOMIA. KL	(6-12)
CERVANTES ETORBIDEA. ETORBIDEA	ZENBAKI GUZTIAK
AZBARREN AUZOTEGIA. AU	ZENBAKI GUZTIAK
AZBARREN KL	2-4
AZBARREN KL	1-5
AZGANETA (PO/ ARTUNDUAGA)	ZENBAKI GUZTIAK
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	(21-25)
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	(32-38)
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	40-42
BALENDIN BERRIOTXOA. KL	Z/G
BASAETXE KL	1-7
BASAURI. KL	(1-13)
BASAURI. KL	(2-16)
BASKONIA ZUBIA	Z/G
BASKONIA ZUBIA	2-4
BASTEGI. KL (PO/ARTUNDUAGA)	ZENBAKI GUZTIAK
BEGOÑAKO ANDRA MARI. KL	(2-8)
BEGOÑAKO ANDRA MARI. KL	(1-11)
BENTAKO PLAZA. PL	(1)
BENTAKO PLAZA. PL	(2-4)
BEREZI NAGUSIA KL (PO/ARTEAGOITI)	ZENBAKI GUZTIAK
BEREZIONDO KL (PO/ARTEAGOITI)	ZENBAKI GUZTIAK
BINGEN ANTON FERRERO. KL	(1-3-5-7)
BINGEN ANTON FERRERO. KL	Z/G
BINGEN ANTON FERRERO. KL	(2-20)
CATALUNYA. KL	(22-52)
CATALUNYA. KL	(1-27)
CATALUNYA. KL	(2-20)
CLEMENTE BELTRAN HEREDIA. KL	(1-11)
FLEMING DOKTOREA. KL	(8)
FLEMING DOKTOREA. KL	(7-13)
JOSE GARAI DOKTOREA. KL	(13-19)
JOSE GARAI DOKTOREA. KL	(1-7)
JOSE GARAI DOKTOREA. KL	(2-8)
JOSE GARAI DOKTOREA. KL	(10-26)
JOSE GARAI DOKTOREA. KL	(9-11)
ELEUTERIO VILLAYERDE. ETORBIDEA	Z/G
ELEUTERIO VILLAYERDE. ETORBIDEA	(2-26)

ELIZONDO. KL	Z/G
ELKANO. KL	Z/G
ELKANO. KL	(1-3)
ERREKA BAZTERRAK. (PO/ARTUNDUAGA)	KL ZENBAKI GUZTIAK
ETXE AURREKO. KL (PO/ARTUNDUAGA)	ZENBAKI GUZTIAK
ETXERRE (SEKTOREA). KL	ZENBAKI GUZTIAK
ETXERRE (SEKTOREA). KL	(3-17)
ETXERRE KAMINOA. KL	(1)
ETXERRE KAMINOA. KL	(20-36)
ETXERRE KAMINOA. KL	(2-8)
FERNANDO BARKIN. KL	(2)
FERNANDO BARKIN. KL	(1-7)
FRANTZISKO KORTABARRIA. KL	(2-6)
GALIZIA KL	(5-11)
GARBILEKU. KL	
GARBILEKU. KL	(1-5)
GAZTELA. KL	(13-15)
GAZTELA. KL	(18-34)
GAZTELA. KL	(1-7)
GAZTELA. KL	(2-8)
GAZTELA. KL	10-16
GAZTELA. KL	9-11
GERNIKA. KL	(51-53)
GERNIKA. KL	(2-32)
GOIKOSOLOA. KL	(1)
GOIKOSOLOA. KL	(2-10)
GOIRIALDE KL (PO/ARTUNDUAGA)	ZENBAKI GUZTIAK
GUDARIEN ETORBIDEA	(15-17-19)
GUDARIEN ETORBIDEA	16-18
GUDARIEN ETORBIDEA	Z/G
GUDARIEN ETORBIDEA	(2-14)
GUDARIEN ETORBIDEA	(1-3-5-9-11-13) ORUBEAK
HEGO KL	(1)
HEGO KL	(2)
HERNAN CORTES PLAZA PL	ACC. 1-2
IBAIGANE KL	Z/G
IBAIGANE KL	(8-10)
IBARRA KL	2-8
IPARRAGIRRE KL	(1)
ITURRIGORRI. AU	ZENBAKI GUZTIAK
JAGA KL	1
JAGA KL	2-4
KAREAGA GOIKOA. KL	(19-21-27-29)
KAREAGA GOIKOA. KL	(51-83)
KAREAGA GOIKOA. KL	(16-28)
KAREAGA GOIKOA. KL	(52)
KAREAGA GOIKOA. KL	16-AREN AURRETIK
KARMELO TORRE. KL	(3-15)
KEBRANTEBARRI KL	Z/G
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	(2-14)

LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	(1-9)
LAPATZA KL	2-6
LAPATZA KL	1-7
LARRAZABAL. KL	(2)
LARRAZABAL. KL	1
LARRAZABAL. KL	(3-19)
LARRAZABAL. KL	(4-14)
LEON KL	(1-17)
LEON KL	(2-4)
MADRIL KL	(5)
MADRIL KL	(1-3)
MADRIL KL	(2-4)
MADRIL KL	(6-10)
MATXITXAKO KL	(1-7)
MATXITXAKO KL	(9-13)
MENENDEZ Y PELAIO. KL	(15-19)
MENENDEZ Y PELAIO. KL	(4)
MENENDEZ Y PELAIO. KL	6
MENENDEZ Y PELAIO. KL	(9-13)
MENENDEZ Y PELAIOREN PT	(2)
MINAKO BIDEA CL (POLIG. ARTEAGOITI)	Z/G
MOJAPARTE KL	(1-13)
MOJAPARTE KL	(2-6)
NAFARROA KL	(18)
NAFARROA KL	Z/G
NAFARROA KL	(2-6)
NAFARROA KL	(9-15)
KALE NAGUSIA KL	(19)
KALE NAGUSIA KL	(20)
KALE NAGUSIA KL	(21) ANBULATORIOA
KALE NAGUSIA KL	(23-63)
KALE NAGUSIA KL	(30-38)
KALE NAGUSIA KL	(40-70)
NERBIOI KL	(2) IKASTETXEA
NERBIOI KL	(1-5)
OLETA KL	Z/G
OLETA KL	(1-5)
PAGASARRI KL	(1-3)
PEDRO BILBAO KL	(2)
PEDRO BILBAO KL	(1-5)
PEDRO LOPEZ KORTAZAR PL	(1-7)
COSIMET POLIGONOA PL.	(10-12-14-16-18-20-22-24-26)
COSIMET POLIGONOA PL.	(1-3-5-7-9-11-13-15-17)
COSIMET POLIGONOA PL.	(28-30-32-34-36-38-40-42-44)
COSIMET POLIGONOA PL.	(46-48-50-52-54-56-58-60-62)
COSIMET POLIGONOA PL.	(64-66-68-70-72)
COSIMET POLIGONOA PL.	ORUBEAK 2-4-6-8
POZOKOETXE KL	(16-18)
POZOKOETXE KL	(2-14)
POZOKOETXE KL	(1-11)
PRESAGANA CL (POLIG. ARTUNDUAGA)	ZENBAKI GUZTIAK

RAMON Y KAREAGA KL	2-4
RAMON Y KAREAGA KL	5-7-9) ORUBEAK
RAMON Y KAREAGA KL	(1-3-11-13-15)
SAGARDUI KL	(1-3)
SAGARDUI KL	(2-4)
SAN BIATOR KL	(2)
SAN BIATOR KL	(3)
SAN FAUSTO PLAZA PL	Z/G
SAN FAUSTO PLAZA PL	Z/G
SOLOKOETXE KL	(1-7)
SOLOKOETXE KL	(2-8)
URBI ETORBIDEA	(13-15)
URBI ETORBIDEA	(47-49)
URBI ETORBIDEA	(51-57)
URBI ETORBIDEA	IKASTETXEAK
URBI ETORBIDEA	(2-4)
URBI ETORBIDEA	(1-9)
URBIREN PT	(5-9-11-13-17-19)
URBIREN PT	6-7-8-10-12-14-16-18 ORUBEAK
URBIREN PT	(1-3-3BIS)
URBIREN PT	(2-4)
URIBARRI (B SEKTOREA) KL	
URIBARRI (B SEKTOREA) KL	
URIBARRI (B SEKTOREA) KL	(2-6)
URKIZA KL (POLIGONO ARTUNDUAGA)	ZENBAKI GUZTIAK
USAUSUAGA KL (PO/ARTUNDUAGA)	ZENBAKI GUZTIAK
VEGA DE UGARTE	
VEGA DE UGARTE	Z/G
ZUMALAKARREGI JENERALA KL	(1-5)

HIRUGARREN KATEGORIA.- INDIZEA: 1,51

KALEAREN IZENA	ZENBAKIAK
AGIRRE LEHENDAKARIA.	(82-92)
ETORBIDEA	
AGIRRE LEHENDAKARIA.	(93-99)
ETORBIDEA	
AGIRRE LEHENDAKARIA.	(1-25)
ETORBIDEA	
ALFREDO ADRIAN ETORBIDEA	(1-3)
ALTUBE KL	(1-5)
ALTUBE KL	(2-8)
ANDALUCIA KL	(2-28)
ANDALUCIA KL	(1-3)
ANDALUCIA KL	(5-7)
ASTURIAS KL	(2-26)
ASTURIAS KL	(1-7)
ATXIKORRE AUZOTEGIA AU	

AXULAR KL	(17-21)
AXULAR KL	(23-27)
AXULAR KL	(24-42)
AXULAR KL	31-35
AXULAR KL	44
AXULAR KL	Z/G
AXULAR KL	PLAZA (7-15)
AXULAR KL	(2-10)
AXULAR KL	(12-22)
BALENDIN ENBEITA KL	(1-7)
BALENDIN ENBEITA KL	(2-8)
BASKONIA KL	(1-15)
BASKONIA KL	(2-16)
BASOZELAI KL	(13-61)
BASOZELAI KL	(18-68)
BASOZELAI KL	(2-14)
BASOZELAI KL	(3-11)
BEÑAT ETXEPARE KL	(2-8)
TXIRRITA BERTSOLARIA KL	Z/G
TXIRRITA BERTSOLARIA KL	(1-7)
BIDASOA IBAIA KL	(1-5) ORUBEAK
BIDASOA IBAIA KL	(3-11)
BIDASOA IBAIA KL	(2-12)
BIDEARTE ETORBIDEA	(2)
BIDEARTE ETORBIDEA	Z/G
BIDEARTE ETORBIDEA	(1-7)
BIDEARTE ETORBIDEA	(13-15) 11-15
BIZKARGI MENDI KL	(1-5)
BIZKARGI MENDI KL	(2-8)
BIZKOTXALDE PARKEA PA	
BIZKOTXALDE KL	(1)
BIZKOTXALDE KL	(26-30)
BIZKOTXALDE KL	(2-4-6-8-10)
BRISKETA AUZOTEGIA. AU	(1)
BUTROE IBAIA KL	(1-5)
CASTILNOVO PLAZA PL	(1)
DEBARROA KL	(1)
DEBARROA KL	(2-4)
FLEMING DOKTOREA. KL	(1-5)
FLEMING DOKTOREA. KL	(2-6)
ELEXALDE AUZOTEGIA AU	(4-6-8)
ERREKALDE AUZOTEGIA AU	(2)
ERREKALDE AUZOTEGIA AU	(1-3)
ERRIOXA KL	(2)
ERRONKARI IBARRA KL	ACC. 2
ERRONKARI IBARRA KL	(6-8-10)
ETXAUN KL	(1)
ETXAUN KL	(2-6)
EXTREMADURA KL	2
EXTREMADURA KL	(4-6)
FAUSTE KL	(2-14)
FAUSTE KL	(1-9)

FAUSTE KL	(11-13)
FAUSTE KL	(16-22)
FINAGA AUZOTEGIA AU	(1-3-5-7-9)
FINAGA AUZOTEGIA AU	(2-4-6-8-10)
FLORIAN TOLOSA KL	(1)
FLORIAN TOLOSA KL	(4-6)
FORUAK KL	(2)
FORUAK KL	8
FORUAK KL	Z/G
FORUAK KL	(4-6) ORUBEAK
FRANTZISKO PEREA KL	Z/G
FRANTZISKO PEREA KL	(2-6)
GANGUREN MENDI KL	(2)
GANGUREN MENDI KL	(1-3)
GERNIKA. KL	(40-46)
GERNIKA. KL	(52-60)
GERNIKA. KL	55-59
GERNIKA. KL	Z/G
GERNIKA. KL	(1-43)
GERO KL	(1-3)
GIPUZKOA KL	(13-15)
GIPUZKOA KL	(16-34)
GIPUZKOA KL	(17-23)
GIPUZKOA KL	(2-14)
GIPUZKOA KL	(1-11)
GOIRI AUZOTEGIA AU	
GOIRI AUZOTEGIA AU	(2-4-6)
GOIRI AUZOTEGIA AU	(1-3-5-7)
GORBEIA MENDI KL	(1-3)
IBAIGANE KL	(2-6)
IBAIGANE KL	(1-9)
IBAIZABAL KL	ACC. 1-3-5
IBARGUEN KL	(1-3)
IBARGUEN KL	(2-8)
IPARRAGIRRE KL	(3-9)
IPARRAGIRRE KL	(2-12)
IRATI IBAIA KL	(1-5)
IRUARETXETA PARKEA PA	
IRUARETXETA AU	(2-4)
IRUARETXETA AU	(1-3-5-7)
JAZINTO BENABENTE KL	(2-12)
JAZINTO BENABENTE KL	(1-5)
JOANA MADARIAGA KL	Z/G
JON EGIGUREN KL	Z/G
JOSE ETXEGARAI KL	(3-5)
JOSE ETXEGARAI KL	(2-10)
JUAN IBARGUTXI KL	(1-3)
JUAN IBARGUTXI KL	(2-6)
JUAN IBARGUTXI KL	(5-7)
JUAN IBARGUTXI KL	(8-10)
JUAN RAMON JIMENEZ KL	(18)
JUAN RAMON JIMENEZ KL	(19)

JUAN RAMON JIMENEZ KL	ORUBEAK 7
JUAN RAMON JIMENEZ KL	ORUBEAK 1
JUAN RAMON JIMENEZ KL	(11-17)
JUAN RAMON JIMENEZ KL	(2-12)
JUAN RAMON JIMENEZ KL	(3-5-9)
KADAGUA IBAIA KL	(1-5)
KANDA LANDABURU MU	(1-3-5-7-9-11-13-15-17-19-21)
	(2-4-6-8-10-12-14-16-18-20)
KANDA LANDABURU MU	(2-4-6-8-10-12-14-16-18-20)
KANTABRIA KL	(3-5)
KANTABRIA KL	ACC. 1-2-4
KAREAGA BEHEKOA KL	(13-15)
KAREAGA BEHEKOA KL	(24-26)
KAREAGA BEHEKOA KL	(28)
KAREAGA BEHEKOA KL	Z/G
KAREAGA BEHEKOA KL	Z/G
KAREAGA BEHEKOA KL	(2-4)
KAREAGA BEHEKOA KL	(1-5)
KAREAGA BEHEKOA KL	(6-22)
KAREAGA GOIKOA. KL	(36-38)
KAREAGA GOIKOA. KL	(23-25)
KAREAGA GOIKOA. KL	(6)
KAREAGA GOIKOA. KL	(115-143)
KAREAGA GOIKOA. KL	(1-11)
KARMELO TORRE. KL	(17-23)
KARMELO TORRE. KL	(25-33)
KARMELO TORRE. KL	(4-22)
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	(18-26)
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	(52)
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	(58-60)
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	28-32
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	34-46
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	39-51
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	55-63
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	FUTBOL ZELAIA
LANDA DOKTOREEN ETORBIDEA	(11-37)
LANGILEAREN KL	(2-4)
LAPATZA AUZOTEGIA AU	(1-3)
LAPATZA AUZOTEGIA AU	(2-8)
LEON KL	23-27
LEON KL	10-24
LUIS PETRALANDA KL	(1-3)
LUIS PETRALANDA KL	(5-7)
LUIS PETRALANDA KL	(2-8)
LUZARRE AUZOTEGIA AU	(1-3-5)
LUZARRE AUZOTEGIA AU	(2-4-6-8)
MANUELA EGIGUREN KL	(1-3)
MARCELINO GONZALEZ KL	(1-41)
MARCELINO GONZALEZ KL	(2-8)
MONTEFUERTE PARKEA PA	
MUGARRA MENDI KL	(1-3)

NEKAZARIEN PLAZA PL	(1)
NEKAZARIEN PLAZA PL	(2-4)
NEKAZARIEN PLAZA PL	(3-5)
ORIA IBAIA KL	(1-5)
PAGOBIETA AUZOTEGIA AU	(1)
ASTURIASKO PARTIKULARRA PT	(2)
ASTURIASKO PARTIKULARRA PT	ORUBEAK 6
ASTURIASKO PARTIKULARRA PT	(4-8)
ASTURIASKO PARTIKULARRA PT	(1-11)
PERU ABARKA KL	(1-3)
PERU ABARKA KL	(2-4)
ZULOAGA PINTOREA KL	(4)
ZULOAGA PINTOREA KL	Z/G
PIRU GAINZA KL	(2-6)
PIRU GAINZA KL	(1-7)
PIRU GAINZA KL	(9-11)
RAMON Y KAJAL KL	(2)
RAMON Y KAJAL KL	(4) ORUBEA
RAMON Y KAJAL KL	(1-3)
RAMON Y KAJAL KL	(5-13)
URIBARRIKO INGURABIDEA	
SAIBI MENDI KL	(2-4)
SALAMANCA KL	(1)
SALAMANCA KL	(2-6)
SANTIAGO KL	(1-3)
SANTIAGO KL	(2-6)
SARRATU AUZOTEGIA AU	(22-24-26-28-30)
SARRATU AUZOTEGIA AU	(2-4-6-8-10-12-14-16-18-20)
SARRATU AUZOTEGIA AU	(1-3-5)
SEBERO OTXOA KL	(1)
SEBERO OTXOA KL	(2-4-6)
SEBERO OTXOA KL	(3-5-7-9)
SEGOVIA KL	(1)
SEGOVIA KL	(2-8)
SOLOARTE KL	ACC. 2
SOLOARTE KL	(1-3)
SOLOARTE KL	ACC. 4-6
TEILERIA KL	(1-15)
TEILERIA KL	(2-8)
TIBURTZIO BERGARETXE MU	(1-3-5-7-9-11-13-15-17-19-21)
TIBURTZIO BERGARETXE MU	(2-4-6-8-10-12-14-16-18-20)
TIBURTZIO BERGARETXE MU	(2-4-6-8-10-12-14-16-18-20)
TRENBIDE ETORBIDEA	(1-3)
TRENBIDE ETORBIDEA	(2-4)
UDALA MENDI KL	(1-3)
UGARTE KL	(1-13)
UGARTE KL	(2-4)
URBI ETORBIDEA	(11)
URBI ETORBIDEA	(17-45)
URIARTE KL	(1-3-5-7-9-11-13-15-17-19-21)
URIARTE KL	(23-25-27)

URIARTE KL	(2-4-6-8-10-12-14-16-18-20)
URIBARRI, KL	(8-14)
URIBARRI KL	(16-24)
URUMEA IBAIA KL	(1-5)
VALENCIA KL	(1-3)
VALENCIA KL	(2-12)
ZABALANDI AUZOTEGIA AU	(2-4-6-8-10-12-14-16-18-20-22)
ZUBEROA KL	(1)
ZUBEROA KL	(2-4)
ZUBIALDEA AUZOTEGIA AU	(5-7-9-11-15)
ZUBIALDEA AUZOTEGIA AU	(4-6-8-10-14-16)
ZUIA IBARRA KL	(2)
ZUIA IBARRA KL	(1-3)
ZUMALAKARREGI JENERALA KL	(7-17)

HIRUGARREN ORDENANTZA FISKALA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak erregulatzen dituen Foru Arauean eta zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoaren arabera, Ordenantza honi jarraituaz eskatzen du Ondasun Higiezin gaineke Zerga, eta Ordenantza honen zati den Eranskinean agertzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. Artikulua.-

1.- Ordenantza, udal barruti osoan, aplikatuko da.

2.- Baldin eta higiezin bera, udal barruti desberdinetan kokatua, egongo balitz, zerga honen ondorioetarako, udal horietako bakoitzekoa dela ulertuko da, udal barruti bakoitzean okupatzen duen azalera.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.-

1.- Zergapeko egitate sortuko du, ondasun higiezin gainean, bai hiritarren bai landatarren gainean, hurrengo eskubideen titularitatea izateak:

- a) Ondasun higiezin beraren gainean, edo horri atxikita leudekeen zerbitzu publikoen gainean, emakida administratiboa izatea.
- b) Azalerari dagokion eskubide erreala.
- c) Erabilerari dagokion eskubide erreala.
- d) Jabetzari dagokion eskubidea.

2.- Aurreko atalean zehaztu diren eskubideen artetik, egoki litzatekeen zergapeko egitatearen sorrerak erabakiko du, atal horrek ezartzen duen ordenari jarraiki, ondasun higiezina, aurrikusitako beste modalitateetan zergapetu gabe gelditzea.

4. Artikulua.- Hiri-izaerako ondasun higiezinak izango dira:

1.- Urbano edo urbanizagarri sailkatutako lurzorua, ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari dagokion 2/2006 Legean, eta horren garapeneko arautegian aurreikusitakoaren arabera.

Nekazal legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurak ere izaera honetakoak direla ulertuko da, beti ere zatikapen horrek nekazal erabilera hutsaltzen duenean, baina horregatik ez dute beroien landako izaera galtzen beste ondorioetarako, baizik eta bakarrik zerga honen ondorioetarako.

2.- Hiri-izaerako eraikuntzak, eta hurrengo hauek horrela direla ulertuko da:

- a) Eraikin guztiak, edozelakoak direlarik ere eraikitzeke erabili diren osagaiak, edozein izanik ere kokaturik dauden lekua, edozein izanik ere horiek egin diren lurzorua mota eta ematen zaien erabilera, nahiz eta eraikitzeke erari dagokionez guztiz garraiagarriak izan, eta nahiz eta horiek kokatuta leudekeen lursaila, eraikinaren jabearena ez izan, eta baita, horiekin

asimilagarriak diren instalazio industrial edo merkataritzakoak, nola diren dikeak, tangak eta kargatzeko tokiak.

b) Urbanizazioko eta hobekuntzako obrak, hain zuzen, lur-berdinketak bezalakoak eta espazio zabalak erabiltzeko egiten direnak, eta horrela direla ulertzen da azoketara destinatutako barrutiak, estalperik gabeko gordailuak, presak, ur-jauziak eta urtegiak, horien ibilguak barne hartuta, kirola egiteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikinei loturik dauden espazioak.

c) Hurrengo artikuluan, landatar gisa sailkatu gabe leudekeen eraikuntza guztiak.

5. Artikulua.- Landa-lurretako ondasun higiezinak bezala hartuko dira:

1.- Aurreko artikuluko a) letran xedatutakoaren arabera, hiri-izaerako ondasun gisa sailkatu ez diren lursailak.

2.- Landa izaerako eraikuntzak, eta horrela direla ulertuko da, laborantza izaerako eraikin eta instalazioak, baldin eta landa izaerako lursailetan egonik, laborantza, abeltzaintza edo basogintzako hustiaperen garapenerako ezinbestekoak balira.

Ez dira inola ere eraikin gisa hartuko, zerga honen ondorioetarako, laborantza, abeltzaintza edo basogintzako hustiaperetan erabiltzen diren oholtza eta estaluneak, horiek garrantzi txikikoak direnean, hain zuzen ere horien eraikuntzan erabilitako materialen izaera arina eta iraupen gutxikoa izatearren, bakarrik ondorio hauetarako balio badute, hots, lurraren aprobetxamendu handiagoa lortzeko, laboreen babeserako, ganadua denbora batean aterbetzeko jenderik bizi ez den eremutan, edo jarduerarenak diren eta horren zerbitzura eta eraginpean dauden tresna edo lanabesak gordetzeko direnean, ez dira ere zergapeturik egongo eraikin bezala, landa izaerako lursailen barnean egindako obra eta hobekuntzak, horiek lur horien balio banaezinaren zati balira.

III. ZERGAPETU GABEAK

6. Artikulua.- Ez daude zerga honek zergapetuta:

1.- Errepideak, kaminoak, lurreko gainontzeko bideak, eta jabari publikokoak diren ondasun hidrauliko eta lur-itxasokoak, baldin eta horiek aprobetxamendu publikokoak eta doakoak balira.

2.- Hurrengo ondasun higiezinak, horiek zein udalerritan kokatuak leudekeen kontuan hartuta, udal horien jabetzakoak direnak:

1.- Jabari publikokoak izanik, erabilera publikora atxikitakoak.

2.- Jabari publikokoak izanik, Udalak zuzenean gestionatutako zerbitzu publikora atxikitakoak, salbu eta hirugarren bati lagatako higiezinak liratekeenean, kontraprestazio moduan.

3.- Ondarezko ondasunak, hala ere aurrekoan bezala, kontraprestazio moduan, hirugarren bati lagatakoak izan ezik.

IV. SALBUESPENAK

7. Artikulua.-

1.- Hurrengo ondasunek salbuespenak izango dituzte:

- a) Bai Estatuaren, Bai Euskadiko Autonomia Erkidegoaren, bai Bizkaiko Lurralde Historikoaren bai Toki-Administrazioaren jabetzakoak liratekeenak, eta zuzenean defentsara, hiritarren segurtasunera eta, hezkuntza eta kartzela zerbitzuetara atxikita baleude.
- b) Herri-ondasunak eta manu komuneko auzo-mendiak.
- c) Hazkunde moteleko espezieak landaturik dituzten mendiak, horiek titularitate publikokoak nahiz pribatukoak izan.
Salbuespen honek otsailaren 2ko 152/1996 Errege Dekretuaren 1., 2. eta 3. Eranskinetan aipatutako hazkunde moteleko espezieak hartzen ditu barne, horien aprobetxamendu nagusia zura eta kortxoa denean, eta horiek betetzen duten mendi-zatia hartzen dute barne, baldin eta zuhaitzen dentsitatea, espezie horri dagokiona edo espezie horrentzat normala dena, balitz.
Halaber, aurreko paragrafoan sartzen ez diren mendiak, finka horietako zati berrituei dagokionez, baldin eta Gorporazioek, Elkarteek edo partikularrek baso-berritzeak egin badituzte, eta baita Administrazioak basogintzari buruz onetsitako ordenazio-proiektuei edo plan teknikoei lotutako zuhaitzien birsorkuntzarako tarteak direnean. Letra honetan aurrikusitako salbuespenak hamabost urtetako iraupena izango du, eta hori kontatuko da, eskaria egin ondorengo zerga-alditik aurrera.
- d) Eliza Katolikoarenak, Ekonomia Gaiei buruz, Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko itunean aurrikusitako terminoetan, hori 1979ko urtarilaren 3koa da.
- e) Elkarte Konfesional ez katolikoarenak, lege aldetik ezagutuak direnean, eta hain zuzen, izenpetutako lankidetzak-akordio bakoitzean ezarritako terminoetan, horiek Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan aipatzen dira, eta bakoitzari legokion akordioako terminoetan.
- f) Gurutze Gorrikoak eta araubidez zehaztuko diren Erakunde parekagarriak.
- g) Atzerriko Gobernuenak, beren ordezkaritza diplomatiko edo kontsularrentzako edo bere erakunde ofizialentzako dituztenean, baldin eta elkarrekikotasuna balego edo indarrean leudekeen Nazioarteko Hitzarmenen arabera eginez gero.
- h) Indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenen arabera, salbuespena aplikatu lekiekeen Organismo edo Erakundeak direnean.
- i) Trenbideek okupatzen dituzten lursailak eta horietan kokaturik dauden eraikinak, baldin eta geltokira, biltegira edo aipatu bideen hustiapenerako ezinbestekoa den beste zerbitzu batera destinaturik baleude. Ez daude salbuetsita beraz, ostalaritzako establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataltegiak eta aisialdirakoak, enplegatuen etxebizitzara destinatutakoak, Zuzendaritzaren bulegoak eta ezta ere fabriketako instalazioak.

- j) Monumentu izaera luketen ondasun higiezinak, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. ataleko a) letran adierazitakoaren arabera, lege hori Euskal Ondare Kulturalari buruzkoa da. Salbuespen honek bai ondasun kultural kalifikatuak bai inbentariatuak hartzen ditu barne, baldin eta aipatu uztailaren 3ko 7/1990 Legean erabakitako baldintzak betetzen badituzte.

Baita salbuetsiak egongo dira, monumentu-multzo bateko zati diren ondasun higiezinak, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. ataleko a) letran adierazitakoaren arabera, lege hori Euskal Ondare Kulturalari buruzkoa da. Salbuespen honek, bakarrik, hurrengo higiezin kalifikatuak edo inbentariatuak hartuko ditu barne, hain zuzen, aipatu uztailaren 3ko 7/1990 Legean zehaztutako baldintzak betetzeaz gain, babes berezi edo babes ertaineko erregimenean barne sartuta leudekeenak.

Halaber, salbuetsita egongo dira arkeologia eremu baten barruan leudekeen ondasun higiezinak, uztailaren 3ko Euskal Ondare Kulturalari buruzko Legearen 44. artikuluan aipatzen direnak, Ondare Kultural gisa deklaratu izatearren, eta hori bai kalifikatua bai inbentariatua izan daiteke, eta baldin eta arkeologiako esku-hartzeren baten ondoren, Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak, horietan, aurkitutako hondakinak mantentzeko premia ezarri balu, eta horiek ezin badaitezke ez ezabatu ez lekualdatu.

- k) Hezkuntza-ituneko erregimenera atxikitako ikastetxe pribatuak, itunpeko ikastetxearen izaera mantentzen duten bitartean.
- l) Gizarte jarduerak bakarrik egiten diren ondasun higiezinak direnean, beti ere salbuespen hori Udalak erabakitakoa izango balitz.

m) Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearenak liratekeenak.

2.- Zergaren bilketako kudeaketan eraginkortasuna eta ekonomia bilatzeko bidean, salbuetsiak egongo dira, kuota likidoa 6 eurotik gorakoa ez duten hiri eta landa ondasun higiezinak.

V.- SUBJEKTU PASIBOA

8. Artikulua.-

8.1.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikulua aipatzen dituen erakundeak, baina baita, testamendua egiteko ahalmena erabiltzeke leudekeen oinordekotzak, horiek eskubidearen titularitatea balute, eta kasu bakoitzean, zerga honen zergapeko egitatea den bezainbatean.

2.- Aurreko artikuluan erabakitakoa, subjektu pasiboaren ahalmenenari kalterik eragin gabe, aplikatuko da, hain zuzen, jasandako tributuen karga besteengan jasanarazteko duen ahalmenaren kalterik gabe, zuzenbide komunezko arauen arabera. Udalek zergaren kuota likido osoa hurrengo hauetan jasanaraziko dute, hain zuzen, eta nahiz eta zerga horren subjektu pasiboak izan ez, ondasun demanial edo ondarezko horien erabilera egiten dutenengan, kontraprestazioaren bidez.

Halaber, zergadunaren ordezkioak besteengan jasanarazi dezake horiei dagokien kuota likidoaren zatia, horietako bakoitzak ordaindu behar lukeen kanonaren proportzioan.

3.- Pro indibiso diren ondasunak edo pertsona multzo bati dagozkion ondasunak direnean, zergaren ondorioetarako, subjektu pasiboa erabakitzeko orduan, hori, dagokion elkargoari, atxikikiko zaio, horri dagokion zerga identifikazioko kodeari legokion izenari jarraiki.

Aipatu erakundeetako jabekide, partaide edo elkartekide bakoitzaren identitatea eta parte-hartzeko kuota, Higiezinaren Katastroan jasoaraziko da, haiek aho batez erabaki ondoren, esanbidez, horrela eskatuko balute. Halaber, ganantzialen sozietateko erregimenean leudekeen ezkontideek eska lezakete ezen, Higiezinaren Katastroan, horietako bakoitzaren identitatea ager dadila.

9. Artikulua.-

1.- Zerga honen zergapeko egitatea sortzen duten eskubideen titularitatean, aldaketaren bat suertatuko balitz, edozein izanik ere horren arrazoiak, eskubide horien objektu diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzera atxikirik geratuko dira, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 80. artikuluan aurrikusitako terminoetan, arau hori baita Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga Orokorrak arautzen dituenak. Ondorio horietarako, notarioek informazioa eskatuko dute, eta agerliarrei adieraziko die, zein zor dauden ordaintzeke Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioz, hain zuzen, transmititzen den ondasun higigarriari atxikia.

2.- Erakunde horietako partaide edo titularkideek, zerga honen kuota, elkarren artean, hartuko dute beren gain, eta horietako bakoitzak duen parte-hartzearen arabera proportzioan, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34. artikuluko arabera, arau hori baita Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga Orokorrak arautzen dituenak, baldin eta Ondasun Higiezinaren Katastroan horrela inskribatuta egongo balira. Inskribatuta egongo ez balira, erantzukizuna, edozein kasutan, zati berdinean eskatuko da.

V. ZERGA-OINARRIA.

10. Artikulua.-

1. Zerga honi dagokion zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioak eratzen du.

2.- Katastro balioa balio fiskal higiezin bat da, eta hori, Zerga Administrazioak zehaztuko du era objetiboan, Katastroan dauden datuen arabera. Hori zehazteko, haiek merkatuan duten balioa hartuko da erreferentziazat, eta inoiz ezingo da azken hori baino altuagoa izan

11. Artikulua.-

1 Hiri-izaerako ondasun higiezinaren balio katastrala, lurzoruen eta eraikinen balioak osaturik dago.

2.- Lurzoruen balioa kalkulatzeko orduan, ondasun higiezin horri eragiten dioten inguruabar urbanistikoak eukiko dira kontuan.

3.- Eraikuntzen balioa kalkulatzeko orduan, eraikitze baldintza urbanistikoez gain, kontuan hartuko da horren kokapena, horren izaera historiko-artistikoa, horren erabilera edo xedea, horien kalitatea eta antzintasuna, hala nola balio horri eragina lezaiokeen beste edozein faktore.

12. Artikulua.-

1.- Hiri-lurretako higiezin balio katastrala zehazteko orduan, kontuan hartuko dira, 1969ko balio-ponentzia ezarrita dauden irizpideak, balorazio-taulak eta beharrezko liratekeen gainontzeko elementuak, eta hori egingo da hain zuzen, beste balio-ponentzia berri bat onesten ez den bitartean, eta hori, Egotzi daitekeen Gutxienezko Balioa zehazteko onetsita dauden balorazioko arau teknikoak kontuan hartuta, egingo litzateke, 9/1989 Foru Arauaren 16.2 artikuluan adierazten den bezala, horrek arautzen baitu O.H.Z.-a, bestalde, azken hori 7/2003 zenbakidun Toki Zergen Erregimena Aldatzen duen F.A.-ak aldatu du.

2.- Behin aurreko atalean adierazitako balio-ponentzia onetsitakoan, hiri-lurretako higiezin katastro-balioa erabakitzeke, kontuan izan beharko dira, dagozkion erabileretan, balorazioko arau teknikoak eta, Egotzi daitekeen Gutxienezko Balioa erabakitzo onetsi den balioen gaineko, esparru-koadroa.

3.- Hiri-lurreko higiezin katastro-balioa, hain zuzen, Egotzi daitekeen Gutxienezko Balioa esleitu gabe luketen erabilerara destinatutakoena, helburu horretarako, bereziki, onetsitako irizpideen eta balioen gaineko esparru-markoaren arabera kalkulatu da. Horiek balorazio-irizpide bezala ere erabili ahal izango dira, balioen egiaztapena egin ahal izateko, eta hori, edozein modutan, nahikotasunez arrazoitua egon behar du.

13. Artikulua.-

1 Landa-izaerako ondasun higiezin balio katastrala, lurzorua eta eraikinen balioak osaturik dago.

2.- Landa-izerako lursailen balioa kalkulatzeko orduan, horien benetako errentak edo potentzialak araubidez ezarriko den interesean kapitalizatuz kalkulatu dira, lurra ekoizpenerako, lurgintzarako eta aprobetxamendurako duen gaitasunaren arabera, eta horien katastroko ezaugarrien arabera.

Errenta horiek kalkulatzeko orduan, kontuan hartu ahal izango dira, nekazal ezaugarri homogeneousun zonalde edo eskualde bakoitzeko errentamendu edo gasaila ikertzetik, lortutako datuak.

Halaber, atal honen ondorioetarako, kontuan izango dira, landa-lurretan egindako hobekuntzak, hobekuntza horiek lur horren balio banezinak direnean, eta bere kasuan, ekoizpenari hasiera eman arte igarotako urteak. Baso ekoizpenak dituzten lur-sailetan, bai landaketaren adina, bai zuhaitz-masaren egoera eta bai aprobetxamendu-aldia kontuan eukiko dira.

Edozein modutara, kontutan hartuko dira aprobetxamendu handiagoa lortzeko xedez aplikatu edo erabili diren ekoizpen normaleko bitartekoak, baina ez da kontuan hartuko aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala eta guztiz, ustiapenaren izaeratik edo udalerriaren ezaugarriengatik, benetako errentak edo potentzialak ezagutzea zail suertatzen bada, ondasunen katastroko balioa kalkulatu ahal izango da eta barne sartuko dira, horien hobekuntza iraunkorra eta landaketak, laborantzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta afektatzen dioten gaionontzeko inguruabarrak.

3.- Landa-eraikuntzen balioa aurreko artikuluko 2. ataleko arauak aplikatuz kalkulatu da, haien izaerak uzten duen neurrian.

14. Artikulua.-

14.1. Higiezinaren Foru Katastroa Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri eta landa lurralde-jabetzaren inbentario eta erregistro bezala taxutzen da, eta horren osaketa, mantenimendua eta berrikuspena Foru Aldundiaren eskumen eskusiboa izango da, baina horrek ez du eragozpenik sortuko Toki Entitateekin edo gainontzeko Herri Korporazioekin izenpetu litezkeen funtzio-ordezkaritzei eta Lankidetzako Hitzarmenei.

2.- Katastroko balioak, Ondasun Higiezinaren Katastroetan dauden datuetan oinarrituz, finkatuko dira.

3.- Landa eta Hiri Ondasun Higiezinaren Katastroan, landa- eta hiri-ondasun higiezinaren datu eta deskripzioak jasotzen dira, hain zuzen ere, jabetzako lurra ezagutaraziko duten eta bere aplikazioak zehaztuko dituen azalera, kokapena, mugak, labore edo aprobetxamenduak, kalitatea, balioak eta gainontzeko inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Hor jasoko da baita, hiri-izaerako ondasun higiezinaren kopuru finkoa ere, horien identifikazio-kode bezala.

Katastroko Datu Basean jasotako datuak egiazkotasun-presuntzioa izango dute, Tributuen Arautegi Orokorrean araututako terminoen arabera, baina horrek ez die kalterik eragingo, Jabetza Erregistroan jasotako datuek, beste esparrutan, izan ditzaketen ondorio juridikoei.

4.- Foru Arau horretan araututako terminoetan zergapetutako ondasun higiezinak, bakoitzari dagokion Landa eta Hiri Higiezinaren Katastroetan identifikatuta egon behar dute, eta landa lurak direnean, horien erreferentzia katastrala poligono eta partzela bakoitzeko, eta hiri-ondasunak direnean, zenbaki katastral finkoa.

15. Artikulua.- Balio katastralaren ezarpena, berrikuspena, aldaketa eta eguneratzea.

1.- Balio katastralaren ezarpena, berrikuspena, aldaketa eta eguneratzea Foru Arauean aurrikusitako terminoetan egingo da.

2.- Balio katastrala finkatzea honetan datza, hots, Administrazioak, lehenengo bider higiezin gehienei, aipatu balioa ezartzen dien saioa egitea. Horretarako, 9/1989 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako prozedura bete beharko da, horrek arautzen baitu O.H.Z., zeina martxoaren 26ko 7/2003 F.A.-ak aldatu zuen, hain zuzen, Toki Zergen Erregimena Aldatzen duenak.

3.- Balio Katastralaren berrikuspena honetan datza, hots, Administrazioak, aldioro, aurretik esleitu zuten higiezin gehienei, aipatu balioa zehazten dien saioa. Horretarako, 9/1989 F.A.-ko 13. artikuluan aurrikusitako prozedura jarraitu beharko da, horrek arautzen baitu O.H.Z., eta hori 7/2003 F.A.-k aldatu baitzuen.

4.- Balio Katastralaren aldaketa honetan datza, hots, Foru Aldundiak higiezin bati edo horien multzo bati dagokion balioa zehazteko saioa egitea, eta hori egiten du, hirigintzako planeamendua dela, edo beste inguruabar bat dela, merkatuko balioaren eta hari emandakoaren artean diferentzia handiak daudela nabarmendutakoan. Horretarako, 9/1989 F.A.-ko 14. artikuluan aurrikusitako prozedura jarraitu beharko da, horrek arautzen baitu O.H.Z., eta hori 7/2003 F.A.-k aldatu baitzuen.

5.- Balio Katastralaren eguneratzea honetan datza, hots, Foru Aldundiak, izaera orokorrarekin, balio katastral berriak zehazteko saioa egitea, eta hori egin lezake, lehen indarrean leudekeenei koefizienteak aplikatzearen ondorioz, modu horretan,

inflazioaren eraginez balio katastralak zaharkituak gera ez daitezzen. Foru Arau bidez, balio katastralak eguneratzea agindu daiteke, koefizienteak aplikatzearen ondorioz.

16. Artikulua.-

1. Partzialki, bi udal barruti edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinak direnean, txosten berezi eta bakar baten aplikazio bidez baloratuak izan daitezke, eta hori higiezin bakoitzarentzat, edo erabilera eta helburu homogeneousko multzo batentzat egina izan daiteke.

2.- Baita, konurbazioa osatzen duten udalerrietan kokatutako ondasun higiezin guztiak, eremu supramunizipaleko txosten bat aplikatzearen bidez, baloratuak izan daitezke,

VII. ZERGAREN KUOTA

17. Artikulua.-

1.- Zerga honen kuota osoa honako hau izango da, hots, zergaren oinarriari zerga-tasa aplikatzen ondorioztatzen dena.

2.- Zerga-tasa Eranskinean agertzen dena izango da.

3.- Merkatal erabilerako hiri-ondasun higiezinak direnean, eta horien balio katastrala 400.000 € eurotik gorakoa denean, Eranskinean adierazitako gehikuntza-tasa aplikatuko da.

4.- Kuota likidua honela zehaztuko da, hain zuzen kuota osoan, hurrengo kapituluan aurrikusitako hobarien zenbatekoak, bere kasuan, murriztuz.

5.- Baldin eta udalerrri batek, bere higiezinaren zati garrantzitsu bati balio katastrala aldatzeko prozedura aurrera eraman nahiko balu, Katastro eta Balorazio Zerbitzutik balio katastral berriak dituen zerrenda jaso behar du, eta hori jaso beharko du, indarrean sartuko den urtea baino lehenagoko urriaren 15a baino lehen, modu horretan, bilketako aurrikuspenak egin, eta bere intereserako egokienak diren zerga-tasak ezarri ahal izateko.

VIII. HOBARIAK.

18. Artikulua.-

1.- %50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, zergaren kuota osoan, baldin eta obra berriari dagokion alta-aitorpenarekin, interesatuek horrela eskatuko balute, urbanizazio, eraikuntza eta higiezinaren sustatze enpresen jardura duten higiezinak, bai obra berria denean, bai horren parekagarri den birgaiguntzakoa denean, eta ez bada agertzen bere ibilgetuaren ondasunen artean.

Hobari hau aplikatzeko epea, obrak hasten direneko hurrengo zergalditik hasi, eta obra horiek amaitu ondorena arte luzatuko da, beti ere, denbora horretan, urbanizazio-obrak edo eraikuntzakoak egingo balira, baina hala ere ezingo da, inola ere, hiru zergalditik gora luzatu.

2.- Ehuneko 50eko hobaria izateko eskubidea izango du, zergaren kuota osoan, behinbetiko kalifikazioa eman ondorengo hurrengo hiru zergaldietan, babes publikoko etxebizitzak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiaren arabera, horren mailakoa

izan daitekeenak. Hobari hori interesatuaren eskariz emango da, eta eskari hori, hiru zergaldiak irauten duten bitartean, epealdi hori agortu baino lehenagoko edozien unetan egin daiteke, eta ondorioak bere kasuan, eskatu ondorengo hurrengo zergalditik aurrera, izango ditu.

3.- 100etik 50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, ondasun higiezinaren zerga osoaren kuotatik, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuan arautzen den "Etxebizitza hutsaren Programa" barruan lagapena egin duten higiezinak, edo beste foru edo udal programen barruan.

4.- Zergaren kuota osoan %50eko hobaria izateko eskubidea izango dute eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinak. Hobari horren aplikazioa beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunaren dagokien homologazioa izateak baldintzatuko du.

19. Artikulua.- Familia ugariaren titularitatea luketen subjektu pasiboak, hobaria izateko eskubidea izango dute, behean adierazitako koadroan adierazten den arabera, zergaren kuota osoari dagokion bezainbatean. Hobari horretaz gozatzeko aukera izateko, beharrezko izango da:

1.- Higiezina familia unitatearen ohiko etxebizitza izatea. Ondorio horietarako, ohiko etxebizitza dela joko da, familia unitateko kide guztiak erroldatuak dauden hura.

SEME-ALABA KOPURUA	3	4	> 4
HOBARIA	30 %	40 %	50 %

Hobaria, subjektu pasiboak eskatu beharko du, eta eskariarekin batera, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- 1.- Hobariaren eskariari dagokion idatzia, non ondasun higiezina identifikatuko den.
- 2.- Higiezinaren titularitatea egiaztatuko duen dokumentua.
- 3.- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak egin (Gizarte Ekintzako Saila).

Hobariaz gozatzeko epeak, familia unitateak familia ugariaren baldintza betetzen duen artean, iraungo du, eta subjektu pasiboak bere egoeran eman daitezkeen aldaketa ororen berri eman behar du; bestalde, Administrazioak bere gain gordetzen du hobaria ezartzeko beharrezko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko eskubidea, zeina ofizioz egin ahal izango duen, eta hobaria bidegabeki disfrutatu dela egiaztatuko balitz, zergari dagozkion likidazio gehigarriak eta berandutze-interesak igorriko dizkioo, eta horrez gain, legokiokeen zigorra, izan ere, egite hori arau-haustea izango bailitzateke. Hala ere, egin daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe, hobariaren amaierako data bezala, familia ugariaren titulua iraungitzen den data hartuko da."

IX.- SORTZAPENA

20. Artikulua.-

- 1.- Zerga, zergapezko epealdiaren lehen egunetik sortzen da.

2.- Zegaldia bat dator urte naturalarekin.

21. Artikulua.-

Zergapetutako higiezinak izan ditzaketen aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoek, aldaketa hori gertatu den zerga-aldian gabe, hurrengoan izango du indarra, eta eraginkortasun hori ez da dagozkion egintza administratiboen jakinarazpenaren menpe geratuko.

X.- ZERGAREN KUDEAKETA.

22. Artikulua.-

1.- Zergaren kudeaketa zerga beraren Erroldan oinarrituz egingo da, hori urtero egingo da udal barruti bakoitzarentzat, eta bere barnean, ondasun higiezin, subjektu pasiboen eta balio katastralen erroldak sartuko dira, banandurik emanak landa-lurrentzat eta hiri-lurrentzat. Errolda hori jendaurreko egongo da, dagozkion Udaletxean.

2.- Zergaren erroldak Ondasun Higiezin Zergari lotutako hiri-lurreko higiezin bakoitzari legokion zenbaki finkoa eukiko du.

3.- Urteko Erroldaren datuek, Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordainagiritan, agertu beharko dute.

23. Artikulua.-

1.- Subjektu pasiboek hurrengo dokumentuak aurkezteko obligazioa izango dute, hain zuzen, zerga hori lotutako ondasunak non dauden kontuan izanik, horiek leudekeen Udalean, eta arauz ezarriko diren epeetan.

a) Eraikuntza berriak diren kasuan, horiei dagozkien altaren aitortpenak egin beharko dituzte.

b) Zerga honi lotuta dauden ondasunak eskualdatzen direnean, eskuratzailerak altaren aitortpena aurkeztu beharko du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; halaber, eskualdatzailerak bajaren aitortpena aurkeztu behar du, eta hor adieraziko ditu, eskuratzaileraren izena eta helbidea, ondasun horiek dituzten mugak eta beren kokapena, eskualdatutako eguna eta zein kontzeptupean egin den.

Eskualdaketa mortis causa egintzagatik bada, ezarriko den epearen hasiera, Oinordetzaren gaineko Zerga likidatu den datan emango zaio, eta oinordekoak bi aitortpenak egin beharko ditu, bai altarena bai bajarena.

c) Zergapetutako ondasunei dagozkien aldaketa guztiak, direla horiek bai maila fisikokoak, bai ekonomikokoak bai juridikokoak.

2.- Aurreko atalean aipatzen diren aitortpenak ez balira aurkeztuko, edo ez balira, horretan adierazitako epe barruan, egingo, egite hori zergari dagokion arau-haustea izango litzateke, eta 3.000 euroko diruzko isun finkoz zigortuko litzateke.

3.- Aitortpena egiteko obligazioa luketen subjektu pasiboek, hain zuzen, aurreko 1. atalean aipatutako edozein transmisio edo aldaketa aitortu behar luketenean, dela dokumentuak formalizatzen diren unean, horiek nahiz publikoak nahiz pribatuak

izan, dela prozedura judizial edo administratiboak izapidetzen direnean, non ondasun higiezinaren aldaketak nabarmen jarriko diren Foru Arauean araututa dagoenaren arabera, ondasun higiezinaren identifikazio katastrala egiaztatu beharko dute, horren baimen, inskripzio edo instrukzioa egiteko eskuduntza duten notarioen aurrean, erregistratzaileen aurrean edo, organo edo agintari judizial edo administratiboen aurrean, eta horiek landa-lurrak direnean, poligono eta partzelaren zenbaki katastral finkoarekin egingo da, arauz ezarriko den terminoetan.

24. Artikulua.-

1.- Ondasun higiezinaren Katastroetan datuak barne hartzea, kanpo uztea edo horko datuak aldatzea egintza administratiboa dela jotzen da, horiek egin daitezke bestalde, katastroa berrikusteagatik, katastroko balioak finkatu, berrikusi eta aldatzeagatik, ikuskaritzaren jardueragatik edo altak eta jakinarazpenak egiteagatik, eta horrek jakina, Zergaren Errolda aldatzea ekarriko du.

Ondasun Higiezinaren Katastroetan dauden datuak oinarri harturik, Erroldan egin daitekeen edozein aldaketa egiteko, derrigorrezkoa izango da, aurretik Katastroan, aldaketa egina izatea.

2.- Datu katastralean eman daitekeen edozein aldaketa, zergaren subjektu pasiboari, jakinarazi beharko zaio, egintza administratiboen jakinarazpenak arautzen dituen irizpide orokorren arabera.

3.- Gestio katastrala egiten duen organoak ezagutzen duenean, ezen datu katastralen eta higiezinaren errealitatearen artean desadostasunak daudela, eta desadostasun horren jatorria ez dela sortzen, aurreko artikuluan subjektu pasiboak aitortzea aurkezteko agertzen den betebeharra ez betetzeagatik, kasu horretan, interesatuari horren berri eman beharko dio, eta hamabost eguneko epea eman beharko dio, bere eskubideen alde egokien iritzitako alegazioak aurkez ditzan.

Aipatu epea igarotakoan, eta aurkeztutako alegazioak ikusirik, organo kudeatzaileak, ofizioz, datu katastralak aldatzeari ekingo dio, eta hori subjektu pasiboari jakinaraziko dio, administrazio egintzak jakinarazteko araututa dauden irizpide orokorren arabera.

Aipatu aldaketak, Erroldan, aldaketa hori egin ondorengo hurrengo zergalditik aurrera, izango ditu ondorioak.

4.- Artikulu honetako lehen, bigarren eta hirugarren ataletan deskribatutako egintzak inpugnatu ahal izango ditu partikularrak, aukera berraztertze helegitearen bitartez, edo zuzenean, erreklamazio ekonomiko-administratiboaren bitartez, helegite horiek jartzeko dauden epeetan.

25. Artikulua.-

1.- Ordainarazpen, kudeaketa, likidazio, ikuskaritza eta bilketari dagozkion eskumenak, bai borondatezko epean, bai exekuzio epean, eta horrekin batera, baita, zerga-gestioaren bidean emandako egintzak berrikustea Udalari dagokio, hain zuzen, zergapeko ondasunak leudeken udal barrutikoari.

2.- Zehazki Udalari dagozkio, bai salbuespenak eta hobariak eman eta ukatzea, bai zerga-zorrak zehaztera zuzendutako likidazioak egitea, bai kobrantzako

dokumentuak egitea, bai zor ez diren sarreren itzulketa-espedienteei ebazpena ematea, bai aipatu egintzen aurka jarri daitezkeen helegiteei ebazpena ematea, bai paragrafo honetan barne sartutako gaiei buruz zergadunei laguntza eta informazioa ematea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaz gain, ordenantza honetan aurrikusitako salbuespenak eta hobariak eman eta kentzeko, beharrezkoa izango da, edozein kasutan, eskumena duen Udalak hartutako ebazpenaren berri Foru Aldundiari heleraztea.

3.- Tributuaren ordainketa errazteko helburuz, Udalak bere ordainketa zatikatu ahal izango du ekitaldian zehar, berandutzeari legozkion interesak eskatu beharrik gabe, eta bermerik eskaini beharrik gabe.

4.- Udalak kobrantzako dokumentu bakar batean batu ditzake zerga honen kuota guztiak, subjektu pasibo berari legozkionak, baldin eta udalerri berean kokatutako landa-ondasunak balira.

26. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Foru Aldundiari edo Basauriko Udalari egokituko zaio, horretarako izenpetuko diren Elkarlaguntzarako Hitzarmenetan zehaztuko denaren arabera, horiek behin Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan, balioei buruzko txostenak egin eta onestea, hala ere horren aurretik lurzorua mugatu, eta balio katastralak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratu egin beharko dira, eta baita, Higiezinaren Katastroarekin lotuta dauden prestakuntza, kontserbazio, berrikuntza, berrikuspen eta gainerako funtzioak bete beharko dira ere.

2.- Pertsona natural edo juridiko, publiko edo pribatu orok, Katastroarekin lankidetzan, jardun behar du, martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92 artikuluaaren arabera, eta zergarekin zerikusia izan lezakeen mota guztietako datuak, txostenak edo aurrekariak eman beharko ditu, hain zuzen, beste pertsonekin eukitako harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioetatik ondorioztatzen direnak, baldin eta horiek Higiezinaren Katastroko datu fisiko, ekonomiko eta juridikoak osatzeko, mantentzeko edo eguneratzeko interesgarri balira.

3.- Herri Administrazioek, orokorki, eta martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 93 artikulua aipatzen dituen gainontzeko Erakundeek obligazioa dute, aipatutako artikuluan adierazitako terminoetan, Katastroa egin eta mantentzeko garrantzitsuak izan daitezkeen datu eta aurrekari guztiak Katastroko Zerbitzuari emateko, horrela eska daitekeenean, bai errekerimendu konkretu bidez, bai izaera orokorreko xedapenetan oinarritutako errekerimendu bidez.

27. Artikulua.-

1.- Udalak egindako egintzen aurka, egintza horiek Bizkaiko Foru Aldundiak eskuordetutako ahalmenen egikaritzan eginak izango dira, interesatuek, nahi izanez gero, berraztertze helegitea jarri dezakete, baina baita erreklamazio ekonomiko-administratiboa era jarri dezakete Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean, hurrengo modu eta epeetan, hain zuzen, zerga gaitan, Foru Aldundiak egindako egintzen aurka egiteko, jarri daitezkeen aipatu errekurtsoen Arautegian ezarritako modu eta epeetan.

2.- Udalak egindako egintzen aurka, bereak diren ahalmenen egikaritzan egindakoak, jarri daitezkeen helegiteen erregimena ohikoa izango da, hain zuzen, Toki Erregimenaren eta Toki Ogasunaren legerian ezarrita dagoenaren arabera.

3.- Edozein modura, Udal Administrazioak interesatuak jakinean jarriko ditu, horiei eragiten dieten ebazpenen jakinarazpenetan, kasu bakoitzari dagokion helegiteen erregimena.

28. Artikulua.-

1- Errolda, eskumena onartua lukeen Administrazioak prestatuko du, hain zuzen, helburu horrekin izenpetutako Hitzarmenaren arabera onartua lukeenak.

2.- Edozein modura, Udalak jendaurreko jarriko du hamabost eguneko epean, horrela, interesaturik leudekeen zergadunek hori aztertu, eta bere kasuan, egoki lerizkien erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Lehenengo.-

7 d) artikuluan xedatutakoaren ondorioarako, eta gai ekonomikoen gainean Espainiaren eta Egoitza Santuaren arteko Hitzarmena indarrean legokeen bitartean, 1979ko urtarrilaren 3koa, hurrengo ondasunak salbuetsiak egongo dira:

a) Gurtzara dedikatutako elizak eta kaperak, halaber, horien lokalak edo jarduera pastoralera destinatutako eta hari erantsitako eraikinak.

b) Apezpikuen, Kanonigoen eta animak zaintzen dituzten Apaizen egoitzak.

c) Bulegoetara, Kuria diozesiarrera eta parroko bulegoetara destinatutako lokalak.

d) Apaiz diozesiarrak eta erlijiosoak prestatzera dedikatutako Apaizgaitegiak eta Elizaren Unibertsitateak, baina elizaren irakasgaiei dagozkien gaiak irakasten dituzten heinean.

e) Funtsean Erlijioso Ordenetako eta Kongregazioetako Etxe edo Komentuetara eta bizitza konsagratutako Institutuetara destinatutako eraikinak.

Bigarrena.

Balio katastrala merkatuko balioarekin hobeto modulatzeko helburuz, balio katastrala finkatu, berrikusi eta aldatzeko prozeduretan, balio-txostenetik ondoriozta daitezkeen balioari, araubidez ezarriko den koefizientea aplikatuko zaio.

Hirugarren.

Hiri-lurretako ondasun higiezin erabilera desberdinei egindako Gutxienezko Balio Atxikigarriaren esleipena zabaltzen doan heinean, egoki denean, horien balio katastrala erabakiko da, dagokion Foru Arauean araututako prozedurari jarraiki, eta erreferentzia gisa, Gutxienezko Balio Atxikigarria lortzeko oinarri izan ziren balorazioko arau teknikoak eta balioen koadro-markoa hartuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Hiri-izaerako ondasun higiezin gainera zergei dagokionez esan behar da, 1990eko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden Hiri Lurraren Kontribuzioko balio katastralak aplikatuko direla, behinik behin Ordenantza honetako arauen arabera horiek zehazten ez diren bitartean.

2. Landa-lurretako ondasun higiezin gainera zergari dagokionez, hori aurreko paragrafoko inguruabar berberetan galdutako da, eta ondasun horien balio katastral gisa hartuko da, 1990eko urtarrilaren 1ean Landalur eta Abere Kontribuziorako indarrean zegoen oinarri likidagarrien zenbatekoaren gainean, % 3an kapitalizatu ondoren, gertatzen den emaitza.

3.- Ondasun Higiezin gainera zergari aplikatu dakizkiokeen onura fiskalak, Foru Arau hau indarrean sartzean ezagutuak egon daitezkeenak, zeinaren gozameneko kasuak bertan jasoak egongo diren, mantenduko egingo dira, eta nahiz eta eskabidezkoak diren, ez dira berriro eskatu behar. Aipatu zergan ezagututako onura fiskalak mantendu egingo dira, horien iraungitze-data arte, nahiz eta jaso gabe egon Foru Arau honetan, horiei dagozkien gozamen-kasuak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

ERANSKINA

Karga-tasa

Hiri-lurretako Ondasunak	1,237
Hiri-izaerako ondasunak, MERKATAL ERABILERA, 400.000 eurotik gorako balio katastrala	1,360
Landa-lurretako Ondasunak	0,436

LAUGARREN ORDENANTZA FISKALA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki-Ogasunak erregulatzen dituen Foru Arauean eta zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoaren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Ordenantza honi jarraiki, galdatzen du, eta horren zati banaezina den Eranskinean dator jasoa aplikagarri diren tarifen koadroa.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

Artikulua.- Zergaren egitate zergagarriak izango dira honako hauek:

1.- Bide publikoetatik ibiltzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titularitatea izatea, edozein delarik ere horien mota eta kategoria.

2.- Zirkulaziorako gai dela joko da dagokion erregistro publikotan matrikulatua izan den ibilgailu oro, baldin eta ez bazaio bazarik eman aipatu erregistroetan.

Zerga honen ondorioetarako, zirkulaziorako gai direla joko da, denboraldi baterako baimena eta matrikula turistikoa dutenak.

3.- Ez daude zerga honek zergapetuta:

- a) Modeloaren aintzinasunagatik erregistrotatik baja emanda leudekeen ibilgailuek, salbuespen gisa, zirkulatzeko baimena izan dezakete, mota horretakoentzat bakarrik antolatutako erakusketa, lehiaketa edo laisteketak antolatzen direlako arrazoiz.
- b) Trakzio Mekanikoko ibilgailuek errestan eramandako atoiak eta erdiatoiak, baldin eta horien karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez bada.

III.-SALBUESPENAK

4. Artikulua.-

1.- Zerga ordaintzetik salbuetsirik egongo dira:

a) Ibilgailu ofizialak, direla horiek Estatukoak, Euskadiko Autonomi Elkartekoak, Bizkaiko Lurralde Historikokoak eta Toki Entitatekoak, baldin eta Defentsara edo hiritarren segurtasunera atxikirik baleude.

b) Diplomazi ordezkariak, kontsul bulego, diplomazi agente eta akreditutako kontsul funtzionarioen ibilgailuak, haiek dagozkien herrialdeetako herritarak izanik eta horiek kanpoaldetik identifikatuta egon, eta horren hedapen eta mailan, ordain bera izateko baldintzapean.

Halaber, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko organismoen ibilgailuak, eta hor, diplomazi estatutua duten funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan erabakitakotik horrela ondorioztatzen den kasuan barne sarturik leudekeen ibilgailuak.

d) Anbulatziak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta zuzenean, osasun-asistentziara, edo zaurituak edo gaisoak garraitzera destinatuak baleude.

e) Mugikortasun murriztuko pertsonentzat diren ibilgailuak, Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. Eranskineko A letran agertzen den bezala, hori abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretu bidez onetsi zen (horrela direla joko da, horien pisu hila 350 kg.-tik gorakoa ez denean, eta ibilgailuaren sorrerako baldintzen arabera, zelaian, 45 km/or. baino abiadura handiagoa hartzen ez duenean, eta bereziki, ezgaitasun edo disfuntzio fisikoa lukeen pertsonaren erabilerarako proiektatua eta egina izatea –eta ez soilik egokitua–).

Halaber, salbuesita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak berak erabiltzeko direnak. Salbuespen hori, inguruabar horiek mantentzen diren heinean, aplikatuko zaie, bai minusbaliotasuna duen pertsonak gidatutako ibilgailuei, bai horien garraiara destinatutakoei.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkio aplikagarri izango, aldi berean, ibilgailu bat baino gehiagogatik, subjektu pasibo bati.

Atal honetan zedarritutakoaren ondorioetarako, hauexek hartuko dira pertsona ezindutzat:

A`) %33eko eta handiagoko eta % 65eko edo txikiagoko minusbaliotasun-gradua onartuta, eta mugitzeko gaitasuna murriztuta duten pertsonak, eta halakotzat hartuko dira abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak, horrek arautzen baitu minusbaliotasun-gradua ezagutu, deklaratu edo kalifikatzeko prozedura, edo aipatu baremoko D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak.

B`) %65eko edo handiagoko minusbaliotasun-gradua duten pertsonak.

Salbuespen hau eskabidezkoa izango da, eta hori, adierazitako administrazio-egintza bidez, onartu beharko zaie beharrezko baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboei, hala ere horiek, aurretik, eskatu egin beharko dute, eta eskari horretan azaldu beharko dituzte, bai ibilgailuaren ezaugarriak, bai horren matrikula, bai onura izateko arrazoia, eta horrekin batera, hurrengo dokumentuak ere erantsi beharko dizkio:

1.- Organo eskudunak egindako minusbaliotasun-egiaztagiria (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila), eta ez da nahiko izango, dagokion balorazio-ekipoak egindako irizpen mediku-teknikoari dagokion titulua.

2.- Zirkulatzeko baimenaren fotokopia.

3.- Zinpeko aitorpena, non jasoko den, ibilgailua minusbaliatuaren erabilerarako soilik izango dela.”

f) Hiri-garraio publikoaren zerbitzura atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainontzeko ibilgailuak, baldin eta bederatzi plazatik gorako edukiera badute, gidaria barne dela.

g) Nekazal Ikuskaritzako Kartila duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria. Salbuespen horretaz gozatu ahal izateko, interesatuek horren eskaria egin behar dute, non ibilgailuaren ezaugarriak, horren matrikula eta onuraren arrazoia adieraziko dituzten. Udal administrazioak salbuespena aitortzen duenean, hori eman dela egiaztatuko duen agiria luzatuko du.

2.- Orokorki, onartutako salbuespenak ondorioa, eskaria egin ondorengo hurrengo ekitaldian, izango du, baina ezingo du atzeraeraginik izan.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK.

5. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, gidatzeko baimenean ibilgailua noren izenean agertzen den kontuan izanik, martxoaren 10eko 2/2005 Zergaren gaineko FORU ARAU Orokorreko 34. artikuluari dagozkion bai pertsona fisikoak bai juridikoak bai Entitateak.

V. KUOTA.

6. Artikulua.-

1.- Zerga, Eranskinean dagoen tarifen koadroaren arabera, galdatuko da.

2.- Ibilgailuaren mota zehazteko orduan, araubidez erabakitakoa hartuko da kontuan, eta gainera, hurrengo arau hauek eukiko dira kontuan:

a) Furgonetatzat hartuko da, pertsona eta gauzak garraitzeko helburuz egokitu den turismo ibilgailua, horri zenbait aldaketa egingo zaizkio baina jatorrizko modeloa funtsean aldatu gabe, hala, eserlekuak eta kristalak kendu eta neurria aldatu edo ateen antolaketa edo beste edozein aldaketa egingo zaio. Furgonetari turismoaren zerga bera aplikatuko zaio, bere indar fiskalaren arabera, hurrengo kasu hauetan izan ezik.

LEHENENGO.- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago garraitzeko gaitua egongo balitz, gidaria barne dela, autobusaren zerga izango du.

BIGARREN.- Ibilgailua 525 kilogramo baino gehiagoko karga baliagarria garraitzeko gaitua egongo balitz, kamioiaren zerga izango du.

b) Zerga honen eraginetarako, motokarroek motozikleta kontsiderazioa izango dute, eta beraz, horien zilindradak duen indarraren arabera ordainduko dute.

c) Ibilgailu artikulatuen kasuan, aldi berean baina banandurik ordainduko dute zerga-zorra, garraitzeko ahalmena duenak batetik eta garraiatutako atoiak eta erdi-atoiak bestetik.

- d) Duten kapazidadeagatik matrikulatu beharrik gabeko ziklomotore, atoi eta erdi-atoien kasuan, Administrazioako eskudun organoak beharrezko ziurtagiria ematen duen momentutik, edo kasua balitz, benetan zirkulazioan daudenetik, zirkulatzeko gai direla joko da.
- e) Bide publikoetatik ibili daitezkeen autopropulstsatutako makinei, garraiatuak edo arrastran eramanak izateko beste trakzio mekanikoko ibilgailurik ez badute behar, traktoreen tarifa aplikatuko zaie.

3.- Hobariak:

- a) Propulzio hibridoaren ibilgailuak: %35a.
- b) Ibilgailu elektrikoak: %50a.

VI. ZERGA-ALDIA ETA SORTZAPENA.

7. Artikulua.-

1.- Zergapezko epealdia urte naturalarekin bat etorriko da, ibilgailuen lehen eskuraketa edo baja kasuetan izan ezik. Kasu horietan, eskuraketa egiten den egunean hasiko da zergapenezko epealdia edo Trafiko Buruzagintzan baja ematen den egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga, zergapezko epealdiaren lehen egunetik sortzen da.

3.- Ibilgailua lehenengo bider erosten den kasuan, edo horien baja gertatzen den kasuan, zergari dagokion kuotaren zenbatekoa hainbanatu egingo da hiruhilabete naturaletan, eta barne sartuko da alta edo baja gertatzen den datari dagokiona.

4.- Kuoten hainbanaketa modu berean egingo da baita, aldibateko baja gertatzen denean, ibilgailua lapurtu edo ebasteagatik, eta hori egingo da, aipatu baja, dagokion Erregistro publikoan gertatzen den une beretik.

VII. KUDEAKETA.

8. Artikulua.- Kudeaketa, likidazioa, ikuskaritza eta bilketa, hala nola zergaren kudeaketaren gainean eman diren egintzen berrikustea, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea kontuan izanik, hor agertzen den Udalari dagokio.

9. Artikulua.- Udalak zerga hau eskatzekoan autolikidazio erara eskatzeko aukera izango du.

10. Artikulua.- Zergaren ordainketa egiaztatzeko instrumentutzat hartuko da, Udal Administrazioak luzatutako ordainagiria.

11. Artikulua.- Zergaren ordainketa ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilabete barruan egingo da, ez badira behintzat hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuak, horrela balitz, hor diena hartu beharko da kontuan.

12. Artikulua.-

1.- Trafiko Buruzagitzan ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtapena edo behin-betiko baja eskatzen dutenek, aurretik, zerga ordaindu dutela egiaztatu beharko dute. Egiaztatzeko aipatu obligaziotik salbuetsita dago, hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin-betiko bajen kasua.

2.- Aurreko obligazio bera izango dute ibilgailuen titularitatea duten pertsonak, Trafiko Buruzagitzari jakinarazten diotenean horien berrikuntza egin dutela, baldin eta zerga honen ondorioetarako horren sailkapena aldatzen bada, eta baita transferentzia egiten bada, eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenean dagoen helbidea aldatzen bada.

3.- Trafikoko Buruzagitzak ez ditu ibilgailuen baja edo transferentzi espedienteak izapidetuko, aurretik ez bada zergaren ordainketa egiaztatu.

13. Artikulua.- Matrikulazio berria denean edo ibilgailuan aldaketak egin direlako, zergaren ordainketari dagokionez, sailkapena aldatua suertatzen denean, interesatuek, Udal Administrazioan, hurrengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, Zergaren Matrikulan sartzeko helburuz, matrikulazioaren edo aldaketaren datatik hasita, hogeita hamar laneguneko epean:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztageria.
- c) Titularraren N.A.N. edo Z.I.K.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengo.-

Toki Zergen Erregimena Aldatzeari buruzko 7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei ez zaie arau hori aplikatuko, eta hori horrela, aurreko arautegia aplikatuko zaie.

Bigarrena.

7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergatik salbuetsia egon zitekeen ibilgailuak, hain zuzen, ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauaren aurreko idazketan zioena aplikatzearen ondorioz salbuespena zuenak, arau horrek arautzen baitzuen zerga hori, baldin eta 7/2003 Foru Arau honek emandako idazketa berrian, salbuespena izateko finkatu diren baldintzak ez balitu beteko ere, salbuespena izateko eskubideari eutsiko lioke, ibilgailu horrek, aurreko idazketan salbuespena izateko finkatu ziren baldintzei, eusten dien bitartean.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza horri behin-betiko onespina eman zitzaion, eta indarrean sartuko da 2007ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

(2009ko irailaren 24an Udalbatzak aldatuta)

ERANSKINA

TARIFAK

IBILGAILU MOTA ETA EZAUGARRIAK	KUOTAK €
A.- AUTOAK:	
8 ZF-tik beherakoak	22,44
8 ZF-tik 11,99 ZF-raino	60,60
12 ZF-tik 13,99 ZF-raino	106,87
14 ZF-tik 15,99 ZF-raino	149,61
16 ZF-tik 19,99 ZF-raino	192,35
20 ZF-tik gorakoak	235,10
B.- AUTOBUSAK:	
21 eserlekutik beherakoak	148,12
21 eserlekutik 50 eserlekura	210,95
50 eserlekutik gorakoak	263,69
C.- KAMIOIAK:	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria	75,18
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria	148,12
2.999 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria	210,95
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria	263,69
D.- TRAKTOREAK:	
16 ZF-tik beherakoak	31,42
16 ZF-tik 24,99 ZF-ra	49,37
25 ZF-tik gorakoak	148,12
E.-TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEK HERRESTAN ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK.	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria	31,42
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra arteko karga erabilgarria	49,37
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria	148,12
F.- BESTE IBILGAILU BATZUK:	
Ziklomotorrak	7,85
125 c ³ -rainoko motozikletak	7,85
125 c ³ -tik 250 c ³ -ra arteko motozikletak	13,46
250 c ³ -tik 500 c ³ -ra arteko motozikletak	26,93
500 c ³ -tik 1000 c ³ -ra arteko motozikletak	53,86
1000 c ³ -tik gorako motozikletak	107,72

BOSTGARREN ORDENANTZA FISKALA

HIRI-LURREN BALIOA AREAGOTZEAGATIK APLIKATZEN DEN ZERGA.

I. XEDAPEN OROKORRAK.

Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasuna arautzen duen Foru Arauan eta Zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoari jarraiki, Hiri izaerako Lursailen balioa areagotzearen aplikatzen den zerga ezerri eta galdatzen du, hori Ordenantza honen arabera egingo da, eta horren zati banaezina da Eranskina ere, non datozen jasoak portzentaien koadroa eta aplikagarri diren tarifak.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.-

1.- Epe zergagarriaren barnean hiri izaerako lursailek eukitzen duten balioa areagotzea zergapetzen du zerga honek, horren jabetza edozein titulugatik besterenganatzen denean, edo gozatzen den edozein eskubide erreal eratu edo besterenganatzen denean, jabetzako lurra mugatzen duen heinean.

2.- Ondorio horietarako, hiri izaerako lursailen kontsiderazioa eukiko dute hurrengo hauek:

Hiri lurzorua, eta planeamenduak urbanizagarri sailka lezakeena, baldin eta sektoreetan barne sartuta balego, hala nola, urbanizagarri sailka litekeen gainontzeko lurra, hori garatzen duen hirigintzako tresna onesten den unetik hasita.

Baita, bide zolatuak edo espaloietan zintarriketa duten lursailak, baldin eta gainera, estolderia, ur-horniketa, energia elektrikoaren eta argiteria publikoaren horniketa badute, eta hiri-lurreko eraikinak okupatzen dituztenak.

Nekazal legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurak ere izaera honetakoak direla ulertuko da, beti ere zatikapen horrek nekazal erabilera hutsaltzen duenean, baina horregatik ez dute beroien landako izaera galtzen beste ondorioetarako, baizik eta bakarrik zerga honen ondorioetarako.

III.- ZERGAPETU GABE

4. Artikulua.-

1.- Landa-lurrek, horiek balio gehikuntza izan arren, ez dira zergapeturik egongo zerga honengatik.

2.- Zerga honen ondorioetarako, landa-izaerako ondasun higiezin gisa hartuko dira, hiri-izaerako ondasun higiezin kalifikazioa ez duten lurak, aurreko artikuluko 2. zenbakian ezarrita dagoen arabera.

3.- Ez da ere zergapetzerik gertatuko, ezkontideek ondasun eta eskubideak ezkontza-sozietatean jartzen dituztenean, hain zuzen, horien mesedetan eta horien ordainketan egin daitezkeen esleipenak direnean, zeinak ezkontide horien ondasun komunen ordainetan egiten diren.

4.- Ez eta ere, ez da zergapetzerik gertatuko, ezkontideen artean edo seme-alaben mesedetan egiten diren ondasun higiezinaren eskualdaketetan, horiek ezkontza-deuseztasun, banantze edo dibortzio kasuetan emandako epaia betetzeko egiten direnean, eta edozein delarik ere, ezkontzako erregimen ekonomikoa.

IV. SALBUESPENAK.

5. Artikulua.-

1.- Zerga honetatik salbuetsirik egongo dira hurrengo egintzen ondorioz gertatzen diren balioaren gehikuntzak:

- a) Zortasun-eskubideren eraketa eta eskualdaketa.
- b) Multzo historiko-artistiko gisa zedarritutako perimetro barruan leudekeen ondasunen eskualdatzea, edo banakoa izan arren, interes kulturalakoa aitortua izan bada, ekainaren 25eko 16/1985 Legean ezarrita dagoen bezala, hori Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa da, eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarrita dagoen bezala, hori Euskal Ondare Kulturalari buruzkoa da, baldin eta horien jabeek edo eskubide errealeen titularitatea luketenek egiaztatuko balute, ezen beren kargura, aipatu higiezinetan, kontserbazio, konponketa edo birgaitzeko obrak egin dituztela, balioaren areagotzea agerian jartzen den epe barruan, 7. artikuluan ezarrita dagoen bezala.

Ondorio horretarako, jabeek egiaztatu egin beharko dute, ezen beren kargura eta kostura, obrak egin dituztela aipatu higiezinetan, horien kontserbazio, konponketa edo birgaikuntzarako, baldin eta higiezinaren balio katastrala obren zenbatekoa baino txikiagoa balitz, EOZ-ren ondorioetarako, obra horiek kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratuko dira. Atal honetan aurrikusitako ondorioetarako, salbuespen-eskariarekin batera aurkeztu beharko da:

- 1.- Dokumentu bidez egiaztatu beharko da, ezen zergaren objektu diren eskualdatutako ondasunak Multzo Historiko Artistikoaren barne sartuta daudela, edo horietako bakoitza interes kulturalakotzat aitortu dela.
- 2.- Obrei dagokien baimen urbanistikoa edo exekuzio-agindua.
- 3.- Obra-lizentziari dagokion tasaren ordainketa-gutuna, hain zuzen, izapidetu den lizentziari dagokiona.
- 4.- Obra-amaieraren egiaztagiria.

2.- Baita, hurrengo balio gehitzeak salbuetsiak egongo dira zerga hau ordaintzetik, hori ordaindu beharreko obligazioa hurrengo pertsona edo entitateek dutenean.

- a) Estatua, Euskadiko Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta Toki-Entitateak, zeinetan udalerria partaide litzatekeen, hala nola Erakunde Autonomoak eta izaera beretsuko zuzenbide publikoko erakundeak, bai Autonomia Erkidegokoak bai toki erakundeetakoak.
- b) Zergapetzea egiten duen udalerria, eta aipatu udalerrian integratzen diren edo integra litezkeen gainontzeko toki-erakundeak, hala nola, horien zuzenbide publikoko erakundeak, Erakunde Autonomoen izaera beretsukoak direnak.
- c) Onegintzako edo onegintza-heziketako kalifikazioa duten erakundeak.

- d) Indarrean dagoen legerian aurrikusi bezala eratuta dauden Gizarte Segurantzako eta Mutualitate eta Montepioetako entitate kudeatzaileak.
- e) Nazioarteko Itun edo Hitzarmenetan salbuespena ezagutua duten pertsonak edo entitateak.
- f) Administrazio-emakida itzuligarria duten titulu-jabeak, baldin eta itzuligarritasuna, afektaturiko lursailei badagokie.
- g) Gurutze Gorria, eta araubidez zehaztu daitezkeen beste entitate asimilagarriak.

V.- SUBJEKTU PASIBOAK.

6. Artikulua.-

1.- Zergaren subjektu pasiboa da:

- 1) Lurren eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten irabazizko gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurraren eskuratzetara edo ondasun-eskubidea beronen alde eratua izan edo eskualdaketaren jasotzailea.
- 2) Lurren eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten eta kostubidezkoa den gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurraren eskualdatzailea edo ondasun-eskubidearen eratzale edo eskualdatzailea.

2.- Aurreko puntuko 6.1.2 atalean aipatzen diren kasuetan, baldin eta zergaduna Espainian egoitzik ez lukeen pertsona fisikoa balitz, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da, Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatzen den pertsona fisikoa edo juridikoa, edo erakundea, hain zuzen, lursaila lortzen duena, edo eskubide erreala zeinen mesedetan eratu edo eskualdatu den kontuan izanik, horren hartzailea.

VI. ZERGA-OINARRIA.

7. Artikulua.-

1.- Zerga honen zerga-oinarria, hiri-lurren benetako balioak sortzapean-unean ageriko jarri, eta 20 urteko gehienezko epean zehar, hartutako benetako gehikuntza da.

Zerga-oinarria zehaztu ahal izateko, lursailaren balioa hartuko beharko da kontuan, sortzapean-unean, artikuluko honetako hurrengo atalean aurrikusita dagoen bezala, eta baita, I. Eranskinean dagoen eskalako portzentaia ere.

2.- Lursailaren balioa, sortzapean-unean, hurrengo arauetan ezarritakotik ondorioztatuko da:

Lehenengo.- Lurren eskualdaketetan, haien sortzapean-uneko balioa, une horretan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako zehazturik lukeena, izango da.

Bigarren.- Jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide erreala eratu eta eskualdatzeko orduan, I. Eranskinean jasotako urteko portzentaia, aurreko arauan zehaztutako balio-zatiaren gainean, aplikatuko dira; bestalde azken

horrek, harekiko, aipatu eskubideen balioa ordezkatu beharko du, eta Ondarezko transmisioen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako, hor finkatutako arauak aplikatuz kalkulatu da.

Hirugarren.- Eraikin edo lursail baten gainean planta bat edo gehiago altxatzeko eskubidearen edo lurzorua azpitik eraikina egiteko eskubidearen eraketa edo transmisioan, azken horretan azaleraren eskubide errealik egon gabe, I. Eranskinean dauden portzentaiak, lehen araeuan zehaztutako balioaren gainean aplikatuko dira, horrek ondorioztatuko du, transmisioko eskrituran finkatutako proportzionaltasun modulua, edo hori ezean, gainean edo lurazalaren azpian eraikitze planten azalera edo bolumenaren artean eta behin haiek eraikitakoan eraikin osoaren azalera edo bolumenaren arteko proportziotik ondorioztatzen dena.

Laugarren.- Derrigorrezko desjabetzenak diren kasuan, I. Eranskinean dauden urteko portzentaiak, lursailaren balioari legokion balio justuaren zatia hartuta, aplikatuko dira, baina hala ere ez, lehen araeuan zehaztutako balioa txikiagoa izango balitz, zeren eta kasu horretan, azken hori lehenetsiko baita balio justuaren gainetik.

3.- Sortzapenaren unean, lursailaren balioaren gainean, hain zuzen, aurreko 7.2 atalean erabakitakotik ondorioztatzen dena, I. Eranskinean ezarritako urteko portzentaia aplikatuko da.

Portzentaia zehazteko, hurrengo arau hauek aplikatuko dira:

Lehenengo. Zerga honek zergapetzen duen eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza zehazteko orduan, epealdi horretarako, Udalak ezarri duen urteko portzentaia arabera finkatuko da balio gehikuntza hori, eta horrek barne hartuko ditu gehikuntza hori egin behar den urte kopurua.

Bigarren. Sortzapen unean lurrak duen balioaren gainean aplikatu behar zaion portzentaia honako hau izango da, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentaia urte kopuruarengatik biderkatutako emaitza, eta urte kopururako balio gehikuntza eman den urteak hartuko dira.

Hirugarren: Lehen arauaren arabera eragiketa jakin bakoitzari aplikagarri zaion urteko portzentaia zehazteko, eta bigarren arauaren arabera aipatu urteko portzentaia zein urte kopuruz biderkatu behar den zehazteko, balio gehikuntza agerian jarri zeneko aldia osatzen duten urtebeteak bakarrik hartuko dira kontutan, eta ondorio horietarako, aipatu aldiaren urte zatikiak ezin izango dira kontuan hartu.

VII. ZERGAREN KUOTA

8. Artikulua.-

1.- Zerga honen kuota honako hau izango da, hots, II. Eranskinean adierazten den karga-tasa zerga-oinarriari aplikatzearen ondorioz, hortik suertatzen den emaitza.

2.- Lursailen balioa gehitzearen gaineko eta "Baliokidetasun Tasa" bezala ezaguna den Zerga-modalitatea ordaindu duten subjektu pasiboek eskubidea izango dute, Ordenantza honetan araututako Zergatik ondorioztatzen den kuotatik, beroiek ordaindutako kopurua kentzeko, hurrengo arau hauen arabera:

a) Baliokidetasun Tasaren likidazioak kenketarako eskubidea eman ahal izateko, abenduaren 30eko 3250/1976 Errege Dekretua indarrean sartu ondoren likidatua izan behar du.

b) Abenduaren 30eko aipatu 3250/1976 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik hasita, hamar urteko epealdiei dagokien Baliokidetasun Tasaren likidazioak ordaindu balitu norbaitek, horren zenbatekoa ez litzaioke kenduko hiri-izaerako Lursailen Balioa Gehitzearen gaineko Udal Zergaren Likidaziotik, baina Zerga horrengatik egingo dituen likidazioei buruz esan behar da, horren ezarpen-aldiaren hasierako data, adierazitako hamar urteko modalitateari dagokion epemugaren biharamunean hasiko dela, eta ez dela kontuan hartuko subjektu pasiboak zein datatan erosi zuen inmueblea.

Hala eta guztiz esan behar da, aipatu zergengatik kenkari horren ondorioz ez zaiola ezertxo ere itzuliko subjektu pasiboari, baldin eta Zergaren gaineko kuota eta Baliokidetasun Tasaren kontzeptu arteko diferentzia Administrazioaren aurkakoa izango balitz.

VIII. HOBARIAK.

9. Artikulua.-

1.- Zergaren kuota likidua honako hau izango da, hots, bere kasuan, kuota osoaren gainean hurrengo atalean aipatzen den hobaria aplikatuzetik, ondorioztatzen dena.

2.- Zergaren kuota osoaren %100eko hobaria izango du, lurzoruen transmisioetan, eta jabariaren gozamen mugatzaileko eskubide errealean transmisio edo eratzeetan, dohainak eskuratzeko egiten direnak heriotzagatik ondorengoan edo adoptatuen, ezkontideen edo izatezko bikotearen mesedetan, izatezko bikoteen kasuan, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutakoetan, eta aurreko ahaide eta adoptatzaileen mesedetan, beti ere lortutako ondasuna ohiko etxebizitza balitz, eta horrela izanik, aipatu hobaria adierazitako etxebizitzan bizi izango denaren mesedetan bakarrik aplikatuko litzateke.

Kausatzailearen ohiko etxebizitza dela ulertuko da, haren heriotz datan, hura non erroldatua legokeen kontuan izanda, etxebizitza hura.

Hobariaz gozatu ahal izateko, kausahabitateek, hura zendu aurreko bi urtetan, haren bizikideak izanak izan behar dute, eta ohiko etxebizitzat erabili behar dute, kausatzailea zendu zenetik hasita, gutxienez lau urtean zehar, eta aldi horren barruan, eskuratzailerik ezingo dute eskualdatu, nahiz jabari osokoa, nahiz jabetza soilekoa, nahiz eskubide errealekoa izan, salbu eta eskualdatzea horien heriotzagatik izango balitz.

Zentze-data baino lehenagoko bi urtetan, kausatzailearekin bizikidetasuna izateko baldintza den bezainbatean, hori ez da galdagarria izango hurrengo kasu honetan, hots, kausatzaileak eta ezkontideak beren ezkontza, lehenengoaren zentze-data baino lehenagoko aipatu bi urte horien ondorengo datan ospatu dutenean, edo kausaduna aipatu bi urtetik azpikoa balitz, izan ere kasu horretan, bizikidetasuneko epea ezkontzak iraun duenera mugatuko baita lehen kasuan, eta bigarrenetan, kausadunaren adinera. Hobaria ezagutzeari dagokion bezainbatean, ulertuko da, salbu eta aurkako probarik ez bada, legalki banandu gabe legokeen bere ezkontideak kausatzailearekin bizikidetasuna izan duela, eta baita, kausatzailearen edo bere ezkontidearen ondorengoek edo adoptatuek, adin

txikikoak balira. Gainontzeko kasuetan, artikulua honetan aurrikusitako hobaria eskatzen duen kausadunak, dokumentu bidez, egiaztatu beharko du aipatu bizikidetasuna.

Kausatzaileran ohiko etxebizitza eskuratzekoan, zenbait kausadun egongo balira, banatu gabeko kuoten bidez, jabetza soilean, edo horren jabetza osoan, edo jabetza mugatzen duen gozameneko eskubide errealearen erdiespenean, adierazitako hobaria izateko eskubidea izango dute, bakarrik, kausadun horietatik, ohiko etxebizitza bezala erdietsitako etxebizitzan leudekeen horiek, artikulua honetan aurrikusita dagoenari jarraiki.

Hobariaren eskariarekin batera aurkeztuko da:

- 1.- Eskualdatutako etxebizitza, kausatzailea zendu zen datan, kausatzaile horren ohiko etxebizitza zela egiaztatuko duen dokumentua.
- 2.- Eskuratutako etxebizitza ohiko etxebizitzara destinatzeko aitorpena, hori eskuratu ondorengo lau urtetan, bai horren erdiespena jabetza osokoa bada, bai jabetza soilekoa bada, bai jabetza hori mugatzen duen gozameneko eskubide errealekoa bada.

Baldin eta, artikulua honetan aipatzen den hobariaren onuradunak, edozein titulu bidez, etxebizitza besterenduko balu, lau urte igaro baino lehen, eta hobari hori, justu, etxebizitza horrengatik izan bazuen, Udal honen aurrean aurkeztu behar du, besterentzea gertatu zenetik hurrengo hogeita hamar egunen barruan, inguruabar horren esanbidezko aitorpena, eta dagokion likidazioa egiteko eskatuko du, hobariaren objektu izan zen kuota-zatia itzultzeko, eta horri, bestalde, dagozkion berandutze-interesak aplikatuko zaizkio.

Aitorpena ez egiteak, ezagututako onura fiskala modu desegokian gozatu dela esan nahiko du, eta dagokion espediente zigortzailea irekitzea ekarriko du.

IX. ZERGAREN SORTZAPENA.

10. Artikulua.-

1.- Hona hemen noiz sortuko den zerga:

- a) Lurraren jabetza bizien artean edo heriotzaren zioz eskualdatzen denean, kostubidez edo dohain izanik ere, hain zuzen ere eskualdatzen den datan.
- b) Jabariaren gozamina mugatzen duen edozein eskubide erreal eratu edo besterentzen denean, hain zuzen ere eraketa edo besterentzea egiten den datan.

Aurretik adierazi diren ondorioetarako, besterentzeko data gisa hartuko da:

A.- Bizien arteko egintza edo kontratuetan agiri publikoa ematen deneko data, eta dokumentu pribatuak direnean, horiek errejistro publikoan inskribatzen direnekoa, edo duen lanbidearen arrazoiz, funtzionario publiko baten esku jartzen deneko data.

B.- Heriotzaren zioz egiten diren besterenganatzetan, besterenganatzea sortzen duena hiltzen deneko datan.

2.- Ebazpen irmoaz lurraren eskualdaketa edo beronen gaineko gozameneko ondasun-eskubidearen eraketa edo eskualdaketa sortarazi zuen egintza edo kontratuaren baliogabetze, hutsalketa edo deuseztapena gertatu dela epaibidez edo administrazio bidez adierazi edo aintzatets dadinean, subjektu pasiboak

ordaindutako zergaren itzulketa egin diezaioten eskubidea izango du, beti ere egintza edo kontratu horrek irabazpiderik eman ez badio eta itzulketa, ebazpena irmo hartu zenetik, bost urtetako epearen barruan galda dezanean, bestalde irabazirik badagoela ulertuko da interesatuen aldetik, ez bada justifikatzen, Kode Zibileko 1.295 artikuluan adierazten den gisan, bata bestearenganako itzulketak egin behar dituztela. Egintzak edo kontratuak irabazpiderik sortarazi ez badu ere, hutsalketa edo deuseztapena zergaren subjektu pasiboak bere eginbeharrak ez betetzearen zioz deklaratu bada, ez du itzulketarako biderik emango.

3.- Kontratua, alde kontratatzaileek beren artean adostu dutelako, ondoriorik gabe geratzen bada, ordaindutako zerga ez da itzuliko eta egintza berritatzat hartuko da, zerga ordaintzeko obligazioa duena. Elkarren arteko adostasun bezala hartuko da bai adiskidetze-egintzako adostasuna eta bai demandarekiko amoregite hutsa.

4.- Baldintzaren bat tarteko duten egintza edo kontratuetan, horien kalifikazioa Kode Zibilean agertzen diren preskripzioen arabera egingo da. Etendurazkoa balitz, zerga ez litzateke likidatuko harik eta hura bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, zerga exijitu egingo litzateke noski, baina erreserba batekin, hau da, baldintza betetzen denean, aurreko 3. zenbakiko erregelaren arabera itzulketa egingo litzatekela.

5.- Alkar-poderoso edo ordeinu-ahalmen bidez bideratutako jarauspenetan, zerga sortuko da, ahalmena errebokaezinezko izaerarekin erabilia izaten denean, edo hori iraungitzeko beste kausaren bat gertatzen denean.

Baldin eta alkar-poderosoan edo ahalmen testatzailean, pertsona zehatz baten mesedetan, zerga honi lotutako oinordetzako ondasunak gozatzeko eskubidea emango balitz, eskumen hori erabiltzen ez den bitartean, likidazio bikoitza aplikatuko zaio gozamen horri: Behin-behineko bat, eta hori oinordetza irekitzean sortuko litzateke, hil arteko gozamen-arauengatik, eta behin-betiko beste bat, alkar-poderosoan edo ahalmen testatzailea erabiltzen denean, aldi bateko gozamen-arauen arabera, kausatzailearen heriotzetik iragandako denboragatik, eta behin-behinekoagatik ordaindutakoa, kontura egindako, sarrera gisa hartuko da, eta bestalde, diferentzia usufruktudunari itzuliko litzaioke, emaitza horren aldekoa balitz. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin betiko likidazio hori, oinordekoena egiten den une berean burutu beharko da, eta horiek alkar-poderoso edo ahalmen testatzailea egikaritzearen ondorioz suertatuko dira, edo hura iraungitzeko egon diren gainontzeko arrazoien ondorioz.

X.- ZERGAREN KUDEAKETA.

11. Artikulua.-

Subjektu pasiboek, Udal Administrazioaren aurrean, zegasatik dagokien aitorpena aurkezteko obligazioa izango dute, administrazio horrek emango duen ereduaren arabera, eta horrek zergari dagozkion elementuak izango ditu, eta baita, kuota zehazteko beharrezko eta ezinbesteko izan daitezkeen gainontzeko datuak ere.

12. Artikulua.-

Aitorpena hurrengo epeetan aurkeztu beharko da, zergaren sortzapena gertatzen den datatik hasita:

- a) Bizien arteko egintzak direnean, epe hori hogeita hamar lanegunetakoa izango da.
- b) Heriotza arrazoiagatik diren egintzetan, epea urtebetekoa izango da.

13. Artikulua.-

1.- Aitorpenarekin batera, horri loturik aurkeztu behar da nahitanahiez, ezarpena sortu duten egintzak edo kontratuak azalduko dituen agiria eta hori behar bezala askietsia egongo da.

2.- Eskatutako salbuespenak eta hobariak ere, dokumentu bidez egiaztatu beharko dira

14. Artikulua.-

Udal Administrazioak eskatu ahal izango die pertsona interesatuei, Zergaren likidazioa burutzeko beharrezko irizten den bestelako agiriak aurkez ditzatela hogeita hamar eguneko epean, interesatuak eskaturik beste hamabost egunez luza badaitezke ere, epe horien barruan egindako errekerimenduei erantzuten ez dionak, legozkion arau-hauste eta tributu zehapenak izango ditu, esandako agiriak aitorpena egiaztatzeko beharreko diren heinean. Esandako agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherako egiaztatzeko bitarteko hutsak balira, errekerimenduari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontutan hartu gabe behin-betiko likidazioa egitea ekarriko du.

15. Artikulua.-

11. artikuluan xedatutakoaz at, jarraian adieraziko direnek Udal Administrazioari jakinarazi egin beharko diote, nola zergapeko egitatea gertatu egin dela, eta hori subjektu pasiboek duten epe beraren barruan.

a) Honako Ordenantza Fiskal honetako 6. artikuluaen a) hizkian bildutako kasuetan, baldin eta bizien eta dohaintza-emaile edo eskubide errearen eratzale edo eskualdatzaileen arteko negozio juridikoan gertatu bada.

b) Aipatu 6. artikuluaen b) hizkian aurrikusi diren kasuetan, eskuratzalea bera, edo dagokionaren eskubide erreala bere alde eratu edo eskualdatuta duen pertsona.

16. Artikulua.-

Era berean, Notarioek Udal Administrazioari igortzeko obligazioa dute, derrigorrez, egutegiko hiruhilabete bakoitzeko lehen hamabostaldiaren barruan, aurreko hiruhilabetekoan beraiek baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo indize laburtua, hor egitateak, egintzak edo negozio juridikoak azalduko dira, zeinak agerian utziko duten zerga honen zergapeko egitatea udal barruti barruan, azken borondateko egintzen salbuespenarekin. Aipatu epe barruan igortzeko obligazioa izango dute halaber, aurretik adierazi diren egite, egintza edo negozio juridikoak barne hartuko dituen dokumentu pribatuei buruzko agirien zerrenda, horiek notaritzaren ezagupenerako edo sinadurak legeztatzeko aurkeztu bazaizkio. Artikulu honetan aurrikusitakoak ez diola kalterik eragiten ulertzen da, Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorrean ezarrita dagoen laguntza eskaintzeko obligazioari.

17. Artikulua.-

1.- Udal Administrazioak jakingo balu, aitortu ez den zergapeko egitate bat gertatu dela, 12. artikuluan adierazitako epeen barruan jakin ere, interesatuari aitorpen hori egin dezala eskatuko dio, eta horrek ez lioke kalterik eragingo, aitorpen hori ez egitearen ondorioz egin lezazkeen zergaren gaineko lege-hausteei, eta horren eraginez, horrela balegokio, jarri lezaizkiokeen zehapenei.

2.- Udal Administrazioak aurreko pasartean aurrikusitako errekerimenduak egin arren, interesatuek ez balituzkete dagozkien aitortpenak aurkeztuko, ofiziozkoa izango den espedientea irekiko da, administrazioaren esku dauden datuekin, eta dagokion likidazioa egingo du, eta hor adieraziko da bere kasuan, sarrera zein epetan egin behar den, eta baita hor adieraziko dira jarri daitezkeen helegiteak, eta horrek ez dio kalterik eragingo, egin ahal izan diren lege-hausteei, eta horren eraginez, horrela balegokio, jarri lezaizkiokeen zehapeneei.

XEDAPEN GEHIGARRIA

7.2 artikuluan, bigarren arauan, erabakitako ondoriotarako, eta Ondarezko Transmisioen eta Dokumentatutako Ekintza Juridikoen gaineko Zerga onesten duen Foru Araua indarrean legokeen bitartean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

1.a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioaren arabera dela joko da, urtebeteko epealdi bakoitzeko % 2koa, eta ez du % 70 gainditu behar.

b) Biziarteko gozamenanetan, horren balioa ondasun guztiaren gaineko balioaren % 70koa dela joko da usufuktudunak 20 urte baino gutxiago duenean, eta adina gehitzen doan heinean, hori murrizten joango da urtero % 1eko proportzioan, baina muga hala ere balio osoaren % 10a izango da.

c) Pertsona juridikoaren mesedetan eratutako usufuktua, 30 urte baino gehiagoko eperako ezarriko balitz edo denbora mugagabez, zerga ordaintzeari dagokionez, jabetzaren transmisioa oso gisa hartuko da bainan ebazpeneko baldintzara lotua.

2.- Jabetza berriak duen eskubidearen balioa, gozamenekoak duen balioaren eta ondasunak duen balio osoaren arteko desberdintasunaren arabera konputatuko da. Biziarteko gozamenetan, horiek aldi berean aldi batekoak direnean, jabetza soila honela baloratuko da: aurreko bat zenbakiko erregelen artetik baliorik gutxiena ematen diona aplikatuz.

3.- Erabilera eta biztantzeko eskubide errealeen balioa honako hau izango da, ondasunen balioari dagokion % 75a aplikatzearen ondorioz suertatzen dena, baina ondasun horien gainean aldi baterako edo biziarteko, kasuaren arabera, gozameneko balorazioari buruzko arauk ezarri zitzaizkionaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa.-

Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zergaren oinarri zergapegarria zehazteko, eta ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauean ezarrita bezala, Ondasun Higiezinaren gaineko zergari dagokion balio katastralen berrikustea egiten ez den bitartean, hurrengo balio hauek aplikatuko dira, beharantz ordenatuta:

1) Lurraren balio erreala, hori hain zuzen, arauk ezarrita dagoenari jarraiki, lurralde esleitu dakion gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoaren aplikaziotik datorkiona, izango da. Lurralde esleitu dakion gutxieneko balioaren eta eraikitakoaren arteko erabilera banakatu gabe leudekeen kasuan, hori aplikatu daiteke %60ko beharapenarekin.

2) Zerga hori likidatzeko oinarri gisa honako hau hartu ahal izango da, hain zuzen, Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako ezarrita dagoen balio

katastrala, %60ko murriztapenarekin, baldin eta lurzorua eta eraikuntza balioa desglosatuta ez baleude.

Lurrari esleitu dakiokeen gutxieneko balioaren eta eraikitakoaren arteko erabilera banakatu gabe leudekeen kasuan, hori aplikatu daiteke %60ko beherapenarekin. Interesdunek aitortutako lurra balioa 1. kasuan ezarritako arauak aplikatzen ondorioztatutakoa baino handiagoa izango balitz, zerga horren ondorioetarako, zerga-oinarri izaera izango luke horrek.

Transmititutako balioak eta ondasunak egiaztatzearen ondorioz sor daitezkeen desadostasunak, aipatu balioei dagokien bezainbatean, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean erabaki ahal izango dira, balorazio-prozedura bidez, hain zuzen, kontraesankorra izango den peritazio tasazio bidez; tasazio hori ekainaren 5eko 106/2001 Foru Dekretuan arautua dago, horrek onesten baitu Ondare-eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga.

Aurreko paragrafoan adierazitako balorazio-prozedura egitera jotzen denean, hain zuzen, peritazio tasazio bidez, behin-behineko likidazioa egingo da horren kontura, eta zerga-oinarria subjektu pasiboak aitortutako balioaren arabera zehaztuko da. Behin prozedura amaitutakoan, zerga-oinarria aldatu, eta behin betiko likidazioa egingo da, eta subjektu pasiboari dagokion kopurua eskatu egingo zaio, edo bere kasuan, itzuliko egingo zaio.

Bigarrena.

Toki Zergen Erregimena Aldatzeari buruzko 7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei ez zaie arau hori aplikatuko, eta hori horrela, aurreko arautegia aplikatuko zaie.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatza erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

I. ERANSKINA

EPEALDIA:	URTEKO PORTZENTAIA
5 urte arte	3,7%
5-10 urte arte	3,5%
10-15 urte arte	3,2%
20 urte arte	3,0%

II. ERANSKINA

Baldin eta oinarritzko balioa, Egotzi lekiokien Gutxieneko Balioetik baletorkio	KARGAREN TASA	4%
Gainontzeko kasuak	KARGAREN TASA	30%

SEIGARREN ORDENANTZA FISKALA

ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA LANEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasuna arautzen duen Foru Arauean eta Zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoari jarraiki, Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zerga ezarri eta ordaintzera behartzen du, hori Ordenantza honen arabera egingo da eta horren zati banaezin den Eranskinean datoz jasoak aplikagarri diren tarifak.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.- Zergapetzen duen egitate zergagarria honako hau da, edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako baimen urbanistikoa edo obretakoa eskatzeko obligazioa baldin badago, eta baita lizentzia hori lortuko ez litzatekeen kasuan ere, beti ere hori luzatzea Udal honi balegokio.

4. Artikulua.- Adierazpen gisa esan dezagun, zerga ordaintzera behartuak dauden egitate zergagarriak hauek direla:

- 1.- Lurren mogimenduak, nola diren lurrerauzketa, indusketa eta betelanak, ez baldin bada behintzat behin-betirako onetsitako Urbanizazio Proiektu baten barruan kokatzen.
- 2.- Eraikitze eta instalazioak jartzeko obrak, horiek planta berriak baldin badira.
- 3.- Lehendik dauden eraikin edo instalazioetan egindako berritze, handitze eta hobetze lanak.
- 4.- Behin-behineko izaerako obra edo instalazioak.
- 5.- Eraikin edo instalazioen eraispenerako eta hondakinak kentzeko lanak, ez baldin badira behintzat hurre-hurreko aurri egoeran daudela deklaratuak izan.
- 6.- Zerbitzu publikoak ezarri, berritu, handitu eta hobetzeko lanak.
- 7.- Bide publikoetatik ikus daitezkeen propagandako kartelak jartzea eta publizita-kartelak edo publizitate-hesiak.
- 8.- Ahalmen ekonomikoa azaltzen duen baliabideen inbertsioa egiten bada edozein obra, eraikuntza edo instalazioan, eta lizentziaren beharra dagoenean, Lurzoruaren Legeko Testu Bateratuaren 242 artikuluan aurrikusten den bezala, hori ekainaren 26ko 1/1992 E.D. Legislatiboz izan zen onetsia.

5. Artikulua.- Jabetzako titularitatea Udal honena izanik zenbait inmiebleen gainean eraikuntza, obra eta instalazioak egingo balira, horiek ez lirateke zerga honi loturik geratuko, beti ere obraren jabetza bere gain egongo balitz behintzat.

III. SUBJEKTU PASIBOAK.

6. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun tiutuluaren arabera, hurrengo pertsona fisiko, pertsona juridiko edo erakundeak, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluaen arabera, eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak direnak, nahiz eta horretarako ez daukaten zergatik izanik, hori kokatzen den higiezinaren gaineko jabetzarik.

Aurreko paragrafoan aurrikusitako ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabe dela joko da, hori egiteko kostua edo gastua bere gain hartzen duena.

7. Artikulua.-

1.- Zergadunaren ordezeko subjektu pasiboak direla joko da, eraikuntzak, instalazioak edo obrak egin edo horiei dagokion lizentziak eskatzen dituztenak, baldin eta eraikuntza, instalazioa edo obra zergadunak berak ez balu egingo.

2.- Ordezkoak zergadunari eska lezaioke, ezen ordaindutako zergaren kuotaren zenbatekoa itzul diezaiola.

IV. ZERGA-OINARRIA

8. Artikulua.-

1.- Zergaren oinarria eraikuntza, instalazio eta obraren benetako kostuak ematen du, eta ondorio horietarako ulertzen da, hori, haren exekuzio materialaren kostuaren arabera dela.

2.- Aurreko atalean erabakitakoaren ondorioetarako, zerga-oinarria, horren gainean egingo baita behin-behineko likidazioa, eraikuntzako obren eta ingurua urbanizatzeko obra arrunten Exekuzio Materialeko Aurrekontua izango da.

Ez da zerga-oinarriaren barne sartuko, Segurtasun Azterketari eta Kalitatearen Kontroleko Programari dagokion Exekuzio Materialaren Aurrekontua, ezta B.E.Z.-a, eta ezta ere erregimen berezikoak liratekeen antzeko beste zergak, ez tasak, ez prezio publikoak eta ez izaera publikoko ondarezko beste eskaintzak, horiek eraikuntzarekin, instalazioekin edo obrarekin zerikusia balute, eta ezta ere, profesionalen zerbitzu-sariak, kontratistaren enpresa-onura, eta ezta exekuzio materialaren kostuan, hertsiki, sartzen ez den edozein kontzeptu.

3.- Udal Baimenik gabe egindako Eraikuntza, Instalazio eta Obrak diren kasuan, Zerga Oinarriaren zehaztapena Udal Administrazioak berak finkatuko du.

V. ZERGAREN KUOTA.

9. Artikulua.- Zerga honen kuota, oinarri zergagarriari Eranskinean adierazten den zerga-tasa aplikatzearen ondorioz suertatzen den emaitza izango da.

VI. HOBARIAK

10. Artikulua.- Zergaren kuota gainean, hurrengo hobariak aplika daitezke:

- 1.- % 95eko hobaria aplikatuko da, udal interes edo erabilera berezikoak bezala deklaratuak izan diren eraikuntza, instalazio edo obrak direnena, baldin eta aitorpen hori, inguruabar sozial, kultural edo historiko-artistikoek, edo enplegu-sustapenerako arrazoiek justifikatuko balute, baina hala ere, Tributuen Kudeaketa eta Ikuskaritza Atalak emandako aldeko aitorpena beharko da.
- 2.- 100tik 95eko hobaria, jadanik eraikitako eraikin eta instalazioetan, eguzki-energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikoa jasotzeko sistemak jartzen dituztenentzat.

Hobari hori aplikatu ahal izateko baldintza izango da ezen, eskumena duen administrazioak emandako homologazioa izan dezatela aipatu instalazioek. Hobari hori, helburu horretarako erabiltzen den kopuruaren gainean bakarrik, praktikatuko da, eta aurreko letran adierazitako hobaria aplikatuzetik suertatuko den kuotari aplikatuko zaio, bere kasuan.

- 3.- % 90eko hobaria, ezgaituen sarbide eta bizigarritasun baldintzak jartzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obren mesedetan. Hobari hori soilik, helburu horretarako destinatzen den zenbatekoaren gainean, praktikatuko da, eta baldin eta obrak ez balira obra berriaren proiektu batean barne sartuko, eta horiek bananduta egingo balira.

VII. SORTZAPENA.

11. Artikulua.- Zerga, eraikuntza, instalazio edo obra hasten den momentuan, sortuko da, nahiz eta dagokion lizentziarik lortu ez bada ere.

VIII. KUDEAKETA.

12. Artikulua.- Aplikagarria izango da subjektu pasiboak ordaindu duen edo ordaindu behar duen zenbatekoaren kenkaria, hain zuzen, eraikuntza, instalazio eta obrari dagokion hirigintzako lizentzia emateagatiko tasaren kontzeptupean ordaindutakoa, eta kenkari hori hobaria izan duen kuotaren gainean aplikatuko da, 10.1 artikulua kasuetan, udal interesagatik eta Zerga Kudeaketa eta Ikuskapen Atalak emandako aldeko aitorpenaren ondoren.

13. Artikulua.-

1.- Dagokion lizentzia ematen denean, edo oraindik, beharrezko den aipatu lizentzia hori eskatu, eman edo ukatu gabe egon arren, eraikuntza, instalazioa edo obrari hasiera ematen zaionean, behin-behineko likidazioa egingo da, Zerga Oinarria zehaztu ondoren.

2.- Aurretik esandakoaz gain, interesatuek adieraziko balute modu agerikoan obraren egikaritza, zeinetarako eskatzen den baimena, dagokion Erakunde Ofizialak obra horiek egiteko emango duen dirulaguntzari baldintzaturik dagoela, nola diren etxebizitzak birgaitzeko lanak, fatxaden konponketako lanak etab., 3 hilabetez atzeratuko da behin-behineko kitapenaren eginkizuna Obra egiteko eman zen baimenaren datatik hasita, horiek igarotakoan, hori praktikatu egingo da, baldin

eta emandako Obren Lizentziari esanbidezko errenuntzia egin ez badiote interesatuek.

14. Artikulua.-

Dagokion lizentzia eman ondoren, hasierako proiektua aldatu egingo balitz, aurrekontu berri bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazio berri bat praktikatu ahal izateko, aldatutako aurrekontuaren arabera lehenengoa gainditzen duen kopuruan.

15. Artikulua.-

1.- Benetan eginda leudekeen eraikuntza, instalazio eta obrak ikusirik eta horiek benetan euki duten kostu erreala jakinik, Udal Administrazioak, egoki den egiaztapen administratiboaren bitartez, aldatuko egingo du, bere kasuan, zerga-oinarria, eta gainera behin-betiko likidazioa praktikatu, eta subjektu pasiboari galdatu egingo dio, edo bere kasuan, legokion kopurua itzuliko dio.

2.- Aurreko atalean xedatutakoaren ondoriotarako, obra amaitu ondorengo hurrengo hilabetearen barruan edo horren behin-behineko harreraren barruan, Udal Administrazioak emango duen inprimakian inguruabar horren berri emango da, horri obraren zuzendari eskudunaren ziurtapena erantsiko zaio, eta legokion kolegio profesionalak ikus-onetsia izango da, baldin eta bideragarria bada, horren bidez obren kostu osoa egiaztatuko da, barne direlarik, proiektuaren eskubide eskudunak eta horien eraginez egon daitezkeen zuzendaritza, onura industrialak eta gainontzekoak.

16. Artikulua.- Zergaren gaineko kitapenaren ondoriotarako, isiltasun administratibo positiboa aplikatzearen ondorioz emandako baimenak, esanbidez emandako baimenak duen ondorio bera izango du.

17. Artikulua.- Udalak zerga hori, autolikidazio erregimenean, galdatu ahal izango du, eta zehazki, obra txikien likidazioak direnean, partikularrek etxebizitzetan eginak, eta zenbatekoa 12.020,00 € baino txikiagoa denean, autolikidazio sistema bidez izapidetuko dira, Hiritarren Arretarako Bulegoan, hurrengo zerga oinarriaren zehaztapenarekin:

ZERGA-OINARRIAREN ZEHAZTAPENA, HAIN ZUZEN, OBRA TXIKIEN BAIMENARI DAGOKION EIOZ-REN AUTOLIKIDAZIOETAN EGITEN DENA, HAIB-AREN PROZEDURA BIDEZ EGITEN DENEAN.

Aplikatzen den Arau Orokorra: Obren Exekuzio Materialeko Aurrekontuak, orokorki, ondoren adieraziko diren balorazio-moduluak aplikatzetik ondorioztatzen denaren berdina edo nagusiagoa izan beharko du, eta EIOZ-en autolikidazioa aipatu moduluetan oinarrituta egingo da, baina hala ere horrek ez dio kalterik eragiten, obren aurrekontua aurkeztu beharrari. Sukaldetako obrak diren kasuan, gutxieneko azalera 7 m².koa dela joko da, eta bainuetakoak direnean, 4m².koa.

Hondar-aplikazioa: Baldin eta obren aurrekontuan, hemen adierazitako balorazio-moduluetan bereziki agertzen ez diren diru-atalak, egongo balira, EIOZ-ren autolikidazioa praktikatzekoan, moduluen aplikaziotik lortutako diru-atalei, horietan barne sartu gabekoak gehituko zaizkio.

Erreferentziazko moduluak: EIOZ-ren autolikidazioei dagozkien Exekuzio Materialeko aurrekontuak, erreferentziazko hurrengo moduluen berdinak edo nagusiagoak izango dira:

ERREFERENTZIAZKO MODULUAK	
1.- Sukalde eta bainugelaren birgaiketa osoa Konputagarri izango den gutxieneko azalera, honako hau izango da: -sukaldea: 7m ² -bainugela: 4m ²	875,10 €/m ² ERAIKITAKOA
2.- Lehioak aldatzea	560,30 €/UNITATEA
3.- Blindatu gabeko ateak aldatzea	208,40 €/UNITATEA
4.- Blindatutako ateak aldatzea	856,50 €/UNITATEA
5.- Dornadura aldatzea	68,10 €/m ²
6.- Zoruko lauzak aldatzea	47,40 €/m ²
7.- Hormetako alikatatua aldatzea	47,40 €/m ²
8.- Instalazio elektrikoa berritzea	23,70 €/m ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.
9.- Berotze sistema jartzea edo ur beroaren ekoizpena.	61,90 €/m ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.
10.- Horma eta sabaiak pintatzea	45,40 €/m ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.
11.- Eskaiolaz, sabaizuna eta erlaitzak egitea	34,00 €/m ²
12.- Egiturazko aldaketarik egin gabe, trenkada-multzoa aldatzea	317,80 €/m ² AFEKTATUTAKO EREMU BIZIGARRIAN ERAIKITAKOA.

Erreferentziazko moduluak eguneratzea: Urtero, Ordenantza Fiskalak onesteko ezarrita dagoen prozedurari jarraiki, erreferentziazko moduluen eguneratzea egingo da, EIOZ-ren autolikidazioaren zerga-oinarria zehaztu ahal izateko, HIAB prozedura bidez ematen diren lizentzientzat.

18. Artikulua.- Lizentzia baten titularra denak, baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari uko egingo balio, idatziz egindako esanbidezko

errenuntzia bidez, Udalak praktikatutako behin-behineko kitapenari dagokion guztia ezabatu edo itzuliko dio.

19. Artikulua.- Lizentzia bat iraungitakoan, Udalak praktikatutako kitapenari dagokiona itzuli edo ezabatu egingo du, baldin eta titularrak ez badu behintzat horren berrikuntza eskatu eta Udalak ematen.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengo.- Toki Zergen Erregimena Aldatzeari buruzko 7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei ez zaie arau hori aplikatuko, eta hori horrela, aurreko arautegia aplikatuko zaie.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(2008ko irailaren 25an eta 2009ko irailaren 24an Udalbatzak aldatua)

E R A N S K I N A

APLIKATUKO DEN ARAUA	KARGAREN TASA
OROKORRA	%5
ETXEBIZITZETAN < 18.000€ KONPONKETA ETA HOBEEKUNTZA OBRAK	%4
JABEEN ELKARGOEN KONPONKETA ETA HOBEEKUNTZA OBRAK ELEMENTU KOMUNETAN	%2

ZAZPIGARREN ORDENANTZA FISKALA

HIRIGINTZAKO DOKUMENTAZIO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO ZERGA

I. ARRAZOIA ETA IZAERA

1. Artikulua.- Ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauak, horrek arautzen ditu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek Hirigintzako Zerbitzuen tasa ezartzen du, tasa hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du, eta horko arauak lehen aipatutako Foru Arauaren 20. artikuluan aurrikusitakoa jasotzen dute.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.- Tasaren egitate zergagarria honako hau izango da, hirigintzako zerbitzuak ematera zuzendutako udal iharduera, bai teknikoak bai administratiboak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. Artikulua.- Zergadunak izango diren subjektu pasiboak izango dira, bai pertsona fisikoak edo juridikoak bai Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikulua aipatzen dituen entitateak.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 40 eta 41 artikuluetan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboak dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, lehiaketetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaia Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

IV. ZERGAREN KUOTA

5. Artikulua.- Zergaren tasa, hurrengo Tarifaren aplikaziotik ondorioztatzen dena izango da:

KONTZEPTUA	TARIFA
1.- Hirigintza-partzelazioaren lizentzia tramitatzea.	133,08 €
2.- Obra-lizentzia izapidetzea	
2.1.- EMA < 6.010,12 duten obrak	SALBUET SIK
2.2.- EMA >6.010,12 eta < 30.050,61 duten obrak	1,0%
2.3.- EMA > 30.050,61 eta < 60.101,21 duten obrak	1,1%
2.4.- EMA >60.101,21 eta < 90.151,82 duten obrak	1,2%

2,5.- EMA > 90.151,82 eta < 120.202,42 duten obrak	1,4%
2,6.- EMA > 120.202,42 duten obrak	1,6%
Obrak amaitutakoan, Udal Administrazioak egokia den behin betiko likidazioa egingo du, eta horretarako likidazio osagarria igorriko dio, edo bere kasuan, legezko tasak itzuliko lizkioke.	
2.7.- Emandako baimenaren luzamendua eskatzea, horko beste baldintzarik aldatu gabe	40,22€
3.- Lehen Erabilerako lizentzia izapidetzea	175,89€
4.- Publizitate kartelak instalatzeko Baimenak tramitatzea:	
a).- 12 m2 arte.	302,06€
4.2.- 12 m2 baino gehiago, 24 m2 arte.	604,00€
4.3.- 24 m2 baino gehiago, aurreko kopuruaz gain (4.2) m2 edo zatiki bakoitzeko	14,27€
Tasa horiek zergapetuko dute Baimena ematea, eta behin bakarrik ordainduko dira, baimen hori ematen den unean hain zuzen ere, eta hori indarrean egongo den epealdi osorako balio du. Baina Baimena luzatu egingo balitz , berriro sortuko da tasa, baina oraingoan zergak, baimena emateko unean zuen kuotaren %50a, izango du.	
5.- Eraikuntzako Elementuaren erabilera aldatzeko baimena	28,99€

V. SALBUESPENAK ETA HOBARIK

6. Artikulua.- Tasaren ordainarazpenean ez da inolako salbuespenik ez hobaririk onartuko.

VI. SORTZAPENA

7. Artikulua.- Egitate zergagarria osatzen duen udal iharduerari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa. Ondorio horietarako, jarduera horri hasiera eman zaiola joko da hirigintzako zerbitzuen eskaria aurkezten den datan, baldin eta subjektu pasiboak esanbidez eskatuko balu hori.

2.- Zergak ordaintzeko betebeharra sortu ostean, ez du harengan eraginik izango eskatzaileak uko egiten badio edo onartzen ez badu behin lizentzia eman ostean.

VII. AITORPENA

8. Artikulua.- Hirigintzako zerbitzuren bat nahi luketen pertsona interesatuek, aurretiaz, dagokion eskaria aurkeztuko dute hirigintzako zerbitzuaren izaera zehazki adieraziz.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9. Artikulua.- Tasa auto-kitapen erregimenean galdu ahal izango da.

IX. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. Artikulua.- Zergari buruzko arauhauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaia Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 186. artikuluan eta ondorengoetan xedatua dagoena hartuko da kontutan.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(2008ko irailaren 25an eta 2009ko irailaren 24an Udalbatzak aldatua)

ZORTZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

IBILGAILUAK IBILGETU, KROKATU ETA BIDE PUBLIKOTIK ERRETIRATZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEARI DAGOKION TASA, HALA NOLA, HORIEK UDAL LOKALETAN EGOTEARI DAGOKIONA

I. ARRAZOIA ETA IZAERA

1. Artikulua.- Bizkaiko Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, Ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek Bide Publikotik ibilgailuak erretiratu eta biltokietan gordetzeko zerbitzua eskaintzeagatik Tasa ezartzea erabaki du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.- Tasaren zergapeko egitate honako hau dela ulertuko da, hau da, udal zerbitzuak eskaintzeagatik beharrezko diren baliabide pertsonal eta materialak erabiltzea, ibilgailuak ibilgetu, kroatu eta bide publikotik erretiratzeagatik, hala nola erabakiko diren biltokietan gordetzearren sortutako lanei aurre egiteagatik, hori egingo da bestalde, zirkulazioko arauak hausten direlako edo ibilgailua abandonatu egin delako arrazoiz zirkulazio librea eragotzi, oztopatu edo horri traba egiten dionean.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. Artikulua.- Tasa hau ordaintzeko obligazioa izango dute solidarioki, ibilgailuen edozein titulu izanik horien jabe, erabiltzaile edo edukitzaile denak, baldin eta horrek udalaren partehartzea eragiten badu.

IV. ZERGAREN KUOTA

4. Artikulua.- Zergaren kuota, hurrengo tarifaren arabera izango da:

a) Bide publikotik erretiratzeagatik	99,00€
B) Ibilgailuak gordetzearren, eguneko	10,00€/eguna
C) Garabiaren zerbitzuagatik, hori gauzatzen ez denean, gidaria bertan egotearren	59,00€
D) Ibilgailua ibilgetzea	33,00€

5. Artikulua.- Tasa, zerbitzua eskaintzen hasten den momentutik, sortuko da.

VI. KUDEAKETAKO ARAUAK.

6. Artikulua.-

1.- Udalak auto-kitapeneko sistema bidez galdatuko du tasaren ordainketa. Ondorio horietarako, subjektu pasiboak dagokion autokitapena aurkeztu beharko du Udal

Administrazioak emango dion ordainagiria beteaz, eta Udal Biltokitik ibilgailua erretiratu aurretik, Udaltzaingoaren Bulegoetan horri dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du.

2.- Tasaren ordainarazpen kasuan ere Udalak tasa horren ordainketa autolikidazio sistema bidez galdatzen du, ibilgailua benetan erretiratua izan ez den kasuan, 4. artikuluan aurrikusitako c) tarifyan aurrikusita dagoenaren arabera. Ondorio horretarako subjektu pasiboak Udaltzaingoko Agenteak emango dion inprimakian egindako autolikidazioa aurkeztuko du eta dagokion zenbatekoa egintza berean ordainduko du, eta hori, zerbitzua eskaintzeko arrazoia eman duen ibilgailua haren eskuetan jarri aurretik egin beharko da.

VII. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

7. Artikulua.- Ibilgailu lapurtuek ez dute tasarik ordaindu beharrik izango, baina inguruabar hori egiaztatu egin beharko da, hain zuzen ere, arrazoi horregatik jarritako salaketaren kopia aurkeztuz.

VIII. SARRERAK

8. Artikulua.- Tasa ordaindu arren, horrek ez du libre uzten bat, zirkulazioko arauak edo Hiriko Poliziaren arauak haustearren legozkion zehapenetatik.

IX. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. Artikulua.- Zergari buruzko arauhauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaia Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 186. artikuluan eta ondorengoetan xedatua dagoena hartuko da kontutan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

BEDERATZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

ESTOLDERIA ETA UR HARTUNEAREN ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASA

I.- IZAERA ETA ARRAZOIA.

1.- Artikulua.- Bizkaiko Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, Ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek estolderia eta ur hartunearen zerbitzua eskaintzeagatik kobratuko den Tasa ezartzen du eta hori Ordenantza Fiskal honek aratuko du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

2. Artikulua.-

a).- Udal jarduera, bai teknikoa bai administratiboa, baldin eta horrekin egiaztatu nahi bada, udal estolderiaren sarera lotzeko baimena eman dadin beharrezko balidintzarik badagoen.

b) Iraizkinak, euri-urak, ur beltzak eta zikinak, udal estolderiako sarearen barnera, hustutzeko eskaintzen den zerbitzua eta horien arazketa egiteagatik eskaintzen dena.

c) Udal jarduera, bai teknikoa bai administratiboa, baldin eta horrekin egiaztatu nahi bada, etxebizitza eta lokaletarako ur hartunearen baimena eman dadin beharrezko balidintzarik badagoen.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

3. Artikulua.-

1.- Zergadunak izango diren subjektu pasiboak izango dira, bai pertsona fisikoak edo juridikoak bai Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatzen dituen entitateak, kasu hauetan:

a) Estolda-sare eta ur-sare hartunereako lizentzia ematen denean, horren jabeak, usufruktudunak, edo finkaren titularitatea edo onurazko jabaria duenak.

b) Aurreko artikuluko b) ataleko zerbitzuak eskaintzen diren kasuan, udal barrutiko finkak okupatzen edo erabiltzen dituztenak, baldin eta zerbitzu horien onuradun badira, edozein delarik ere horien titulua: bai jabedunak, bai usufruktudunak, bai habitazionistak bai maizterrak, baita titulu horiek prekarioan badira ere.

2.- Edozein modutara, inmueble horien jabea subjektu pasibo gisa hartuko da, hain zuzen ere, lokal edo etxebizitzaren okupatzaile edo erabiltzailearen ordezkoa, jabedun horiek bestalde, zerbitzuaren onuradunak direnen gainean kargatu ahal izango dituzte ordaindutako kuotak.

IV. ARDURADUNAK.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, lehiaketetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

V. ZERGAREN KUOTA.

5. Artikulua.- Zerbitzu horiek eskaintzeagatik, hurrengo tarifa aplikatuko da:

TARIFA

a) Estolderia sarera lotzea:	
1. Etxebizitza	117,05€
2.- Lonjak	104,77€
3.- Industriak orokorrean, 5 langile arte	104,77€
4.- Industriak orokorrean, 6 eta 10 langile artean	174,78€
5.- Industriak orokorrean, 11 eta 25 langile artean	278,53€
6.- Industriak orokorrean, 26 eta 50 langile artean	418,20€
7.- Industriak orokorrean, 51 eta 100 langile artean	627,41€
8.- Industriak orokorrean, 101 eta 200 langile artean	906,28€
9.- Industriak orokorrean, 201 eta 350 langile artean	1184,82€
10.- Industriak orokorrean, 351 eta 500 langile artean	1532,67€
11.- Industriak orokorrean, 501 eta 750 langile artean	1881,20€
12.- Industriak orokorrean, 751 eta 1000 langile artean	2229,41€
13.- Industriak orokorrean, 1001 eta 1500 langile artean	2786,82€
14.- Industriak orokorrean, 1501 eta 2000 langile artean	3483,44€
15.- Industriak orokorrean, 2000 langiletik gora	4180,17€
16.- Gainontzeko lokalak	61,36€
B) Estolderia Erabiltzeagatik dagoen Tasa, m3 edo zatiki bakoitzeko	0,10€

Gutxienezko kuota, hiruhilabetea, 25 m ³ .gatik, eta hortik gorakoa hurrengo tarifaren arabera	2,27€/hiruhilabetea
C) Ur hartuneak:	
1.- Indibidualak	160,24€
2.- 14 etxebizitza arteko eraikuntzak	320,47€
3.- 15 eta 24 etxebizitza arteko eraikuntzak.	641,05€
4.- 25 eta 34 etxebizitza arteko eraikuntzak.	961,64€
5.- 35 eta 44 etxebizitza arteko eraikuntzak.	1578,12€
6.- 45 eta 54 etxebizitza arteko eraikuntzak.	1972,59€
7.- 55 eta 64 etxebizitza arteko eraikuntzak.	2367,15€
8.- 65 eta 74 etxebizitza arteko eraikuntzak.	2736,94€
9.- 75 etxebizitzetatik gorako eraikuntzak	3082,18€
10.- Industriak orokorrean, 5 langile arte	160,24€
11.- Industriak orokorrean, 6 eta 10 langile artean	267,40€
12.- Industriak orokorrean, 11 eta 25 langile artean	426,04€
13.- Industriak orokorrean, 26 eta 50 langile artean	639,45€
14.- Industriak orokorrean, 51 eta 100 langile artean	959,57€
15.- Industriak orokorrean, 101 eta 200 langile artean	1386,08€
16.- Industriak orokorrean, 201 eta 350 langile artean	1812,12€
17.- Industriak orokorrean, 351 eta 500 langile artean	2344,07€
18.- Industriak orokorrean, 501 eta 750 langile artean	2877,29€
19.- Industriak orokorrean, 751 eta 1000 langile artean	3409,69€
20.- Industriak orokorrean, 1001 eta 1500 langile artean	4238,02€
21.- Industriak orokorrean, 1501 eta 2000 langile artean	5327,49€
22.- Industriak orokorrean, 2000 langiletik gora	6393,22€
23.- Gainontzeko lokalak	61,36€
D) Udal lantaldeak egindako lotuneak, Udal sare orokorrera.	
Diametroa 1 1/2"	307,74€
Diametroa 1"	351,72€
Diametroa 1 1/2"	395,71€
Diametroa 2"	439,68€
Diametro handiagoa	527,63€

E) Edateko uraren lotunetik mozketak, matxurei urgentziaz arreta egiteko.	154,00€
--	----------------

VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIK.

6. Artikulua.- Tasaren ordainarazpenean ez da inolako salbuespenik ez hobaririk emango.

VII. SORTZAPENA.

7. Artikulua.-

1.- Zergapeko egitatea osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa, eta horri hasiera eman zaiola ulertuko da:

- a) Hartunearen lizentziari dagokion eskaria aurkezten den datan, baldin eta subjektu pasiboak hori esanbidez formulatuko balu.
- b) Hartunea estolda-sare edo hustubideari eraginkorki lotzen zaion unetik aurrera. Tasaren modalitate honen sortzapena edozein modutara gertatuko da, bai hartunearen lizentzia lortua izan bai lizentzia hori lortua ez izan, eta horrek ez dio kalterik eragiten bestalde, hori baimentzeko izapidetu daitekeen administrazioko espedienteari.

2.- Iraizkinak, euri-urak, ur beltzak eta zikinak udal estolderiako sarearen barna hustutzeko eta horien arazketa egiteko zerbitzuak derrigorrezkoak dira udalerriko finka guztietan, baldin eta horien fatxadak kalera, plazara edo bide publikora ematen badute eta estolderiarik balego eta sarearen eta finkaren artean 100,- metro baino gehiagorik ez balego, eta tasaren sortzapena gertatuko da, nahiz eta interesatuek sarerako hartunerik egin ez.

VIII. - AITORPENA, LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

8. Artikulua.-

1.- Zergadunaren ordezkodiren subjektu pasiboek, tasaren subjektu pasiboen erroldan, formulatuko dituzte alta eta baje aitorpenak, finkaren titularitean aldaketa gertatu den data eta hurrengo hilabete naturaleko azken egunaren arteko epealdian. Azken aitorpen horiek indarra izango dute, aipatu alta eta baje aitorpen horiek aurkezteko epea amaitu ostean, praktikatuko den lehen kitapena egiten denetik aurrera.

Errolda barruan lehendabizikoz, ofizioz, jasoko da, behin sarera lotzeko lizentzia ematen denean.

2.- Exijitu daitezkeen kuotak kitatu eta kobratzeko orduan, uraren horniketa eta kontsumoko errezibuek duten epealdi bera hartuko da kontuan eta kobrantzako epea ere bera izango da eta Ur Partzuergoak izapidetuko ditu.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

HAMARGARREN ORDENANTZA FISKALA

AGIRI ADMINISTRATIBOAK LUZATZEARI BURUZKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. ARRAZOIA ETA IZAERA.

1. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek udalerriko agiri administratiboak luzatzearen gaineko Tasa ezartzen du, eta hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du, hain zuzen, horri dagozkion arauak aipatu Foru Araueko 20. artikuluan aurrikusten baitira.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.-

1.- Tasa honek jarduera administratibori dagokion zergapeko egitatea zergapetzen du, horrek alderdi baten eskariz administrazioak izapidetzen eta luzatzen duen edozein agiri mota hartzen du barne, eta Administrazioak edo Udal Agintariek egin behar dituzten espedienteak.

2.- Ondorio horietarako, edozein agiri administratibo alderdi baten eskariz izapidetua izan dela ulertuko da partikular batek eragindakoa izan bada edo horren onuran izan bada, nahiz eta interesatuaren esanbidezko eskaririk egon ez.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren Entitateak, baldin eta agiri edo espediente bat izapidetzea eskatzen badute beren intereserako.

IV. ARDURADUNAK

4. Artikulua.-

1.- Zergaren gaineko Foru Arauaren 40 eta 41 artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, lehiaketetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Zergaren gaineko Foru Arauaren 42. artikuluan adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

V. ZERGAREN KUOTA

5. Artikulua.-

1.- Zergaren kuota, izapidetu behar diren agiri edo espedienteen izaeraren arabera seinalatutako kopuru finko batek zehaztuko du, hurrengo artikuluan agertzen den tarifaren arabera.

2.- Tarifaren kuota izapidegintza osoari dagokio, une bakoitzean izapidetzen den agiri edo espedientearena, horren izapidegintzaren hasieratik amaitu bitartean, hor barne sartzen dira emandako ebazpenaren ziurtapena egin eta interesatuari jakinaraztea.

6. artikulua. TARIFA

TARIFEN KOADROA

1.- Lurzoruaren sailkapenari buruzko edo higiezin kalifikazio urbanistikoari buruzko ziurtagiria, eta lurren edo eraikinen kalifikazio urbanistikoaren zedula (barne direla bai erantsiak, bai grafikoak, bai literalak).	24,70€
2.- Eraikinen egoera urbanistikoari buruzko ziurtagiria, eta higiezin kale edo zenbakian izendapena.	8,20€
4.- Plano topografikoaren fotokopia paper arruntean.	
DIN-A-3 arteko neurrian (kolorebakarra)	1,00€
DIN-A-3 arteko neurrian (kolorez)	1,00€
DIN-A-2 neurrian edo handiagoan (kolorebakarra)	3,10€
4.- Eraikineko planoaren edo jardueraren fotokopia paper arruntean (kolorebakarra)	
DIN-A-3 arteko neurrian	3,10€
DIN-A-2 neurrian edo handiagoan	6,20€
5.- Lursailaren plano inprimatua, paper zurian, zenbait tinta desberdinez	
DIN-A-4 neurrian	2,00€
DIN-A-3 neurrian	4,10€

DIN-A-3 baino neurri haundiagoan	14,50€
6.- H.A.P.O.-aren dokumentu grafiko inprimatua, Idem eta kartografia:	
DIN A-4:	3,10€
DIN A-3:	5,10€
Gorena (gehienez DIN-A-0)	22,70€
7.- Udal kartografia euskarri magnetikoan ematea, DGN formatoan, idem H.A.P.O.-ko planoak (mimutagatik edo plano osoagatik)	
Eskala 1:500 0,30 euro/Disketea) plano bakoitzeko	6,20€
Eskala 1:500 (2,50 euro/CD) plano bakoitzeko	6,20€
DEXF edo DWG formatura bihurtzea, plano bakoitzeko	1,00€
8.- Sare geodesikoaren aipamena, sestraketa puntuak, triangeluketa, doitasuneko poligonalak eta nibelazio geometrikoko kotak (aipamenaren fotokopia eta krokisa barne direla), unitateko	2,00€
9.- Arau urbanistikoak euskarri magnetikoan ematea (disketea edo CD ROM)	21,70€
10.- Euskarri magnetikoan ematea, DGN formatuan, udal kale-izendegia edo kartografia osoa edo hautatutako eremua, udalerrri osoa kontuan hartuta:	
Kale-izendegia	36,00€
Udalerria:	256,00 €
11.-Administrazio agirien fotokopiak luzatzeagatik:	
+1 edo 2 fotokopia.....	SALBUETSITA
2 fotokopia baino gehiago:	0,10€
12.- Partzela-plano inprimatuak	
DIN A4	3,10€
DIN A3	5,10€

DIN A0	22,70€
13.- Administrazio-kontratazioko prozeduran barne sartutako proiektuei buruzko planoen fotokopia.	4,10€
14.- Hirugarren batek eskatuta, Udaltzaingoak emandako txosten eta atestatuak	36,00€
15.- Udal datu-baseko informazio alfazenbakizkoa, bai katastrala bai jarduera ekonomikoarena (erregistrotik)	0,20€
16.- Zedula katastrala ematea.	3,10€
17.- Hautaketa prozesuetan, azterketa eskubideengatikotasak, Basauriko Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko: Lehiatuko den lanpostuari dagokion taldearen arabera zehaztuko da tarifa, hurrengo taula honen arabera:	
A1 Taldea	20,68 €
A2 Taldea	16,54 €
C1 Taldea	12,40 €
C2 Taldea	8,27 €
E edo AP Taldeak	4,14 €
Langabezia daudenek, eta hori enplegua eskatzeko txartelaren bidez egiaztatu beharko dute, eta barne-sustapeneko txanda bidez parte hartuko dutenek ez dute tasarik ordaindu beharko.	
Tasaren ordainketa modu nominalean eta banan-banan egin beharko da, izangaiak aurkeztu nahi duen lanpostu bakoitzeko.	

VI. KUOTAREN HOBARIAK

7. Artikulua.- 1/2004 Foru Arauaren II. Tituluan aipatzen diren irabazi asmorik gabeko erakundeek %50eko hobaria izango dute, baina inguruabar hori egiaztatu egin beharko dute.

VII. SORTZAPENA

8. Artikulua.-

1.- Tasa sortzen da, eta beraz ordaintzeko obligazioa sortzen da, zergari loturik dauden agiri eta dokumentuen izapidegintzari hasiera ematen dion eskaria egitean.

2.- Bigarren artikuluko 2 zenbakian aipatzen diren kasuetan, udal iharduera ofizios hasteko inguruabarrak ematearen ondorioz gertatzen bada sortzapena edo

interesatuak aurretik eskatu gabe hasten bada bainan haren onuran suertatzen denean.

VIII. AITORPENA ETA SARRERA

9. Artikulua.-

1.- Tasa autolikidazio erregimenean galdatuko da.

2.- Udal Administrazioak luza ditzakeen ziurtapenak edo agiriak, horiek Auzitegi edo Epaitegietako ofizioei jarraiki egiten direnean eta edozein delarik ere auzi mota, ez zaio hura inori entregatu edo igorriko aurretik zergari dagokion kuota ordaintzen ez duen bitartean.

IX. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. Artikulua.- Zergari buruzko arauhauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 186. artikuluan eta ondorengoetan xedatua dagoena hartuko da kontutan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2010eko ekainaren 24ko osoko bilkuran.)

HAMAIKAGARREN ORDENANTZA FISKALA

UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASA.

I.- IZAERA ETA ARRAZOIA.

1. Artikulua.-

Bizkaia Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek Udal Hilerriko zerbitzuak eskaintzearen gaineko Tasa dauka ezarrita, eta hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

2. Artikulua.-

Tasa honek Udal Hilerriko zerbitzuak eskaintzeari dagokion zergapeko egitatea zergapetzen du, honako hauek bezala:

- a) Ehorzketa eta lekualdatzeak
- b) Ehorzketa partikularretarako lursail-partzelen lagapena, (ormaune eta hezurtokiak barne direla).
- c) Hilerriko funtzionarioek eskainitako zerbitzuak.
- d) Hala nola, hildakoen Sanitatea zaintzeko Poliziaren Erregelamenduan aurrikusitakoaren arabera egoki izan daitekeen beste edozein, edo alderdi baten eskariz baimentzen direnak.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

3. Artikulua.-

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, lagapenaren baimena edo zerbitzu-eskaintzearen eskaria egin dutenak, eta bere kasuan, baimenaren jabe diren titularrak.

IV. ARDURADUNAK.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna iznago dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porroterako, lehiaketarako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauean adierazitako kasu eta eskumenetan.

V. SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK.

5. Artikulua.-

Eskainitako zerbitzuak salbuetsirik egongo dira kasu hauetan:

- a) Baliabide ekonomikorik ez duten onuradunek, hala ere horretarako, aurretik eskaria egin beharko da, eta udaleko gizarte zerbitzuek aldeko txostena egin beharko dute.
- b) Udalerrian hildako gorpuen ehorzketa, baldin eta horien helbidea ezezaguna izan, eta baliabide ekonomikorik ez balute.
- c) Agintari Judizialek agindu ditzaketen ehorzketak.

VI. ZERGAREN KUOTA.

6. Artikulua.-

Zergaren tasa, hurrengo Tarifaren arabera izango da:

TARIFA

1.- EHOZKETA ESKUBIDEA: EHOZKETA ETA BERREHOZKETA (TRENKADA BARNE DELA)	
A).- Panteoietan	72,20 €
B).- Hilobietan	35,00 €
C).- Horma-hilobietan	25,80 €
D) Beira-arasa edo plakan	87,70 €
2.- LAGAPENAK:	
A) PANTEOIIETARAKO lurra (m ² edo zatikia).	291,00 €
B.1) 15 urteko aldirako HILOBIA	329,20 €
B.2) Hilobi-lagapena luzatzea, 8tik 15 urtera	152,70 €
C.1) Ehorzketa indibidualeko HORMA-HILOBIA, 15 urtekoa	533,50 €
C.2) Ehorzketa indibidualeko, zabalera BIKOITZEKO HORMA-HILOBIA, 15 urtekoa	1068,10 €
C.3) Ehorzketarako HORMA-HILOBI indibidualeko lagapena luzatzea, 8tik 15 urtera.	123,80 €
C.4) Ehorzketarako zabalera bikoitzeko HORMA-HILOBI indibidualeko lagapena luzatzea, 8tik 15 urtera.	249,70 €
D.1) Gorpuzkien horma-hilobiak, 50 urterako	274,50 €
D.3) Gorpuzkien horma-hilobi handiaren lagapena luzatzea, 12tik 50 urtera.	37,10 €
D.4) Gorpuzkien horma-hilobi txikiaren lagapena luzatzea, 12tik 50 urtera.	34,00 €

3.- BESTERENGANATZEAK:	
A) 1. eta 2. Ahaidetasun maila.	24,70 €
B) GAINERAKO MAILAK	55,70 €
C) PARTIKULARREN ARTEKO BESTERENTZEEN ERREGULARIZAZIOA: Udalak partikularren artean transmisioak arautzeari ekiten badio, hain zuzen ere horretarako Udal Hilerriko Arautegian aurrikusita dauden kasuen arabera, hurrengo tasak sortuko dira: “99 urterako” emanak dauden panteoi, horma-hilobi edo hobien transmisioa arautzeari dagokionez: zenbatekoa hurrengo formula aplikatuztik ondorioztatzen dena izango da: $T = \left(\frac{P}{99} \right) * N$ Non: - “T” = Aplikatuko den tarifaren zenbatekoa. - “P” = Panteoi edo hobientzako lurra lagatzeatik dagoen tarifaren zenbatekoa, edo “99 urterako” horma-hilobien lagapenagatik dagoen tarifaren zenbatekoa, erregulatzea eskatzen den unetik, eta zenbatekoak hurrengo hauek dira: Panteoientzako lursaila lagatzea, m2 edo zatikiko 291 € Ehorzketa indibidualeko horma hilobiaren lagapena, 99 urterako.....1.169,20 € Ehorzketa indibidualeko, zabalera bikoitzeko ormagunearen lagapena, 99 urterako.....2.339,50 € - “N” = Emakida amaitu arte geratzen diren urte osoen kopurua. Ondorio horietarako, “P” Tarifa, “99 urterako” hilobientzako lursailaren lagapenari dagokiona, “betirako” panteoientzat lursaila lagatzeko “2. A)” epigrafean zehaztutako bera dela ulertzen da.	
4.- LEKUALDATZEAK, MANIPULAZIOAK ETA DESEHORZTEAK (Eskari bidez):	
a).- 0 urtetik 3ra	447,80 €
b).- 3 urte baino gehiago eta osasun aldetik jarritako epe legala bete arte.	223,90 €
c).- Osasun aldetik jarritako epe legala bete ondoren.	55,70 €

VII. SORTZAPENA

7. Artikulua.- Zergapetutako zerbitzuen eskaintzari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa, ondorio horietarako, hasiera, haiek eskatzen direnean ematen zaiola ulertuko da.

VIII. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

8. Artikulua.- Zergari buruzko hauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauean xedatua dagoena hartuko da kontutan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

HAMABIGARREN ORDENANTZA FISKALA

AUTO-TAXIENTZAKO LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEAGATIK DAGOEN TASA

I. ARRAZOIA ETA IZAERA

1. Artikulua.-

Bizkaiko Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek, autotaxiei buruzko eta alokatzen diren gainontzeko ibilgailuei buruzko lizentzia ematean partzehartzen duelako arrazoiz, Tasa dauka ezarrita.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.- Hurrengo kontzeptuok egitate zergagarria osatzen dute:

- 1.- Lizentzia eman eta egitea.
- 2.- Lizentzia besterenganatzeko baimena, legalki bidezkoa bada.
- 3.- Gida-baimena ematea.

III. ZERGA ORDAINTEKO OBLIGAZIOA.

3. Artikulua.- Zerga ordaintzeko obligazioa sortzen da:

- 1.- A eta C Lizentziak eman eta egiteagatik.
- 2.- Lizentziak inorenganatzegatik.

IV. SUBJEKTU PASIBOA.

4. Artikulua.-

- 1.- Lizentziak eman eta egiten direnean, zeinen mesedetan ematen diren kontuan hartuta, haren titularitatea duena.
- 2.- Lizentziak inorenganatzzen direnean, inorenganatzze hori zeinen mesedetan egiten den kontuan izanik, pertsona hori.

V. TARIFA.

5. Artikulua.- Ordenantza honetan barne sartzen diren Zerga-tasaren tarifak, ondorengoak dira:

1.- Lizentzia ematea	1.232,93€
2.- Lizentzia besterentzeko baimena	1.232,93€
3.- Gidariaren baimena ematea	30,74€

VI. HOBARIK.

6. Artikulua.- Kuotaren % 50eko hobariaz gozatuko dute, inorenganatzzea gurasoen eta seme-alaben artean egiten denean.

7. Artikulua.-

a).- Ordainarazpena sortua dagoela ulertuko da, Ordenantza honetako 2. artikuluan ezarrita dagoenari jarraiki, zerga ordaintzeko obligazioa sortzen denean.

b) Kuotak, ikuskatzailetza ihardueratik datozenak ere barne direla, Funtsen Diruzaintzan eskudirutan ordainduko dira, dagokion Lizentzia hartzean.

8. Artikulua.- Autotaxiaren lizentzia lortu nahi duen pertsona interesatuak, dagokion eskaria Udaletxean, aurkeztu beharko du, hurrengo zehaztapen honekin:

- 1.- Lizentziari datzekion ibilgailuaren matrikula.
- 2.- Izen-deiturak.
- 3.- N.A.N. edo I.F.K.
- 4.- 2 argazki.
- 5.- Helbidea.
- 6.- Lizentziaren objektua, (lizentzia berria, inorenganatzea, etab.)
- 7.- Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergari dagozkionetan, alta emanda egotea.
- 8.- Medikuaren egiaztagiria.

Udalak Lege eta Erregelamenduetan ezagutzen zaizkion ahalmenak, bereziki, beretzat gordetzen ditu, Udal Ordenantza Teknikoak eta arlo horretan orokorki aplikagarri diren xedapenak betetzeko helburuz, Lizentzien ukapena egiteko orduan.

Behin Lizentzia jaso eta ordaindutakoan, interesatuek erabiltzeari utzi egiten dionean funtsezko arrazoiak tarteko, ordainketaren egunetik aurrera 30 laneguneko epean idatziz eskatu ahal izango du, % 80aren itzulketa. Lizentzia jaso gabe eta ordaindu gabe uko egingo balitzaio nahiz isilbidez nahiz esanbidez, edozeinetara ere, kitaturiko eskubideen % 20a kobratuko da.

VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

9. Artikulua.- Iruzurgile bezala hartuko dira eta beraz Ordenantza guztietako xedapen arruntetan ezarritako preskripzioen arabera zigortuak izango dira, hurrengo hauek.

- a) Ibilgailuaren jabeak.
- b) Beren eskubideen gaineko ordainketa saihestu edo gutxitzeko asmoz edozein motatako egintzak edo ez-egiteak egingo lituzketenak.
- c) Lizentzia eskatzen ez denean erantzunkizunean jauziko da, eta kasu horretan, kuotaren % 100koari dagokion zehapena jarriko zaio.
- d) Suerta daitezkeen gainontzeko hausteak, Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritako moduan zehatuko dira.
- e) Zehapena jartzeak ez dio kalterik eragingo, jadanik sorturik eta preskribitu gabe dauden kuoten likidazioa eta kobrantza egiteari.

10. Artikulua.- Ordenantza honetan eta Udal Ordenantza Teknikoan aurrikusi gabeko guztian, Ordenantza Fiskal Orokorra izango da aplikagarri.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

HAMAHIRUGARREN ORDENANTZA FISKALA

ZARAMA BILTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO TASA

I.- IZAERA ETA ARRAZOIA

1. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek, Zarama biltzeagatiko tasa ezartzen du, hori bestalde Ordenantza Fiskal honek arautuko du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.-

1.- Tasari dagokion zergapeko egitatea dela ulertuko da, etxeko zaramaren eta hiri-hondakin solidoen bilketarako, horien derrigorrezko jasotzeari dagokion zerbitzua eskaintzea, hain zuzen etxebizitzetako, ostatuetako eta gainontzeko lokal edo establezimenduetako, horietan, jarduera industrial, merkataritzakoa, profesionala, artistikoa, zerbitzuei dagokiona, gizartekoa, kulturala, kirolekoa, edo planeamenduko urbanistikoan aurrikusita egon daitekeen beste edozein motatakoa, eta horrek ez dauka zerikusirik higiezinaren erabilera zehatzeko egokitzapenarekin edo udal arautegiarekin.

2.- Ondorio horietarako, etxeko zarama eta hiri-hondakin solidoak direla joko da, janarien edo detrituaren hondakin eta zaborrak, horiek etxebizitzan edo lokalen garbiketa arruntetik badatoz, eta kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira hurrengo hondakinak, industrialak, obretako hondakinak, giza-detrituak, kontaminatutako gaiak eta materialak, korrosiboak eta arriskutsuak direnak, edo horien bilketa edo isurketa egiteko neurri higieniko, profilaktiko edo segurtasunekoak hartu behar direnean.

3.- Eskaintza borondatez eta alderdi batek eskatuta egiten denean ez dago tasari atxikia, baldin eta hurrengo zerbitzuetako bat bada:

- a) Ez etxebizitzetako eta ez urbano bezala kalifikatutako industri, ospitale eta laborategietako zaramaren eta hondakinen bilketa.
- b) Berokuntza zentralako zabor eta errautsen bilketa
- c) Obretako hondakinen bilketa.

III- SUBJEKTU PASIBOAK

3. Artikulua.-

1.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Zergaren gaineko Foru Arauean agertzen diren Entitateak, baldin eta zerbitzua eskaintzen den plaza, kale, bide publiko eta tokietan kokatutako etxebizitza eta lokalak okupatu edo erabiltzen badituzte, okupatze hori izan daiteke bai jabedun bezala, bai usufuktudun, habitazionista edo maizter bezala, edo baita prekarioan ere.

2.- Etxebizitza edo lokalaren jabedunak zergadunaren ordezkari izango den subjektu pasiboaren izaera izango du, eta hark bere kasuan, ordaindutako kuotak erabiltzailearen gainean, zerbitzuaren onuradunen gainean, kargatu ahal izango ditu.

IV. ARDURADUNAK

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administritzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauean adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

V. SALBUESPENAK

5. Artikulua.- Hurrengo zergadunek salbuespen subjektiboa izango dute, agindu legalaren bidez behartsu bezala ezagutuak izan direnak, Onegintzako Erroldan erabateko pobre bezala inskribaturik daudenak, edo urtean, lanbide arteko gutxienezko soldatari dagozkionak baino dirusarrera txikiagoak dituztenak.

VI. ZERGAREN KUOTA

6. Artikulua.-

1.- Zergaren kuotak kopuru zehatza izango du lokal-unitate bakoitzeko, eta hori, inmieblearen izaera eta zertarakoaren arabera eta bere kasuan, azaleraren eta langile kopuruaren arabera, erabakiko da.

2.- Ondorio horretarako, hurrengo hau aplikatuko da.

TARIFA-HIRUHILABETEKO KUOTA

1.- Etxebizitza bakoitzeko	15,92€
2.- JEZ-eko tarifen 1. Ataleko jarduerak:	
Janari, edari eta tabako produktuen txikizkako salmenta, hori establezimendu iraunkorretan egiten denean. (ag. 64). Janari alorreko merkataritza (ag.67) Ostalaritza alorreko merkataritza (ag.68) Hezkuntza eta ikerketa zerbitzua (ag. 93) Osasun eta Albaitaritza zerbitzua (ag. 94) Kultura eta Astialdiko zerbitzuak (ag.96)	
2,1.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 m2 baino azalera txikiagokoak	26,24€
2,2.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 eta 15 m2 arteko azalerakoak	43,82€
2,3.- Aurretik adierazitako lokalak, 50,1 eta 100 m2 arteko azalerakoak	55,22€
2,4.- Aurretik adierazitako lokalak, 100,1 eta 15 m2 arteko azalerakoak	66,87€
2,5.- Aurretik adierazitako lokalak, 200,1 eta 500 m2 arteko azalerakoak	90,03€
2,6.- Aurretik adierazitako lokalak, 500,1 eta 750 m2 arteko azalerakoak	112,55€
2,7.- Aurretik adierazitako lokalak, 750 m2 baino azalera handiagokoak	136,25€
2.8.- 20.000 m2 baino azalera handiagokoak	18.678,21€

3.-JEZ-eko tarifen Lehen Ataleko jarduerak:

Eraikuntza (5. Banaketa) 5). Handizkako Merkataritza (Ag.61). Merkataritzako bitartekariak (ag 63) Janariak ez diren industria-produktuen txikizkako merkataritza, hori establezimendu iraunkorretan egiten denean (ag 65, hala ere 65110 eta 65340 epigrafeak kenduta). Garraio eta Komunikabideak (7. Banaketa). Finantza-erakundeak, Aseguruak, enpresei eskainitako Zerbitzuak, alogerak (8. Banaketa) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza zerbitzuak (ag.91) Saneamendu, garbiketa eta antzeko zerbitzuak; suteen eta antzekoen aurkako zerbitzuak (ag.92). Gizarte laguntza eta zerbitzuak (ag.95) Zerbitzu Pertsonalak (ag.97). Ikuskizunekin zerikusia duten jolas-parkeak, barrakak eta beste zerbitzuak; Batzarren Antolaketa; azoka-barrutia edo –parkea (ag.98) Beste epigrafeetan sailkatu gabeko zerbitzuak (ag.99)

J.E.Z.-ko tarifen Bigarren Atalean barne sartutako jarduera profesionalak.**Zentro Ofizialak**

3.1.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 m2 baino azalera txikiagokoak	15,81€
3.2.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 eta 15 m2 arteko azalerakoak	26,36€
3,3.- Aurretik adierazitako lokalak, 50,1 eta 100 m2 arteko azalerakoak	33,04€
3,4.- Aurretik adierazitako lokalak, 100,1 eta 200 m2 arteko azalerakoak	39,64€
3,5.- Aurretik adierazitako lokalak, 200,1 eta 500 m2 arteko azalerakoak	52,82€
3.6.- Aurretik adierazitako lokalak, 500,1 eta 750 m2 arteko azalerakoak	65,99€
3.7.- Aurretik adierazitako lokalak, 750 m2 baino azalera handiagokoak	79,16€

4.- J.E.Z.-ko Lehen Ataleko hurrengo jarduerak:

Energia eta ura (1. Banaketa). Energetikoak ez diren mineralen erauzketa eta eraldaldaketa eta baita horietatik eratorritako produktuena ere, industria kimikoa (2. Banaketa). Metalak eraldatzeko industriak, zehaztazunezko mekanika (III. Banaketa). Manufakturako beste industriak (4. Banaketa). Produktuen konponketa (ag. 62). Ehungintzako gai, etxerako jantzigintza, alfonbra eta antzeko eta tapizeriako gaien txikizkako merkataritza (65110 epigrafea). Eraikuntzako materialen eta saneamenduko mobiliarioaren txikizkako merkataritza (65340 epigrafea). Makineriaren konponketa (ag. 69).

4,1.- Industriak, 5 langile arte	25,80€
4,2.- Industriak, 6 eta 10 langile artean	43,04€
4,3.- Industriak, 11 eta 25 langile artean	68,51€
4,4.- Industriak, 26 eta 50 langile artean	102,88€
4,5.- Industriak, 51 eta 100 langile artean	154,49€
4,6.- Industriak, 101 eta 200 langile artean	222,99€
4,7.- Industriak, 201 eta 350 langile artean	291,62€
4,8.- Industriak, 351 eta 500 langile artean	377,17€
4,9.- Industriak, 501 eta 750 langile artean	463,03€
4,10.- Industriak, 751 eta 1000 langile artean	548,55€

4.11.- Industriak, 1001 eta 1500 langile artean	685,81€
4.12.- Industriak, 1501 eta 2000 langile artean	857,20€
4.13.- Industriak, 2.000 baino langile gehiagorekin	1028,70€
5.- Aurreko epigrafeetan barne sartu EZ diren lokalak edo JARDUERA GABEKOAK	7,57€

3.- Tarifan seinalaturiko kuotak ezin dira beheratu eta hiruhilabetekoak izango dira.

VII. SORTZAPENA

7. Artikulua.-

1.- Zerbitzua eskaintzen hasten den momentutik sortzen da tasa hau, eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa, eta ondorio horietarako, hasiera ematen zaiola ulertzen da, hori jasotzea obligaziozkoa dela kontuan izanik, etxeko zarama jasotzeko udal zerbitzua ezarria eta funtzionamenduan dagoenean, hain zuzen ere tasari atxikiak dauden zergadunek erabilitako etxebizitza eta lokalak kokatzen diren kale edo tokietan.

2.- Aipatu zerbitzua ezarri eta funtzionamenduan jarrita, kuotak hiruhilabete natural bakoitzeko lehenengo egunean sortuko dira, ez bada behintzat tasaren sortzapena aipatu dataren ondoren gertatuko, kasu horretan, lehenengo kuota hurrengo hiruhilabeteko lehenengo egunean sortuko da.

VIII. AITORPENA ETA SARRERA

8. Artikulua.-

1.- Tasa lehenengo bider sortzen denean, subjektu pasiboek beren inskripzioa matrikula bidez formalizatuko dute, eta horretarako Uren Partzuergoan Altari dagokion aitorpena aurkeztuko dute, eta aldi berean lehenengo hiruhilabeteko kuota ordainduko dute.

2.- Jakiten denean, nahiz ofizioz nahiz interesatuek jakinarazita, matrikulan dagoen daturen bat aldatu egin dela, matrikula horretan egoki diren aldaketak sartuko dira, eta aldaketa horrek, aitorpena egin den data ondorengo kobrantza epearen ondoren izango ditu ondorioak.

3.- Kuoten kobrantza hiruhilabetero egingo da, matrikulatik ondorioztatzen den errezibu bidez, eta hori Uren Partzuergoak egingo du.

IX. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

9. Artikulua.- Zergari buruzko hauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauean xedatua dagoena hartuko da kontutan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

HAMALAU GARREN ORDENANTZA FISKALA

ORDENANTZA HONEK IREKITZEKO LIZENTZIARI DAGOKION TASA ERREGULATZEN DU.

I. ARRAZOIA ETA IZAERA.

1. Artikulua.- Udal honek, 5/89 Foru Arauaren arabera, horrek arautzen baititu Lurralde Historikoko Toki Ogasunak, establezimenduak Irekitzeagatiko Lizentziaren gaineko Tasa ezarri eta horren ordainketa exijitzen du, hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du, eta horko Arauak aipatu Foru Arauan aurrikusitakoa garatzen dute.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

2. Artikulua.-

1.- Tasaren zergapeko egitatearen barruan kokatuko da udal jarduera, bai teknikoa bai administratiboa, hori zuzendua badago egiaztatzen, establezimendu industrial, merkataritzako eta gainontzeko lokalak irekitzeko baimena eman aurretik, toki horiek lasaitasun, sanitate, segurtasun, osasungarritasun eta beste edozein baldintza betetzen dutela, hain zuzen ere Udal Ordenantzak eta Araudiek eta Araudi Orokorrek horien funtzionamendu normalerako exijitutakoak, izan ere hori baita beharrezko eta aurretiazko baldintza, Udalak irekitzeko baimena eman dezan.

2.- Ondorio horretarako, irekitze izaera izango du:

a) Lehenengo bider, bere jarduerari hasiera emateko, establezimendua instalatzen denean.

c) Establezimenduan garatutako jardueraren aldaketa edo haunditzea, nahiz eta titular berak jarraipena eman jarduerari.

d) Establezimenduaren haunditzea eta hor eragindako edozein aldaketa, baldin eta artikulua honetako 1. zenbakian adierazitako baldintzei eragiten badie, eta horiei buruzko egiaztapen berria egin behar bada.

3.- Establezimendu industrial edo merkataritzakoa dela joko da, bizitzeko egokia den edozein eraikin, publikoari irekita egon hala ez, horrek ez du erabat etxebizitzara destinaturik egon behar, eta gainera:

a) Jarduera enpresarial, industrial, edo artisautzako, eraikuntzako, merkataritzako edo zerbitzuko jardueretara dedikatzen direnak, baldin eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari loturik badaude.

b) Jarduera horiek garatzen ez badira ere, haien osagarri edo lagungarri badira edo haiekin zerikusia badute eta onurak edo ustiapenak ematen badizkiete, esate batera, egoitza sozialak, agentziak, entitate juridikoen ordezkaritza edo sukurtsalak, bulegoak, langelak, idazgelak edo estudioak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. Artikulua.- Zergadunak izango diren subjektu pasiboak izango dira, bai pertsona fisikoak edo juridikoak bai Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikulua aipatzen dituen entitateak, horiek garatu nahi diren

jardueren titularitatea badute, edo bere kasuan, jarduera aurreko artikuluan adierazitako edozein establezimenduetan garatzen bada.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 40 eta 41 artikuluetan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, lehiaketetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, aurretik aipatutako Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

IV. ZERGAREN KUOTA.

5. Artikulua.- Ordenantza honetan arautu den tasa dela eta, ordaindu beharreko kuotak, hurrengo hauek izango dira:

1.- Aldi bateko irekitze-lizentziek, hiruhilabetekotik gorakoak ez direnean, kopuru finkoa ordaindu beharko dute, hain zuzen, 148,00 €.

2.- Irekitze-lizentziek mailaz mailako ordainketa izango dute, hurrengo tarifaren arabera:

- a) Establezimenduaren azalera 200 m² artekoa denean.....10,65€/m².
- b) 200 m²-tik gorakoa. Establezimenduaren azalera 1.000 m² artekoa denean:..... 8,45€/m².
- c) Establezimenduaren 1000 m².tik gorako azalera.....6,80€/m².

3.- Jarduera handitzeko baimenak edo jatorrizko baimenean ezarritako baldintzak aldatzen direlako ematen direnak, hurrengo tarifaren arabera ordainduko dute zerga:

- a) Baldin eta jarduera handitzeko baimenak edo jatorrizko baimenean ezarritako baldintzen aldaketa-baimenak eremu zehatz eta konkretu bati eragiten badio, kuota zehazteko orduan, aipatu eremuari, aurretik adierazi den tarifa aplikatuko zaio.
- b) Baldin eta eskatzen dena jarduera handitzeko baimena bada, edo baimenaren baldintzak aldatzea, edo makineria edo instalazioak aldatzea, kuota finkoa honako hau izango litzateke, sortzapena ematen den unean, hau da, jarduera horretarako ezarria legokeen udal kuotaren % 50, Jarduera Ekonomikoen Zergari dagokion bezainbatean.

4.- Tarifek %30eko beherapena izango dute, baldin eta lizentzia 165/1999 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera izapidetzen bada.

5.- Zergaren kuota ezingo da, inolaz ere, 16.733,14€ baino handiagoa izan, hori baita kuota gehienezkoa.

Zergaren kuota ezingo da, inolaz ere, 264,17€ baino txikiagoa izan, hori baita gutxienezko kuota.

V.- TARIFEN APLIKAZIORAKO ARAUAK

1.- Establezimenduak duen eremuaren hedadura zehazteko orduan, eremuak duen zabaleraren erabatekoa eukiko da kontutan, eta horretarako lokalen eremu neurgarriaren kalkulurako Jarduera Ekonomikoen Zergako argibideetan ezarritako arau berak aplikatuko dira.

Hala ere, ibilgailuen garajeak Irekitzeagatiko Tasen likidazioak direnean, publikoari "aparkaleku" zerbitzua eskainiaz, hustiaketa ekonomikoa ateratzeko helburua dutenak, partzelen eremu erabilgarria bakarrik hartuko da kontutan, eta likidazioaren ondoriotarako ulertuko da, partzelak, trasteleku eta garbiketako makinak soilik osatzen dutela hori; kanpo gelditzen dira beraz, sarbideko arrapalak, zutabeak, barneko pasabideak eta segurtasuneko instalazioak.

Irekita dauden establezimenduen aldamenekoak, nola diren gordetegiak, erakusketarako lokalak etab., tasa hori ordaindu beharko dute, eta irekitze-baimena beharko dute, establezimendu nagusiak behar duenaren apartekoa.

2.- Eskatutako baimena ukatuko litzatekeen kasuan, hala nola hori eman baino lehen uko egingo balitzaio baimenari, baimen hori emanez gero, ordaindu behar lukeenaren % 20ra murriztuko da tasa. Baimena eman ondoren egingo balitzateke errenuntzia, irekitzea gertatutako kasuan bidezkoa izango litzatekeenaren % 50ekoan murriztuko da tasa.

3.- Irekitze Baimena, aurretik beste jarduera bat egiteko baimena duen lokalean egiteko helburuz, beste jarduera berri baterako eskatuko balitz, orduan ulertuko da, kontrako probarik ezean, jarduera berrira destinatuko den azalera, lokaleko azalera osoan egiten diren jarduera guztien artean banatu ondoren gertatzen den emaitza dela.

VI. ZERGAREN SORTZAPENA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

6. Artikulua.-

1. Zergapeko egitatea osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa. Ondorio horietarako, jarduera horri hasiera eman zaiola ulertuko da, irekitzeko baimena eskatzen den egunean, baldin eta subjektu pasiboak hori, esanbidez, formulatzen badu.

2.- Baldin eta irekitzea, beharrezko lizentzia lortu aurretik, gertatu bada, tasa sortuko da, establezimenduak baldintzak betetzen dituen edo ez erabakitzeko helburuz, udalak bere jarduerari hasiera ematen dionean.

VII. AITORPENA

7. Artikulua.-

1.- Irekitzeko lizentzia lortzeko interesa dutenek Erregistro Orokorrean aurkeztuko dute beroiei dagokien eskaria, baina hor, lokalean garatuko duten edo dituzten jharduerak zehaztuko dituzte, eta tasaren likidazioa egiteko oinarri gisa hartuko diren inguruabarrak justifikatzeko dokumentuak, horri, erantsiko dizkiote, hala nola eskaria izapidetzeko beharrezko suerta daitezkeen gainontzekoak, indarrean dauden xedapenaten ezarrita dagoen bezala.

2.- Irekitzeko lizentzia eskatu ondoren, establezimenduan garatuko den jarduera aldatu edo hori handitu egingo balitz, edo establezimendu horretarako jarritako baldintzak aldatuko balira edo hasieran aurreikusitako lokala handitu egingo balitz, aldaketa horren berri Udal Administrazioari eman beharko zaio.

VIII. SARRERAK.

8. Artikulua.-

1.- Tasaren zenbatekoa, zeina Zergen Kudeaketa eta Ikuskapen Atalak likidatuko duen, irekitze lizentziaren gainean egoki den udal ebazpena eman ondorenean, Udal Diruzaintzan sartuko da, dagokion lizentzia kendu aurretik.

2.- Artikulu honetako 1. atalean xedatutakoaz gain, Alkate Udalburuak, tasa, aurretiaz gordailatu dezala erabaki dezake, eta hori Lizentziaren eskaria egiten den aldi berean egiaztatu beharko da. Gordailatze horrek behin-behineko kitapenaren izaera eukiko du, lizentzia ematean praktikatu den behin-betiko likidazioa egin bitartean.

IX. ZERGEN GAINEKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. Artikulua.- Iruzurgileak bezala hartuko dira, eta beraz, zigortuak izango dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen Foru Arau Orokorrean aurrikusitakoari eta hori garatzen duenari jarraiki:

- a) Baimena lortu eta eskubideak ordaintzeko obligazioa duten lokal edo establezimenduetako jabeak, baldin eta ez balute baimenik eskatu eta lortu, eta ezta ere eskubiderik ordaindu.
- b) Dagozkien eskubideen ordainketa sahiesteko edo murrizteko helburuz edozein egintza edo ez-egite egin dezaketenak.
- c) Zehapena jartzeak ez du inoiz, preskribitu gabeko bainan sortuak dauden kuoten likidazioa eta kobrantza, egitea galaraziko.

X.- ORDEZKO ARAUTEGIA

10. Artikulua.- Ordenantza honetan eta Udal Ordenantza Teknikoan aurrikusi gabeko guztian, Ordenantza Fiskal Orokorra izango da aplikagarri.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

**ORDENANTZA HONEK HURRENGO ZERBITZUAK ESKAINTZEAREN
ONDORIOZKO TASAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, EUSKARA
IRAKASTEARI, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOEN LAGUNTZARI,
ETA KULTURA ETA KIROLARI DAGOZKIONAK.**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Foru Arauean aurrikusitakoari jarraiki, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko dagoena, Udal honek, Eranskinean zehazten diren zerbitzuak eskaintzearen eta jarduerak egitearren tasak ezarri eta galdatzen ditu, Ordenantza honetan agertzen diren terminoen arabera, izan ere, eranskin hura ordenantza honen zati besterik ez baita.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.- Zergapeko egitatea dagoela ulertuko da, hain zuzen, Ordenantza honetan zehaztutako zerbitzu eta jarduerak Udalak berak edo horren Erakunde Autonomoek eskaini edo egitean.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurraldeko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte, edo zerbitzu edo jarduera horren ondorioz, onuradun edo haren eraginpean suertatzen badira.

5. Artikulua.- Tasak ordaintzeko obligazioa dute:

- a) Partikularren eskariz egiten diren zerbitzu edo jarduerak direnean, eskari hori egin dutenek.
- b) Partikularrek eskatu gabe egiten diren zerbitzu edo jarduerak diren kasuetan, baina horien ekintzetatik edo ezegitetatik ondorioztatuak balira, aipatu ekintza edo ezegitea atxiki lezaiekeenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.- Salbuespenak eta beste onura fiskalak, Foru Arauetan ezarriakoaren menpe, egongo dira.

V.- ZERGA OINARRIA

7. Artikulua.- Tasaren zerga-oinarrria, jarduera edo zerbitzua gauzatzen den bakoitzean, sortuko da, hain zuzen, Eranskinean agertzen diren terminoen arabera.

VI.- KUOTA

8. Artikulua.- Zergaren kuota, Eranskinean ezarrita dagoenaren arabera, tarifa baten aplikaziotik eratorritako kopurua, edo horretarako ezarritako kopuru zehatz bat izango da, edo bi prozedurak batera aplikatzetik ondorioztatzen den kopurua.

VII.- ZERGAREN SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. Artikulua.- Tasa, zerbitzua edo jarduera egiten denean, sortzen da. Ondorio horretarako, zerbitzua edo jarduera, horretarako eskaria aurkezten denean, hasten dela ulertzen da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. Artikulua.- Udalak kontzeptu bakoitzagatik legokion likidazioa praktikatuko du, eta indarreango zerga bilketako arautegian ezarrita dagoen arabeko kopurua sartuko da, salbuetsirik egonik, hala ere, Eranskinean barne sartutako arau partikularretan dioena. Edozelan ere, Udalak tasa horiek eska ditzake autolikidazio erregimenean.

IX.- TASEN KUDEAKETA

11. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Hiztorikoko Zergari buruzko Foru Arauan eta hori garatzen duen arautegian aurrikusitakoa hartuko da kontuan, bai Ordenantza honetan araututako Taseen likidazio, bilketa eta ikuskapenerako, bai zerga-hausteei buruzko kalifikaziorako, eta kasu bakoitzean, dagozkion zehapenen zehaztapenerako.

X.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Urriaren 8ko 9/1998 Foru Arauaren 3. Atalean, Xedapen Iragankor bakarrean, ezarritakoaren arabera, zeinak ekainaren 30eko 5/89 Foru Araua aldatzen zuen, Ordenantza honetan araututako tasak ez dira jakinarazpen indibiduala egiteko baldintzaren menpean egongo, Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 100. artikulua dioen moduan, baldin eta aldizkako izaera badute, eta tasaren kuota bat baldin badator ordainketa egiteko obligazioa duenarekin, eta prezio publikoaren zenbatekoarekin, hain zuzen, udal eskuduntzakoak diren zerbitzu publikoak eskaintzearen edo jarduerak egitearen, eta 1999ko abenduaren 31an indarrean daudenak badira.

Ondorio horietarako, errezibuaren ondoriozko aldizkako kobrantzen tasei dagokien zenbatekoa bat dator, aurretik indarrean egon diren prezio publikoekin; horri hala ere, Basauriko Udalak, ondorio horretarako, izaera orokorrarekin onetsi duen gaurkotze-kopurua gehitu behar zaio.

XI.- AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko eta 2009ko irailaren 24eko osoko bilkuretan.)

ORDENANTZA HONEK HURRENGO ZERBITZUAK ESKAINTZEAREN ONDORIOZKO TASAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, EUSKARA IRAKASTEARI, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOEN LAGUNTZARI, ETA KULTURA ETA KIROLARI DAGOZKIONAK.

E R A N S K I N A

I.- BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA.-

IKASTAROENGATIKO KUOTAK, 2010/2011 IKASTURTEA:

Modulua. 1,06 euro ordu/ikasleko

UDAL EUSKALTEGIAREN DIRULAGUNTZAK

Sei motatako laguntzak emango dira:

1.- Bertaratzeagatiko dirulaguntza

Ikasle orok maila bakoitzeko matrikularen %50a jasotzeko eskubidea izango du, aprobetxamendu egokia izan eta klaseetara %90an bertaratu balitz. Horretarako ikasleak ez du inolako eskaririk aurkeztu beharrik izango, izan ere Euskaltegiak egingo baitu itzulketa, behin ikasturtea amaitutakoan eta aprobetxamendua eta bertaratzea egiaztatu ondoren.

2.- Beka

Baldintzak:

- Familiako urteko sarrera guztien kopuruek ez dute, 2007 urtearen barruan, Aginduaren taulan agertzen direnak baino handiagoak izan behar, hain zuzen, unibertsitatekoak ez diren mailetako ikasleak eskolaratzeko helburuz, ikasketa-laguntzak arautzen dituen Aginduan agertzen direnak.
- Ikasleek, gutxienez, klaseen %90era bertaratu behar dute.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Ikaslearen N.A.N.ari dagokion fotokopia.
- Errentaren azken aitortpen osoen fotokopiak, eskatzaileari dagozkionak, edo bere kasuan, errentaren zerga-likidazioa eta familiaren erroldatzea.

Errentaren aitortpena ez balitz egingo, aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ikaslearen N.A.N.ari dagokion fotokopia.
- Foru Aldundiak egindako ziurtagiria, non errentaren aitortpena ez dela aurkeztu egiaztatuko den, eta familiaren erroldatzea.

Bekaren zenbatekoa matrikularen %75ekoa izango da, eta transferentzia bidez itzuliko da, behin ikasturtea amaitutakoan, eta bertaratzea egiaztatu ondoren.

Bi hauetako edozein laguntzarako eskubidea izateko, ezinbestekoa da Basaurin erroldatua egotea. Badauzkagu baita dirulaguntzak Galdakao ikasleentzat.

3.- 0 eta 12 urte arteko umeen gurasoentzat, eta adin horretako umeak zaintzeko lanak egiten dituzten pertsonentzat dirulaguntzak.

Baldintzak:

- Adin horretako umeak edukitzea edo horiek zaintzeko lanak egitea.
- Klaseetara %90ean bertaratzea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Gurasoen kasuan, NANaren fotokopia eta familia liburua.
- Zaintzaileen kasuan, NAN fotokopia, umearen familia liburuaren fotokopia eta umearen gurasoek sinatutako dokumentua.

Dirulaguntzaren zenbatekoa matrikularen %75ekoa izango da, eta transferentzia bidez itzuliko da, behin ikasturtea amaitutakoan, eta bertaratzea egiaztatu ondoren. Dirulaguntza hau jasotzeko eskubidea izateko, ezinbestekoa da bai umea bai gurasoak Basaurin erroldatuak egotea.

4.- Dirulaguntzak Basauriko udalerriko elkarteetako begiraleentzat eta beste langileentzat, nahiz boluntario nahiz saria jasotzen dutenak izan.

Baldintzak:

- Elkarre bakoitzeko, gehienez, bi pertsona onartuko dira.
- Klaseetara %90ean bertaratzea.
- Elkarreak bere egoitza Basaurin eduki behar du, eta bere lana udalerrian garatu behar du.
-

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Lehendakariak egindako egiaztageria, non adieraziko den zein eginkizun burutzen duen eskatzaileak elkarre barruan.

5.- Basauri udalerriko denda eta establezimenduetako titularrei eta enplegatuei emateko dirulaguntzak.

Baldintzak:

- Denda edo establezimenduek beren jarduera Basauriko udalerrian garatu beharko dute.
- Klaseetara %90ean bertaratzea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Udalerriko saltoki edo establezimenduetako titularrak diren kasutan, Jarduera Ekonomikoen Zergan alta eman deneko fotokopia.
- Udalerriko saltoki edo establezimenduak diren kasutan, lan-kontratuaren fotokopia.
- Ikasleari, maila bakoitzeko %75a itzuliko zaio.

6.- Familia unitate bereko 2. 3. eta gainontzeko kideentzat dirulaguntzak.

- Familia unitate bereko bi kidek Euskaltegian balebiltza epealdi berean, kide horietako bakoitzak matrikularen %10eko beherapena izango luke.
- Familia unitateko hiru kide edo gehiago izango balira, horiek %30eko beherapena izango lukete.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Familia unitate berekoak direla egiaztatu ahal izateko, familia erroldatzeari dagokion egiaztagiria ekarri behar dute.

Helburu horrekin berarekin beren enpresa edo erakundearen aldetik laguntzak jasotzen dituzten ikasleek, baldin eta laguntza hori %100ekoa bada, ez dute Udal Euskaltegiaren laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

Ikaslea egunean egon beharko du Basauriko Udalarekin dituen zerga betebeharratan.

II.- PERTSONA NAGUSIEN EGOITZA

BASAURIKO "ETXE MAITIA" PERTSONA NAGUSIEN UDAL EGOITZAREN BIDEZ, LAGUNTZA ETA EGONALDIARI DAGOKION ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO TASA. TARIFA

Ordenantza honetan araututako tasa finkatzeko, hurrengo egoerak izango dira kontuan:

a) 2008-1-31 ARTE SARTU ZIREN ETA BEREN KAXA BALIATZEN DIREN PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK

Beren kaxa baliatzen diren pertsonen egonaldi iraunkorrak: 1.353,71 euro hileko

b) 2009-1-31tik AURRERA SARTUKO DIREN ETA BEREN KAXA BALIATZEN DIREN PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK

2010 urtean, beren kaxa baliatzen diren Pertsonen egonaldi iraunkorra: 1.800,00 euro hileko

c) ALDIBATEKOEDO BEHIN BEHINEKO EGONALDIAK

Aldi baterako egonaldiak, bai bere kabuz baliatzen diren pertsonena bai menpetasuna dutenena: 70,95 euro eguneko.

d) LAGUNDUTAKO PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRENGATIK

Bizkaiko Foru Aldundiak, behingoan gertatzearren, laguntza-hartzaile gisa ezagutu dituen pertsona erabiltzaileak, foru arautegiak ezarritako prezio publikoa ordainduko dute, menpeko pertsona nagusien egoitzako zerbitzu publikoa arautzen duen arautegiak hain zuzen (abenduaren 16ko 11/2005 Foru Araua eta abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretua).

III.- KULTUR ETXEAK.-

A) ARTE PLASTIKAZKO IKASTAROAK

- a).- Hilabeteko arrunta: 28,81 euro.
- b).- Langabezian edo ikasle-txartela duten ikasleen hilabetekoa: 14,41 euro.
- c).- Tailer batean baino gehiagotan matrikulatutako ikasleek, % 15eko deskontua izango dute.
- d) Basaurin erroldatutakoak %10eko deskontua.

B).- EL SOCIAL ANTZOKIAN APLIKATZEKO PREZIO PUBLIKOAK.

1. Sarrera-prezioak

- 1.1. gutxienezko prezioa: 3,70 euro.
- 1.2. - Nagusientzako filmak: 5 euro.
- 1.3. Haurrentzako filmak 4 euro.
- 1.4. Ikuslearen eguna: 3,70 euro.

Aipatu tarifak gehienezkoak dira, eta kasu zehatzetan murriztuak izan daitezke, hori egoki litzatekeen kasuan, dagokion Erakunde Autonomoko zuzendaritzak horrela proposatu, Lehendakariak bere oneritzia eman, eta Gobernuko Juntari horren berri emanda.

- 2. El Socialen lagunen urteko kuota: 42,78 euro.
- 3. El Social lagun gaztearen urteko kuota: 23,63 euro.
- 4. El Social Antzokiaren alokairua/egun osoan: 2.250,51 euro.
El Social Antzokiaren alokairua/egun erdian: 1.175,25 euro.

El Social Antzokia alokatzeko kuota hori, bai egun erdikoa bai egun osokoa, areagotu egingo da, inguruabarrak horrela eskatzen duenean, hurrengo gastuekin: kokapena, errejidoretza eta garbiketa. Gastu horien kostuak, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresek indarrean lituzketenak, izango dira.

5. Deskontuak:

El Socialen lagunen elkarteak	35%
10 pertsona baino gehiagoko talde egiaztatuak	30%
Ikasleak direla egiaztatzen dutenek, bai Gazte Txartelarekin, bai hitzarmena sinatutako beste motako gazte-txartelekin.	30%
50 pertsona baino gehiagoko talde egiaztatuak	50%
Prensa espezializatu egiaztatua	100%

- 6. Ikuskizunetarako sarreraren prezio gehiengoa, cachetaren arabera, zehaztuko da.

7. Udalak sustatu edo proposatutako beste edozein jarduera denean, bakarrik funtzionamenduko kostuak edo gastuak ordainduko dira, eta ez dira aplikatuko tarifa orokorrak.
8. Bazkide laguntzailea: 220,41 euro.
Bazkide babeslea: 881,67 euro.

C) IKASTARO EDO JARDUEREN GAINEKO PREZIO PUBLIKOAK:

- gutxienezko prezioa: 6,39 euro.
- gehienezko prezioa: 160,05 euro.

D) UDAL KULTUR ETXEAREN LOKALAK ALOKATZEA

- 18,57 euro.

E) BASOZELAIKO GIZARTE ETXEKO TALDE MUSIKALEI ENTSEGU-GELAK ALOKATZEA.

- ordubeteko entsegua, aurretik erreserba eginda: 7,10 euro.
- ordubeteko entsegua egun berean egindako erreserbarekin 4,58 euro.

F) BEDERATZIETAN DERITZON KANPAINA BARRUKO JARDUERAK

- Sarrera-prezioa 3,64 euro

G) TAILERREI ETA LUDOTEKARI DAGOZKIEN PREZIO PUBLIKOAK

JARDUERA	HILEKO KUOTA (euroak)
ERLAXAZIO IKASTAROA	9,37
TAI JI	12,50
PLASTIKA I (ordu eta erdi/saioa)	8,33
PLASTIKA II (ordubete/saioa)	6,25
BITXIGINTZA IKASTAROA	31,26
ALTZARIAK BERRITZEKO IKASTAROA	29,17
LUDOTEKA	9,37

Ikasleak eta langabetuak: %50eko beherapena
Izena 2 jardueretan ematen bada, %25eko beherapena egingo da.

IV. KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

LEHEN TARIFA: INSTALAZIOEN ABONAMENDUAK.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

ABONAMENDU INDIBIDUALA.

- Egokiro betetako eskaria.
- Karnet neurriko argazki eguneratua.
- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

- Kuotaren sarrerari dagokion egiaztagiria, edo bankuz helbideratzeko datuak.

ABONAMENDU FAMILIARRA.

- Egokiro betetako eskaria.
- Familiako kideen karnet neurriko argazki eguneratua.
- Familia Buruaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Kuotaren sarrerari dagokion egiaztagiria, edo bankuz helbideratzeko datuak.

KASU BEREZIETAKO ABONAMENDUA.

Aurretik adierazitako dokumentazioarekin batera, banakako edo familia-karneta den bezainbatean, honako hau eskatuko da:

- Bere kasuan, eskaria egiten duten pertsonen diru-sarrera maila egiaztatuko duten dokumentuak, eta/edo gizarte-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatuko duen dokumentua, aipatu diru-sarrerak etxebizitza berean bizi diren familia unitateko kideen sarrera guztiak barne hartzen dituela ulertuko da.
- Medikuaren aginduz kirol instalazioak erabiltzeko premia egongo balitz, mediku-egiaztagiria erantsiko zaio eskariari.
- Norbanako karnetak emateko sinatzen diren hitzarmenen kasuan, Gazte Txartela edo beste txartelak aurkeztea.
- Familia ugariren onura izateko, familia liburua aurkeztu beharko da, edo egoera hori egiaztatuko duen beste edozein agiri ofizial, gainera, 18 urtetik 26 urtera bitartekoek, ekonomikoki, familia-unitatearen menpekoak direla egiaztatu beharko dute, eta horretarako, desenplegu-egoeran daudela, eta etxebizitza berean bizi direla egiaztatu beharko dute.
- Abegi egindako umeak dituzten familien kasuan, adin txikikoei abegi egiteko gizarte-programetan parte-hartzen dutela egiaztatu beharko da.
- Hurrengo enpresen kasuan, hain zuzen, helbidea Basauriko udalerrian izan, eta baldin eta udalerrian, kirola bultza edo horri laguntzen badiote, eta udalak horiekin hitzarmen bereziak sinatzen baditu; kasu horretan, Basaurin erroldatu gabeko langileak izan, baina udalerrian erroldatutako abonatuena tasa berak izatea nahiko luketenek, aipatu enpresa horretako plantilan sarturik daudela egiaztatu beharko dute.
- Generoaren ikuspegia duten kirol kanpainetan parte-hartzen duten emakumeek, aipatu programetan parte-hartu dutela egiaztatu beharko dute.

ABONAMENDUAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK.

- Abonatu izaera egiaztatuko duen agiria, horretarako egindako karnet izenduna da, zeina norberarena eta inorenezina den. Titularra ez den beste pertsona batek erabiliko balu, hilabeterako erretiratu egingo litzateke aipatu karneta, automatikoki, eta ez luke eskubiderik izango, K.U.E.-aren aldetik, inolako diru-itzulketarik izateko.

K.U.E.ko abonatua izateak hurrengo ondorioak ditu:

- Kirol instalazioetara sarbidea doan.
- Instalazioak erreserbatzeko orduan lehentasuna, hori zazpi egun eta orduerdiko aurrerapenarekin egin dezaketelarik.
- Lehentasuna, K.U.E.-ak antolatutako ikastaro eta jardueretan izena-emateko.
- K.U.E.ak antolatutako ikastaro eta jardueren kuotetan murrizketak.
- %50eko murrizpena Pilotaleku, Padel, Tennis eta pabiloiak alokatzekoan, astegunetan, astelehenetik ostiralera, 7etatik 14etara, eta larunbat, igande eta jaiegunetan 16etatik 20etara.
- Atletismoko pista doan erabiltzea eta Artunduaga Kiroldegiko luzaketa eremua doan erabiltzea.

ABONAMENDUEN BALIOA

URTEKO ABONAMENDUAK

Urteko abonamenduak, edozein datatan izapidetuta ere, urte horretako urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean izango du balioa, hori izapidetzen den datatik hasita, baldin eta urtarrilaren 1a baino beranduago izapidetu balitz.

SEIHILEKO ABONAMENDUAK

Seihileko abonamenduak, edozein izanik ere hori izapidetzen den data, urte horretako udako kanpaina hasten denetik abenduaren 31 arteko balioa izango du, edo hori izapidetzen den datatik hasita, baldin eta udako kanpainaren hasiera baino beranduago izapidetuko balitz.

1.- FAMILIA ABONAMENDUAK:

Familia buruaren izenean ematen dena izango da, eta onuradunak izango dira, horren ezkontidea edo lagunkidea eta 17 urte arteko seme-alabak; bere jaiotzeguna kontuan hartu gabe, barne hartzen ditu eskubide honek, minusbaliotasun fisiko edo mental larriak dituztela egiaztatzen duten seme-alaba guztiak.

Urtekoak	147,20 €
Seihilekoak	109,60 €

2.- BANAKAKO ABONAMENDUAK:

Horrela eskatzen duten guztiek eta 18 urtetik gorako guztiek.

Urtekoak	92,40 €
Seihilekoak	68,00 €

3.- KASU BEREZIAK

3.1. BANAKAKO EDO FAMILIA ABONAMENDUAK, PROFESIO ARTEKO GUTXIENeko SOLDATATIK BEHERAGOKO SARRERAK DITUZTENEAN, EDO GIZARTE LAGUNTZAK (GSG EDO GLL) JASOTZEN DITUZTENEAN.

Abonamenduko kuotaren %60ko hoberia.

Doan izango da, kirol instalazioak medikuaren aginduz erabili behar direnean.

3.2. BANAKAKO ABONATUEK, HITZARMENAREN ARABERA GAZTE TXARTELA EDO BESTE TXARTELEN BAT BALDIN BADUTE, EMAKUMEEN ALTA BERRIEK, GENEROAREN ARABERAKO KIROL KANPAINETAN PARTE HARTZEN DUTENEAN, BASAURIKO UDALAK ETA/EDO KUE ERAKUNDEAK SUSTATUAK.

Abonamenduko kuotaren %20ko hoberia.

3.3. FAMILIA UGARIEK EDO 3.3 EPIGRAFEAN ADIERAZTEN DEN EGOERAN DAUDENAK:

Seme-alabak barne hartuko dira, 26 urtera arte.

3.4. ADIN TXIKIKOAK JASOTZEKO GIZARTE PROGRAMETAN PARTE HARTZEN DUTEN FAMILIAK:

Jasotako adin txikikoak doan izango du, eta baita, familiako laguntzaile batek, baldin eta hori ez baldin bada abonatua, eta jasotze hori irauten duen epealdian.

3.5.- K.U.E.-rekin HITZARMENAK DITUZTEN ENPRESETAKO ENPLEGATUENTZAT.

Udalerrian erroldatutako pertsonak dituzten abonutasa berak izateko onura izango dute.

4.- ERROLDATU GABEKOEN ABONAMENDUAK

Basauriko udalerrian erroldatu gabe dauden pertsonak %30eko gainkargua izango dute beren abonamendu-kuotan.

BIGARREN TARIFA : SARRERAK

1.- URBI KIROLDEGIRAKO SARRERA Sarrera eta erabilera bakar baterako balio du.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik aurrera	2,50 €
16 urtetik beherakoak	1,30 €
3 urtera arte.	Dohainik

2.- ARTUNDUAGA KIROLDEGIRAKO SARRERA Sarrera eta erabilera bakar baterako balio du.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik beherakoak	2,70 €
16 urtetik aurrera	4,40 €
3 urtera arte.	Dohainik

3.- IGERILEKUETAKO SARRERA, 15 ERABILTZAILE BAINO GEHIAGOKO TALDEENTZAT, ERABILERA BAKAR BATERAKO.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik aurrera	3,90 €
16 urtetik beherakoak	2,30 €

4.- IGERILEKUETARAKO 10 SARRERAKO BONUA.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik aurrera	39,00 €
16 urtetik beherakoak	23,00 €

5.- KIROL IKUSKIZUNETARAKO SARRERA

A maila	20,00 €
B maila	10,00 €
C maila	5,00 €

HIRUGARREN TARIFA : OHIKO ALOKAIRUAK

Erreserbak ordubetekoak direla ulertuko da beti, aurkako zehaztapenik egiten ez den bitartean.

Instalazioak erabiltzeko erreserba horiek egiteko unean ordainduko dira eta eskubide horretaz gozatu aurretik.

KUE-ko kirol instalazioak programatutako entrenamendu eta lehiaketetarako erabiltzen dituzten klubek, eskola-ekipoek eta kirol elkarteek %10eko deskontuaz baliatu ahal izango dira tarifa honetan agertzen diren prezioekiko.

Basauriko Klubek eta Kirol Elkarteek, urtean behin, areto nagusia doan erabiltzeko eskubidea izango dute, beren Ohiko Batzar Orokorra egiteko.

1.- PILOTALEKUAK.

1. Pilotalekua	5,80 €
1. Pilotalekuko argiaren gehigarria	3,15 €
2. eta 3. Pilotalekuak	4,00 €
2. eta 3. pilotalekuetako argiaren gehigarria	2,15 €

2.- ESTALITAKO PISTA.

Ordu bakoitzeko	18,50 €
Argiaren gehigarria	3,35 €

3.- PABILOIA.

Ordu bakoitzeko	23,50 €
Argiaren gehigarria	4,10 €

4.- PABILOIAREN MODULUA.

Ordu bakoitzeko	10,00 €
Argiaren gehigarria	1,75 €

5.- GIMNASIOA.

Orduko, argia barne dela	10,70 €
--------------------------	---------

6.- FITNESS ARETOA / CICLO INDOOR.

Orduko, argia barne dela	23,40 €
--------------------------	---------

7.- FUTBOL ZELAIA.

Orduko, sarrera barne dela:	
Futbol Zelaia	56,10 €
Futbol 7ko Zelaia	34,20 €
Argiaren gehigarria	6,60 €

8.- TENISA (ORDU BAKOITZEKO)

Estali gabeko tenis-pista	4,00 €
Estalitako tenis-pista	5,80 €
Argiaren gehigarria	2,35 €

9.- MAHAI-TENISA.

Ordua	1,65 €
-------	--------

10.- ATLETISMOKO PISTA.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	31,50 €

11.- ERROLDATU GABEKO ATLETA FEDERATUAK

Banakakoen urteko karneta	36,00 €
---------------------------	---------

12.- SAUNA.

Abonatuak:	
Saioa	3,10 €
10 saioko bonua	27,50 €

Abonatu gabeak	
Saioa	3,80 €
10 saioko bonua	34,50 €

13- TB. ETA BIDEOA DITUEN GELA ERABILTZEAREN

Orduko, argia barne dela	22,50 euro
Orduko, argia barne dela, ekipamendurik gabe	11,00 euro

14.- PADDLEA. (ORDU BAKOITZEKO)

Estali gabeko paddela	4,00 €
Estalitako paddela	4,85 €
Argiaren gehigarria	1,65 €

15.- ROKODROMORAKO ETA BOULDER GELARAKO SARRERA

Abonatuak					
ROKODROMO	ETA	BOULDER	GELAKO	PASEA	1,05 €
EGUNEKO					
ROKODROMO	ETA	BOULDER	GELAKO	PASEA	9,20 €
HILABETEKO					
ROKODROMO	ETA	BOULDER	GELAKO	PASEA	31,00 €
URTEKO					
Basauriko mendi-elkartetan federatutako abonatuak					Dohainik

16- TB. ETA BIDEOA DITUEN EKITALDI ARETOA ERABILTZEAREN.

Egun erdi bakoitzeko, argia barne dela	66,00 euro
Orduko, argia barne dela, ekipamendurik gabe	11,00 euro

17.- ERABILERA PARTEKATUA DUTEN INSTALAZIOEN ERRESERBA:

Igeriketako kalea	27,50€
Igerileku osoa	91,00€
Atletismoko zuzena eta pista osoa	65,50€
Rokodromoa	23,50 €
Aldagelak	13,00€

KUE erakundearekin itundutako ordutegietan.

LAUGARREN TARIFA : KIROL MATERIALA ALOKATZEA ETA BESTE

Mahai-teniserako palak eta pilotak	1,05 €
Pilotalekuko kaskoa	1,45 €
Baloiak	1,95 €
A lehorgailua	0,05 €
B lehorgailua	0,10 €
Bainuko txanoen salmenta	2,00 €
Takilako giltzaren galtzea	7,90 €
Paddeleko pala	1,85 €
Teniseko arraketa	1,75 €
Arnesa	2,00 €
Pultsometroa	1,05 €
Teniseko erraketa apurtzea	14,50 €
Padeleko erraketa apurtzea	29,50 €
Megafonia, egun erdiz	98,50 €

1.- PUBLIZITATEA

Ikuskizunaren instalazioetan publizitate estatikoa eta iraunkorra jartzeagatik, horretan lehiatzen diren udalerriko klubek jartzen dutenean, hurrengo kanona ordaindu beharko da:

Publizitatea kokatzeko erabili daitezkeen lekuneak eta gainontzeko irizpideak Kontseilu Zuzentzaileak eta horretarako dauden lege-xedapenek arautu ditzakeen arauen menpe daude.

m2 urteko	51,00 €
-----------	---------

BOSTGARREN TARIFA : IKASTAROETAN PARTEHARTZEA.

1.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROAK 21 PERTSONATIK GORA

Abonatuak	
2 ordu astean	17,20 €
3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiruhilabeteko ikastaroan	23,80 €
ordubeteko saioa	3,10 €
1,5 orduko saioa	4,50 €

Abonatu gabeak	
2 ordu astean	29,20 €

3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiruhilabeteko ikastaroan	39,00 €
---	---------

2.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROA 20 PERTSONA ARTE.

Abonatuak	
2 ordu astean	23,60 €
3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiruhilabeteko ikastaroan	32,30 €

Abonatu gabeak	
2 ordu astean	33,80 €
3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiruhilabeteko ikastaroan	43,00 €

3.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROA 12 PERTSONA ARTE.

Abonatuak	
Astean 2 saio	29,70 €
Astean 3 saio	37,00 €

Abonatu gabeak	
Astean 2 saio	38,00 €
Astean 3 saio	46,00 €

4.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROA 8 PERTSONA ARTE.

Abonatuak	
Astean 2 saio	32,60 €
Astean 3 saio	40,00 €

Abonatu gabeak	
Astean 2 saio	42,10 €
Astean 3 saio	51,00 €

5.- JARDUERA FISIKOAEN GAINEKO IKASTAROAK FITNESS MAKINEKIN ETA/EDO INDOOR BIZIKLETEKIN.

Abonatuak	27,00 €
Abonatu gabeak	40,20 €
Saioa	4,30 €

6.- PROGRAMA BATERATUAK: AEROBIC + FITNESS; CARDIOAEROBIC + FITNESS; MANTENIMENTUA + FITNESS; HIDROBIC + FITNESS

Abonatuak	34,40 €
Abonatu gabeak	45,70 €

7.- ESKALADA IKASTAROAK.

Ordubeteko saioa.	
Abonatuak	4,10 €
Abonatu gabeak	5,20 €

8.- HIRUGARREN ADINEKOEN HEZIKETA FISIKOA.

a).- Diru-sarrerak 421,66 € azpitik	Librea
b) 421,66 eta 562,22 € arteko sarrerekin	
Banaka hiruhilabetean	10,20 €
Senar-emazteak hiruhilabetean	15,60 €
c).- 562,22 € gorako diru-sarrerekin	
Banaka hiruhilabetean	17,30 €
Senar-emazteak hiruhilabetean	25,90 €

9.- IGERIKETAKO IKASTAROAK: Matrikula eta ikastaro bakoitzeko

Hiruhilabeteko ikastaroa, 8 pertsona arte:	
Abonatuak	65,70 €
Abonatu gabeak	101,20 €

Hiruhilabeteko ikastaroa, 12 pertsona arte:	
Abonatuak	52,70 €
Abonatu gabeak	81,80 €

Hiruhilabeteko ikastaroa, 12 pertsonatik gora:	
Abonatuak	39,70 €
Abonatu gabeak	61,30 €

Hilabeteko ikastaroa, 3 egun/astean:	
Abonatuak	23,80 €
Abonatu gabeak	39,00 €

adinekoen igeriketa, hiruhilabetekoa:	
Abonatuak	24,20 €
Abonatu gabeak	34,90 €

Bizkarrezurrerako igeriketa, hiruhilabetean:	
Abonatuak	65,50 €
Abonatu gabeak	101,20 €

Aqua-Gim hiruhilabetean:	
Abonatuak	47,50 €
Abonatu gabeak	81,00 €

Eskoletako igeriketa kanpaina	Dohainik
-------------------------------	----------

Eskolako igeriketa-taldea begirale gabe (ikasleko)	1,25 €
Eskolako igeriketa-taldea begiralearekin (ikasleko)	1,50 €
Igeriketa berezia, astean saio 1	46,70 €
Igerilekuetako jolasak, egunean.	2,20 €

10.- BEHERAPENAK ETA HOBARIAK

% 5eko beherapena aplikatu ahal izango da, hilabeteko hiru aldi edo horren parekoa dena, aurretiaz, kobratzetik ondorioztatzen den tarifa, zentimoaren hamarrekora arte gorantz borobilduz.

% 10eko beherapena aplikatu ahal izango da, hilabeteko hamabi aldi, aurretiaz, kobratzetik ondorioztatzen den tarifa, zentimoaren hamarrekora arte gorantz borobilduz.

Beherapenarekin, aurretiaz ordaintzeko epeak KUE erakundeak ezarriko ditu.

11.- SUSTAPENEN TXAPELKETAK ETA KANPAINAK, ETA DENBORALDIKOAK.-

Tarifak aurrekontuaren arabera zehaztuko dira.

Oharra: Tarifa honetan agertzen diren prezio guztiak hilabetekoak direla ulertzen da, aurkakoa esaten ez den bitartean.

SEIGARREN TARIFA : PROGRAMATUTAKO ERRESERBAK.

A.- KIROL JARDUERAK: Instalazioko erreserba-prezioaren %170. Sarrerak barne hartzen ditu.

Argiak piztu beharra dagoenean, argiari dagokion gehigarria ordaindu beharko da baita.

B. - KIROLEZKOAK EZ DIREN JARDUERAK.

350 ikusleentzat baino edukiera txikiagoa duen lekua	750 €
350 ikusleentzat baino edukiera handiagoa duen lekua	1.070 €

1.- Zehaztasunak.

Prezioak egun erdi edo egun osorako direla ulertuko da.

Alokatze prezioan ez da inolako elementuen muntaketa eta desmuntaketarik sartzen, ez garbiketarik, eta ez argi eta gainontzekorik.

Ez dira ere kontroleko pertsonalaren orduak sartuko, baldin eta ekitaldia, instalazioa irekita egoten den ordutegitik at, egingo balitz.

INSTALAZIOEN LAGAPENA ERREGULATZEN DUEN ARAUTEGIA, KIROLEZKOAK EZ DIREN EKITALDIAK ANTOLATZEN DIRENEAN APLIKATZEKO.

Eskaria aldeaz aurretik egin beharko da, gutxienez 30 egun lehenago.

Instalazioak laga edo aloka daitezke, baldin eta ez balego inolako kirol jarduerarik programatuta.

Beste erakunde publikoen edo pribatuen eskariak, kasu bakoitzean aztertuko dira, hala ere pribatuei beti kobratuko zaie eta publikoak direnei (eskolak adibidez) ez zaie eskatuko ordainketarik edo gehienez ere lanordutik kanpo lanegitearren sortu daitekeen pertsonal gastua kobratuko zaie.

Garatuko den jarduera ororako, obligaziozkoa da erantzunkizun zibileko eta instalazioari kalteak egiteagatik aseguru egitea.

Aurreko puntuetan adierazitako ez da kontuan izango Udalak berak antola ditzakeen jardueretarako (Dantza-Agerketa, Jaiak, etab.)

C.- ERABILERARAKO HITZARMENAK

Basauriko Kirolaren Udal Erakundeak hitzarmenak egin ahal izango ditu Klubekin, Eskola-ekipoekin, Ikastetxeekin, Kirol eta/edo kultura Elkarteeekin, eta Erakunde Pribatuekin, kirol instalazioen erabilera erregulatzeko. Kasu horretan, Ordenantza honetan ezarritako tarifak murriztu ahal izango dira

C) ERABILERARAKO HITZARMENAK

Basauriko Kirolaren Udal Erakundeak hitzarmenak egin ahal izango ditu Klubekin, Eskola-ekipoekin, Ikastetxeekin, Kirol eta/edo kultura Elkarteeekin, eta Erakunde Pribatuekin, kirol instalazioen erabilera erregulatzeko. Kasu horretan, Ordenantza honetan ezarritako tarifak murriztu ahal izango dira.

V. ETXETZ ETXEKO LAGUNTZAREN ZERBITZUA.

Etxez Etxeko Laguntzaren Zerbitzuari dagokion kostua ordaintzeko tarifa aplikagarria, hurrengo formula honen arabera kalkulatu da:

$$TASA = OK \times BUOK \times (1-OUA))$$

Non:

- **OK** zerbitzu eskaintzaren hilabeteko ordu kopurua da, erabiltzaile zehatz batentzat.
- **BUOK** orduko Basauriko Udalari zerbitzua eskaintzea kostatzen zaiona da, tarifa aplikatzen den urtean (erreferentzia gisa adierazten da ezen, 2010. urtean, BUOK tarifa = 24,51 eurokoa dela)
- **OUA** onuradun unitatearen ahalegina da, 1 oinarrian adierazia, eta bizikidetza-unitatearen balorazio ekonomiko eta ondarezkoaren irizpideen aplikazioagatik lortu beharreko beherapen gisa kalkulatua, Sarreraren Bermerako Errentaren 18/2008 Legean ezarritakoaren arabera, eta udal mailan ezarritako irizpideen arabera.

Aplikatu beharreko irizpideak honako hauek dira:

- **OK:** hileko, gutxienez ordu bateko, eta gehienez 40 orduko balioaren artean egon beharko du.
- Tasaren gutxienerako balioa 1 x BUOK dagokion zenbatekoa izango da.

Zerbitzuan Alta, Baja eta aldi baterako Baja emateak hainbanatu egingo dira.

VI. PERTSONA NAGUSIEN AISIALDIRA ZUZENDUTAKO TAILER ETA IKASTAROAK.

Pertsona nagusien astialdira dedikatutako Tailer eta Ikastaro bakoitzean matrikulatzeagatiko tasa, Jubilatuen Udal Egoitzetan edo Udalak helburu horretarako jartzen dituen lokaletan garatzen direnean.

Matrikulatzeagatiko eta ikastaro bakoitzeko tasa: 18,00€

HAMASEIGARREN ORDENANTZA

ORDENANTZA HONEK ARAUTZEN DITU, UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXU BEREZIAGATIK DAUDEN TASAK.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Foru Arauean aurrikusitakoari jarraiki, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko dagoena, Udal honek, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta galdatzen ditu, Udal Jabari Publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik, Ordenantza honetan dauden arauen arabera, izan ere, eranskin hura ordenantza honen zati besterik ez baita.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.- Zergapeko egitatea dagoela ulertuko da, hain zuzen, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia dagoenean.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

4. Artikulua.-

1.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, baldin eta tokiko jabari publikoa, bakoitzaren onura partikularrerako erabili edo aprobetxatu, edo horretaz gozatuko balute.

Espaloietatik barna ibilgailuak sartzeari buruzko erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako tasei dagokien bezainbatean, sarrera horiek eraiki, zaindu, aldatu edo ezabatu egiten direla eta, ibilgailuen sarrera duten finka eta lokal horietako jabeak, zergadunen ordezkari, izango dira, eta jabe horiek, bere kasuan, kuotak onuradunen gain kargatu ahal izango dituzte.

3.- Herri Administrazioek, Autonomi Erkidegoek, eta Foru eta Toki Erakundeek ez dute tasarik ordaintzeko obligaziorik izango, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik, baldin eta zuzenean ustiatzen dituzten, eta garraibideekin lotutako zerbitzu publikoak badira, edo hiritarren segurtasunarekin eta nazioaren defentsarekin zerikusia dutenak badira.

5. Artikulua.- Kontuan izanik nori ematen zaion lizentzia, hori jasotzen duenak ordaindu beharko ditu tasak, edo horrek ezean, aprobetxamenduaren onura izaten duenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK.

6. Artikulua.- Salbuespenak eta beste onura fiskalak, Foru Arauetan ezarriakoaren menpe, egongo dira.

V.- ZERGA OINARRIA.

7. Artikulua.- Tasaren zerga-oinarria, jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den bakoitzean, sortuko da, hain zuzen, Eranskinean agertzen diren terminoen arabera.

VI.- KUOTA.

8. Artikulua.-

1.- Zergaren kuota, Eranskinean ezarrita dagoenaren arabera, tarifa baten aplikaziotik eratorritako kopurua, edo horretarako ezarritako kopuru zehatz bat izango da, edo bi prozedurak batera aplikatuzetik ondorioztatzen den kopurua.

2.- Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak, udal jabari publikoaren suntsiketa edo kaltetzea ere sortuko balu, onuradunak, ordaindu behar lukeen tasa ordaintzearen kalterik gabe, berreraikitze edo berritze gastuei dagokien kostu osoa itzultzeko obligazioa izango du, eta zenbatekoa aurretiaz jartzeko obligazioa ere izango du.

Kalteak konponezinak balira, Udala indemnizatu egin beharko da hondatutako ondasunen balio bereko zenbatekoan edo kaltetutakoen narriadurak duen zenbatekoan.

Udalak ezingo ditu barkatu, ez osorik, ez zati batean, atal honetan adierazten diren indemnizazio eta itzulketak.

VII.- ZERGAREN SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. Artikulua.-

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziari dagokion Tasa, zergapeko egitate berari dagokion bezainbatean, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, sortuko da, eta aurretik, horren zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eskatu ahal izango da, hain zuzen, edo jarduerari hasiera emango dion eskaria aurkeztean, edo espedienteari hasiera ematean, zeina ez den egingo edo tramitatuko dagokion ordainketa egin bitartean.

2.- Tasaren izaera materialak, horren aldizkako sortzapena, eskatzen duenean, hori urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du barne, ez hala ere, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren hasiera edo amaiera kasuetan, zeren eta orduan, zergaldia inguruabar horretara egokituko baita, eta kuotari proportzionaltasuna aplikatuko zaioi, Eranskinean ezarritako terminoen arabera.

3.- Subjektu pasiboari atxiki ezin lezaiokeen arrazoiengatik, baldin eta jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamenduari dagokion eskubidea ez balitz garatuko, horri dagokion zenbatekoa itzuli egin beharko da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.

10. Artikulua.- Udalak kontzeptu bakoitzagatik legokion likidazioa praktikatuko du, eta indarreango zerga bilketako arautegian ezarrita dagoen arabera kopurua sartuko da, salbuetsirik egonik, hala ere, Eranskinean barne sartutako arau partikularretan dioena. Edozelan ere, Udalak tasa horiek eska ditzake autolikidazio erregimenean.

IX.- TASEN KUDEAKETA

11. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Hiztorikoko Zergari buruzko Foru Arauan eta hori garatzen duen arautegian aurrikusitakoa hartuko da kontuan, bai Ordenantza honetan araututako Tasen likidazio, bilketa eta ikuskapenerako, bai zerga-hausteei buruzko kalifikaziorako, eta kasu bakoitzean, dagozkion zehapenen zehaztapenerako.

X.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Urriaren 8ko 9/1998 Foru Arauaren 3. Atalean, Xedapen Iragankor bakarrean, ezarritakoaren arabera, zeinak ekainaren 30eko 5/89 Foru Araua aldatzen zuen, Ordenantza honetan araututako tasak ez dira jakinarazpen indibiduala egiteko baldintzaren menpean egongo, Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 100. artikulua dioen moduan, baldin eta aldizkako izaera badute, eta tasaren kuota bat baldin badator ordainketa egiteko obligazioa duenarekin eta prezio publikoaren zenbatekoarekin, hain zuzen, udal jabari publikoa okupatzearren, eta 1999ko abenduaren 31an indarrean daudenak badira.

Ondorio horietarako, errezibuaren ondoriozko aldizkako kobrantzen tasei dagokien zenbatekoa bat dator, aurretik indarrean egon diren prezio publikoekin; horri hala ere, Basauriko Udalak, ondorio horretarako, izaera orokorrarekin onetsi duen gaurkotze-kopurua gehitu behar zaio.

XI.- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

ERANSKINA

TARIFAK

Jabari publikoa okupatzeagatik dagozkion tasen tarifak, hurrengo aprobetxamendu moetari dagozkionak dira.

1) EPIGRAFEA: OBRA INSTALAZIOENGATIKO OKUPAZIOAK

1.- Hesi babesleak obretan (metro karratua edo zatikia, eta hilabetea edo zatikia)	9,61 €/m ² eta hilabetea
2.- Aldamio finkoak, bide publikoan sostengatuak eta euskarri edo txarrantxak izateagatik, bere azpiko ibilbidea libre uzten ez dutenean (m ² edo zatikia eta hilabetea edo zatikia).	9,61 €/m ² eta hilabetea
3.- Aldamioak bide publikoan sostengatuak badaude, baina txarrantxarik eta langetarik gabe, euskarriak erreskadan eta fatxadako lerroaren paraleloan, 3 m. baino gutxiagoko alturan, eta horren azpitik pasa badaiteke (m ² edo zatikia eta hilabetea edo zatikia).	7,39€/m ² eta hilabetea
4.- Aldamio gaineen hegadan jarritako berinapeak edo erretilu babesleak, horien azpitik trabarik gabe ibili daitekeenean (m ² edo zatikia eta hilabetea edo zatikia)	4,89€/m ² eta hilabetea
5.- Zintzilik dauden aldamioak (metro karratua edo zatikia eta hilabetea edo zatikia).	4,89€/m ² eta hilabetea
6.- Hesitik at dauden eskorak edo euskarriak (m ² edo zatikia eta hilabetea edo zatikia).	4,89€/m ² y hilabee
7.-Obra-hondakinen edukinontziak, hala nola, instalazio mugikorrak, noloren etxolak, salmentako bulegoak, garabiak, kargagailuak eta antzekoak (m ² edo zatikia eta hilabetea edo zatikia)	9,14€/m ² eta hilabetea
8.- Behin-behineko lantegiak eta/edo materialak pilatzeko erreserbak	9,14€/m ² eta hilabetea

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

a) Epigrafe honetan aipatzen diren obrak bi hilabete baino gehiagoko epealdian geratuta egongo balira, jokabide hori zuritu gabe, tarifa honen aplikaziotik suertatzen diren kopuruak % 100aren gainkargua izango dute etenaldia irauten duen epean, eta lanak amaiatu ondoren, aprobetxamenduak jarraituko balu, kopuru horiek % 200eko gainkargua izango lukete.

2) EPIGRAFEA: ESPALOIETATIK BARNA IBILGAILUAK SARTZEA

	URTEKO KUOTA
1.- Pasabidea, 6 ibilgailu arte	256,17€/PASAGUNEA
2.- 7 ibilgailutik 10era arteko pasabidea	406,58€/PASAGUNEA
3.- 11 ibilgailutik 25era arteko pasabidea	496,83€/PASAGUNEA

4.- 26 ibilgailutik 50era arteko pasabidea	587,19€/ PASAGUNEA
5.- 51 ibilgailutik 100era arteko pasabidea	677,55€/ PASAGUNEA
6.- 100 ibilgailu baino gehiagoko pasabidea	737,71€/ PASAGUNEA
7.- Industri eta Saltegietako pasabidea	406,58€/ PASAGUNEA

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK:

- Tasa, pasagune kopuruek eta horiek erabiltzen dituzten ibilgailuen kopuruek zehaztuko dute, eta horretan, aparkamendu-erreserbari dagokion tarifa barne sartzen da.
- Espaloietatik barna ibilgailuak sartzeari dagokion tasa, aurretiazko sei hilabetekoan sortuko da, eta sei hilabeteko kuotak murriztu ezineko izaera dauka, edozein izanik ere, okupazio aldia.

3) EPIGRAFEA: APARKAMENDU ERRESERBA LOKALERAKO SARBIDERIK GABE

	URTEKO KUOTA
1.- Taxien geralekua, ibilgailu bakoitzeko	83,26€/IBILGAILUA
2.- Autobus geralekuak (Bidaiarien lineak), metro lineak edo zatikiagatik	27,79€/m
3.- Behin betiko aparkalekuaren erreserba, metro lineal edo zatikiagatik	27,79€/m
4.- Aparkamenduaren erreserba merkatal ordutegian, metro linealeko edo zatiki bakoitzagatik	23,47€/m

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK:

- Aparkamenduaren erreserba kasuan, tasa erreserbaren luzerak erabakiko du, taxisten kasuan izan ezik, izan ere horiek ibilgailuaren gaineko tasa ordainduko baitute.
- Aparkatzeko erreserbari dagokion tasa, aurretiazko sei hilabetekoetan sortuko da, eta sei hilabeteko kuotak murriztu ezineko izaera dauka, edozein izanik ere, okupazio aldia.

4) EPIGRAFEA: HORNIKETAKO ZERBITZUEN INSTALAZIOENGATIKO OKUPAZIOA

1.- Laginketak eta zangak irekitzeagatik, metro lineal edo zatiki bakoitzeko eta eguneko	6,14€/ m. eta urtea
2.- Kablea, Hodieriak, errailak, banaketa eta erregistro kaxak eta antzeko elementuak, metro lineal edo zatikia eta urte edo zatikia	27,74€/m. eta urtea
3.- Zorupe publikoaren okupazioa, horren okupazioa iraunkorra denean, eta gasa banatzeko edo beste edozein hornidura egiteko, tutueria, kable eta elementu osagarriak egiten denean, metro lineala edo zatikia eta urtea edo zatikia.	6,10€/m. eta urtea

5) EPIGRAFEA: AZALERAN, INSTALAZIOENGATIKO OKUPAZIOA

1.- Salmenta automatikoko tresnak (metro lineala edo zatikia eta urtea edo zatikia)	55,50€/m ² eta urtea
2.- Mahai eta aulki multzoa, urte edo zatiki bakoitzeko	31,80€/urtea
2,1.- Gainontzeko instalazioak mahaitxo, zoladura, loreontzi, itzalkin edo antzekoak, metro karratu edo zatikiko, eta urteko edo zatikiko	9,24€/m ² eta urtea
3.- Kioskoak.	31,79€/m. eta urtea
4.- Industri ibiltariak eta kalekoak.	1,51€/m ² eta urtea

TARIFEN APLIKAZIORAKO ARAUAK:

a) Interesatuak, likidazioa egin baino lehen, dagokion Lizentziari uko egin, edo horretan atzera egingo balu, eta egiaztatuko balu lizentzia ez dela erabilia izan, kuota, kasu bakoitzean izan daitekeenaren %50ekoa, izango da.

b) Herri-jaietako eta feriako postuak direnean, feriako txosnak jarriko diren esparruko lursailak esleitzeko enkantezko sistema erabiltzen bada, Udalak kasu bakoitzean erabaki ditzakeen oinarri eta baldintzen arabera egingo da aipatu enkante hori.

6) EPIGRAFEA: BESTE OKUPAZIO MOTAK

1.- Zerbitzu zehaztugabeak, metro ² edo zatikia eta eguna	1,08€/m ² eta eguna
3.- Feriako txosnen instalazioa (Metro karratua edo zatikia eta eguna)	0,91€/m ² eta eguna
4.- Zirkoaren instalazioa (Egun bakoitzeko)	72,19 €/eguna

7) EPÍGRAFEA: UDAL AZOKARA DESTINATUTAKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXU BEREZIA, HALA NOLA AZOKAKO SALTOKIENA, MERKATAL ZONALDEENA ETA GAINONTZEKO INSTALAZIO OSAGARRI ETA LAGUNTZAILEENA, BALDIN ETA ZERBITZUA ZEHARKA KUDEATUKO BALITZ.

1. ZEIN EREMUTAN APLIKATUKO DEN

Epigrafe honetan barne sarturik dauden prezio publikoak, Udal Azokaren zerbitzua zeharkako kudeaketa bidez egiten den kasuan bakarrik izango da aplikagarri, eta hori emakida administratibo bidez izango da.

2. EMAKIDADUNAK ORDAINDU BEHAR DUEN TASA

A) a) Udal Azokaren zerbitzua emakidan esleituko zaion pertsona edo entitateak Udalari ordaindu beharko dio, urteko prezio publikoaren kontzeptupean, 2.168,75 euro solairuko, edo emakidadunak, dagokion lehiaketan, eskaini dezaken kopuru altuagoa, kopuru hori bestalde ekitaldi natural bakoitzeko lehen

hiruhilabeteen oso-osorik ordaindu beharko da, eta hori ezingo da inolaz ere murriztu.

B) Kopuru hori urtero berrikusia izango da, aurretik Emakidadunari audientzia eman eta gero, gehienez Kontsumoko Prezioen Indizeak jasanko duen aldaketaren portzentaia berean, hori Estatu osorako Instituto Nacional de Estadística finkatua izango da, eta "urteartekoa" bezala ezagutua, aurreko urteko ekainetik dagokion ekitaldiko ekaina arte.

3. SALTOKIEN, MERKATAL ZONALDEEN EDO INSLAZIO OSAGARRI ETA LAGUNTZAILEEN ESLEIPENDUNEK ORDAINDU BEHAR DITUZTEN TASAK.

A) Saltoki, merkatal zonalde edo instalazio osagarri eta laguntzaileen esleipendunek ordaindu behar dituzten tasen tarifak Udalak zehaztuko ditu, emakidaduna den erakundearen proposamenaren ostean.

B) Tarifen onespenerako edo horien berrikuspenerako prozedura hurrengo hau izango da:

b.1) Emakidadunak arrazoitutako proposamena egingo du, horrekin batera argibideak eskainiko ditu Txosten batean eta proposatutako kopuruak egokiak direla justifikatu beharko ditu postu-mota bakoitzerako, horretarako azken ekitaldi itxiko Balantzea, Ustiapen Kontua eta Jatorri eta Aplikazioaren egoera eta ohiko ekitaldia istean egongo den egoeraren aurrikuspena erantsi beharko dizkio.

b.2) Kontuhartzaitzako txostena emakidadunak proposatutako tarifen onespenerari edo horren berrikuspenerari buruz.

b.3) Ogasuneko Batzorde Informatiboaren Irizpena. Batzordeak, egoki baleritzo, ahalmen zabalak eta nahierakoak izango ditu Emakidadunari egoki leritzon datuak eta txostenak eskatzeko orduan, eta baita aipatu saltokien, merkatal zonaldeen edo instalazio osagarri eta laguntzaileen esleipendunei audientziako epe bat eskaintzeko ahalmena izango du.

b.4) Udalbatzaren Erabakia, horren bidez onetsiko edo berrikusiko dira egoki diren tarifak. Aipatu erabakia, behin-betirako onetsia izaten denetik, segititik izango da aplikagarri, ez baldin bada behintzat beste zerbait erabakitzen bertan, emakidadun entitateari jakinarazten zaionean, bestalde emakidadun entitate horrek obligazioa izango du, saltoki, merkataritzako zonalde edo instalazio osagarri eta laguntzaileen esleipendun bakoitzari, banan banan eta modu fedemailean, onetsi edo berrikusitako tarifen zenbatekoa, eta horiek aplikagarri izango diren data, jakinarazteko.

c) Tarifen zenbatekoak, Basauriko Udalaren Azoka eta horrekin zerikusia duten ihardueren gaineko Zerbitzu Publikoaren Erregimen-Erregelamenduaren 67. artikuluan ezarritakora, egokitu beharko du.

16-G ZERGA ORDENANTZA

TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUEN USTIATZAILE DIREN ENPRESEK JABARI PUBLIKO LOKALAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEARREN.

1. ARTIKULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

Udal honek, ekainaren 30eko 9/2005 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen, tasa ezarri eta hori galdatzen du, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik, hain zuzen, hori telefonia mugikorra ustiatu edo horren zerbitzua eskaintzen duten enpresen mesedetan denean.

2. ARTIKULUA.- EGITATE ZERGAPEGARRIA

Tasaren egitate zergapegarria erabilera pribatibo generikoaren edo aprobetxamendu bereziaren gainekoa da, hain zuzen, udal bide publikoetako hegada, lurzoru eta lurpearen gainekoa, horiek telefonia mugikorreko zerbitzuak ustiatzen edo eskaintzen dituzten enpresen mesedetan direnean, auzotar gehienei edo horietako zati handi bati eragiten diotenean.

Ordenantza honen tasa arautzailea bat etor daiteke beste tarifa-kopuruekin, hain zuzen, zerbitzu-sareak kokatzeko Udalak bereziki egokitutako edo utzitako azpiegituren erabilera-lagapenaren ondorioz sor daitezkeen kopuruekin, eta horiek bai puntualak bai aldizkakoak izan daitezke.

3. ARTIKULUA.- ZERGA-OBLIGAZIOA DUTENAK

Ordenantza honek arautzen duen tasaren zerga-obligazioa dute telefonia mugikorreko zerbitzuak ustiatzen edo eskaintzen dituzten enpresek, auzotarren gehiengoari edo horien zati handi bati eragiten diotenean.

Udal barruti barruan eskaintzen direla ulertzen da, beren izaeragatik, bide publikoaren hegada, lurzorua edo lurpearen aprobetxamendua egiten duten zerbitzu guztiak, edo horrekin harremanean daudenean, nahiz eta zenbatekoa beste udalerrri batean ordaindu.

4. ARTIKULUA.- ERANTZULEAK.

1.- Zergaren gaineko Foru Arauaren 41 artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, zordun nagusiak dituen zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzuleak izango dira zergaren Foru Arau Orokorreko 42 artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak, artikulua horretan aipatutako kasuetan, eta adierazitako norainokoa.

5. ARTIKULUA.- ZENBATEKOA

Telefonia mugikorreko zerbitzuen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatiko tasen zenbatekoa zehazteko, hurrengo parametroak edukiko dira kontuan:

Urteko oinarrizko tarifa.

Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren iraupen-denbora.

Operadore bakoitzari esleigarri zaion koefiziente espezifikoa, merkatu-kuotaren funtzioan.

$$\text{Zerga-kuota} = \text{TB} \times \text{T} \times \text{CE}$$

TB: urteko oinarrizko tarifa da.

T: erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren iraupen-denbora da, urteka edo urteko hiruhilabetearen zatiki bidez adierazita

CE: operadore bakoitzari esleigarri zaion koefiziente espezifikoa, udal barruti honetan bakoitzak duen merkatu-kuotaren arabera.

Oinarrizko tarifa urtean 95.000 eurotan ezartzen da.

Operadore bakoitzari esleigarri zaion koefiziente espezifikoa lortzeko, telefonia mugikorreko merkatuko kuota osotik, udal barruti honetan egokitzen zaion horretatik abiatuta egingo da, ordaintzeko modalitate guztiak barne hartuta, bai ondoren ordaintzekoak bai aurretik ordaintzen direnak.

6. ARTIKULUA.- SORTZAPENA.

Tasaren sortzapena erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean gertatuko da.

7. ARTIKULUA.- AITORPENA ETA SARRERA

Subjektu pasiboek urte bakoitzeko urtarilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dute, udal jabariaren aprobetxamenduari hasiera emandako data egiaztatuko duen aitorpena, eta subjektu pasiboak udal barrutian zenbat erabiltzaileentzat operatzen duen, eta barne hartuko ditu bai ondoren ordaintzen diren zerbitzuak bai aurretik ordaintzen direnak.

Aipatutako epe barruan interesatuek ez balute aitorpenik egingo, Udalak eskumena izango du tasa kuantifikatzeko, operadore bakoitzak udalerrian duen merkatu-kuotaren arabera.

Behin obligazioa duenak daturik ez duela eman egiaztatzen denean, Udalak operadore bakoitzarentzat Telekomunikazioen Merkatuko Batzordeak argitaratutako urteko azken txostenetik ondorioztatzen diren datuak aplikatu ahal izango ditu, horretan udalerrika banandutakoak baleude, edo Autonomia Erkidegora erantsitakoak, edo hori ezean, nazio osoakoak.

8. ARTIKULUA.- KONTURA EGINDAKO ORDAINKETAK.

Udalak hiruhileko likidazioak egingo ditu, eta urteko behin-betiko likidazioa.

Tasen ordainketa hiruhileko likidazioen arabera ordaindu beharko dira, behin-betiko likidazioaren kontura egingo direnak.

Hiruhileko likidazioen zenbatekoa, zerga-kuotatik ondorioztatzen den kopuru osoaren % 25ari dagokiona izango da, zehaztutako parametroen arabera kalkulatuta, eta beti ere, aurreko urteari erreferentzia egingo diona.

Behin-betiko likidazioa, erreferentzia egiten dion urtearen ondorengo lehen hiruhilekoaren barruan, ordaindu beharko da. Zenbateko osoa zerga-kuotatik ondorioztatzen den kopuruaren arabera zehaztuko da, eta hori finkatuta dauden parametroen arabera kalkulatu da, eta beti, aurreko urteari egingo dio erreferentzia

Ordaindu beharreko zenbatekoa, kopuru horren eta kontura egindako sarreraren arteko diferentziari dagokio, eta beti ere, ekitaldi bera kontuan izanda. Saldo negatiboa legokeen kasuan, Udalari ordaindutako gehiegizkoa, kontura egindako lehen ordainketan, konpentsatu beharko da, edo hurrengoetan

9. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Bai zergari dagokion edozein arau-hausteetan, bai horien kalifikazio desberdin guztietan, bai horiei legozkiekeen zehapenetan, Tributuen gaineko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honi, behin-betiko onespina eman zitzaion XXXXXXXXan, eta indarrean sartuko da 2008ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

ORDENANTZA HONEK ARAUTZEN DITU, UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURPE EDO HEGALKINAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK DAUDEN TASAK, HORNIKETAREN ZERBITZUA USTIATZEN DUTEN ENPRESEN MESEDETAN EGITEN DEN ERABILERARENA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

Artículo 1.-

1.- Udal honek tasak ezarri eta horiek galdatzen ditu, ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauan aurrikusitakoaren arabera, horrek arautzen baititu Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziagatik, eta hori egiten du, horniketaren zerbitzua ustiatzen duten enpresen mesedetan.

2.- Ondorio horietarako, hurrengo hauek horniketaren zerbitzua ustiatzen duten enpresa gisa hartuko dira:

- a) Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren enpresa hornitzaileak.
- b) Telekomunikazioko sare publikoak erabiliz, bai bere osotasunean bai partzialki, jendearentzat erabilgarri diren telekomunikazio-zerbitzuak eskaintzen dituztenak, horiek udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziarekin instalatu balira, eta sare edo instalazio horien titularitatea kontuan hartu gabe.
- c) Horniketa zerbitzua eskaintzen duen beste edozein enpresa, baldin eta hori eskaintzeko, udalerriko lurzoru, lurpe edo hegalkina okupatuko balute, non tutueriak, kableak eta giontzeko instalazioak jarriko lituzketen.

3.- Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, zerbitzuen ustiaketa egiten duten enpresen artean sartuko dira, zerbitzu horiek banatu eta komertzializatzen dituztenak.

Artículo 2.-

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.-

1.- Zergapeko egitatea izango da, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu berezia, hori Horniketa Zerbitzua ustiatzen duten enpresen mesedetan gertatzen denean, baldin eta interes orokorrekoa baldin bada, edo auzotarren zati garrantzitsu bati afektatzen badio.

2.- Kuantifikazio erregimen hori aurreko artikuluan adierazitako enpresei aplikatuko zaie, bai dagozkien sareen titularrak balira, zeinen bidez egingo lituzketen horniketak, baina baita ere, aipatu sareen titularrak izan gabe, horien erabileraren, sarbidearen edo interkonexioaren eskubide-titulua balute.

3.- Telefonía mugikorreko zerbitzuak ez dira kuantifikazioko erregimen berezi horren barruan sartuko.

4.- Tasa hau bateragarria izango da, toki eskumenekoak izan daitezkeen zerbitzuak eskaintzeagatik edo jarduerak egiteagatik ezarri litezkeen beste tasekin, eta horniketa-zerbitzua ustiatzen duten enpresak, zerbitzu horiei dagokienez, subjektu pasiboak izango dira, 5/89 Foru Arauko 23.1.b) artikuluan ezarrita dagoen bezala, eta modu horretan, tasa honen ordainketagatik, salbuetsita egongo da beste tasen ordainarazpena, hain zuzen, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinean eratutako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezitik eratorritakoen ordainarazpena.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.-

1.- Subjektu pasiboak dira, zergadun kontzeptupean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak, juridikoak eta erakundeak, hain zuzen, horniketa-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titularrak direnak, baldin eta interes orokorrekoak balira edo auzotar gehienei edo horien zati garrantzitsu bati afektatuko balie, eta udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinari erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia emango balie.

2.- Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, zerbitzuen ustiaketa egiten duten enpresen artean sartuko dira, zerbitzu horiek banatu eta komertzializatzen dituztenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK.

5. Artikulua.- Zerga-salbuespenak edo beste zerga-onurak ematea, aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoari lotuko zaio.

V. ZERGA-OINARRIA

6. Artikulua.-

1.- Tasaren zerga-oinarria fakturaziotik letozkeen sarrera gordinek emango dute, hain zuzen, horniketa-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, urtero, udal barrutian lor lezazketenak.

2.- Sarrera gordinak direla joko da, justu, enpresari egotzi lezaizkiokeenak, hain zuzen, horrek, kontraprestazio gisa, udalerrian eskainitako zerbitzuengatik lor lezazkeenak.

3.- Zeharkako zergak ez dira sarrera gordin bezala hartuko, hain zuzen, eskainitako zerbitzuengatik kargatzen direnak, eta ezta ere hirugarrenen kontura kobratutako kopuru edo zenbatekoak, baldin eta horiek ez balute eratuko horniketa-zerbitzua ustiatzen duen enpresaren sarrera propioa.

4.- Horniketarak egiteko, besteen sareak erabiltzen dituzten enpresak direnean, beren fakturazioko sarrera gordinetatik, beste enpresei ordaindutako kopuruak kenduko dituzte, justu, haien sareetara sartzeko edo haietara interkonektatzeko ordaindutakoak. Sare horien titularitatea luketen enpresek, kontzeptu horrengatik jasotako kopuruak zenbatu beharko dituzte, beren fakturazioko sarrera gordinen artean.

5.- Tributuen Foru Arau Orokorreko 92. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskapen Araudiko 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, sareen titularitatea luketen enpresek udalak eska lezaiekeen informazioa eman beharko dute, hain zuzen, argitu egin beharko dute, sareetara sarbidea edo interkonexioa eukitzearen kontzeptupean, dirusarrerak zein enpresetatik jasotzen dituzten.

VI.- KUOTA.

7. Artikulua.-

1.- Zerga-kuota honako hau izango da, hots, udal barrutian, urtero, enpresek lor lezaketan fakturaziotik etorritako sarrera gordinen 100etik 1,5ekoa.

2. Baldin eta aprobetxamendu bereziak, udal jabari publikoaren suntsiketa edo kaltetzea ere sortuko balu, onuradunak, ordaindu behar lukeen tasa ordaintzearen kalterik gabe, berreraikitze edo berritze gastuei dagokien kostu osoa itzultzeko obligazioa izango du, eta zenbatekoa, aurretiaz jartzeko, obligazioa ere izango du.

3.- Kalteak konponezinak izango balira, Udalari, suntsitutako ondasunen balio bereko zenbatekoa izango duen indemnizazioa eman beharko zaio, edo kaltetuaren narriadurari dagokion zenbatekoa.

4.- Udalak ezingo ditu barkatu, ez osorik, ez zati batean, atal honetan adierazten diren indemnizazio eta itzulketak.

VII.- ZERGAREN SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.

8. Artikulua.-

1.- Udal jabari publikoa okupatzearen ondorioz, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziagatik ezarritako tasa, horniketaren zerbitzua ustiatzen duten enpresen mesedetan ezarria, aprobetxamendu berezi horri hasiera ematen zaionean sortuko da, eta geroan, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean.

2.- Zenbait arrazoi tarteko direla, baina subjektu pasiboari egotzi ezin lezaizkiokeenak izanik, jabari publikoaren aprobetxamendua ez baliz garatuko, dagokion zenbatekoa itzuli egin beharko litzaioke.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.

9. Artikulua.- Udalak egoki litzatekeen likidazioa egingo du, eta likidatutako kopurua ordaindu beharko da.

IX.- TASEN KUDEAKETA.

10. Artikulua.- Horniketa zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiruhilabete natural bakoitzeko lehen hamabost egunetan, Udaletxean, aitorpena aurkeztu beharko dute, hain zuzen, aurreko hiruhilabetearen lortutako sarrera gordinei dagokiena. Aipatu aitorpenarekin batera, udalerrian egindako fakturazioa egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztu behar da, hala nola Udal Administrazioak, kasu bakoitzean, eska lezakeena.

11. Artikulua.-

1.- Udal Administrazioak hiruhilabete bakoitzari legokiokeen likidazioa egingo du, eta horrek behin-behineko izaera izango du, dagozkion egiaztapenak egin arte. Egiaztapen horiek egindakoan, behin-betiko likidazioa egingo da, eta hori interesatuari jakinaraziko zaio. Borondatezko epealdia agortutakoan, zorra premiamendu bidez eskatuko da.

2.- Edozein modura, behin-behineko likidazioak behin-betiko bihurtuko dira, aurreko artikuluan aipatutako aitopenaren aurkezpen-datatik hasita, hiru urte igarotzen direnean.

3.- Artikulu honetan eta aurrekoan jasotako kudeaketa-arauek ordezkio izaera izango dute, Horniketa-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen eta Udalaren artean hitzarmenak edo akordioak leudekenean.

12. Artikulua.- Bai zergari dagokion edozein arau-hausteetan, bai horien kalifikazio desberdin guztietan, bai horiei legozkiekeen zehapenetan, Tributuen gaineko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honi, behin-betiko onespina eman zitzaion, eta indarrean sartuko da 2006ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

17 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA

UDALTZAINGOAREN ZERBITZU BEREZIAK ESKAINTZEAGATIKO TASAK **ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

i. ORDAINARAZPENAREN HELBURUA

1. artikulua

Ordenantza honen ordainarazpen arautzaileak barne hartzen ditu udaltzaingoak eskainitako zerbitzu bereziak, hurrengo honetarako:

- 1.1. Hiri barrutik ibilgailu astunak gidatu, zaindu eta laguntzea.
- 1.2. Konfiskatutako objektuak erretiratu, garraiatu, zaindu eta jagotea.
- 1.3. Eremuak mugarritzea, trafikoa eten eta erregulatzea.
- 1.4. Izaera bereko beste jarduerak, zerbitzu hori eskaini beharra dagoenean.

II. SUBJEKTU PASIBOAK

2. artikulua

1. Tasei buruzko subjektu pasiboak dira, Ordenantza honetan araututako zerbitzu bereziak eskaintzen direla eta, horiek Udaltzaingoak eskainitakoak izanik, bai pertsona fisikoak, bai juridikoak, bai Bizkaiko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34 artikulua aipatzen dituen entitateak, zergadun diren bezainbatean, baldin eta horrela eskatzen badute edo udalaren zerbitzu edo jarduerengatik onuradun edo afektaturik suertatzen badira, Ordenantza honetan araututa dagoen arabera.

2. Jarduera edo zerbitzu administratiboa subjektu pasiboari afektatzen diola edo horri dagokiola joko da, baldin eta zuzenean edo zeharka berak eragindakoa bada eta bere iharduera eta ez-egiteak direlako arrazoiz Udala behartzen badute iharduera edo zerbitzuen eskaintza ofizioz egitera.

III. ZERGA OINARRI

3. Artikulua.- Oinarri zergagarria, egin edo eskainitako zerbitzu edo jarduerak euki dezakeen kostu errealak edo aurrikusi daitekeenak finkatzen du, eta kontuan hartuko dira zerbitzu edo jardueraren kostu osoaren osaketan eragiten duten gastu zuzen edo zeharkakoak, hor sartzen dira, baita, bai izaera finantzariokoak direnak bai aplikagarriak diren ibilgetuaren amortizazioak bai gainontzekoak, horiek ez baldin badira behintzat kontribuzio berezien bidez ordaindu, eta kontuan harturik halaber, eskainitako zerbitzu edo jardueraren ezaugarriak eta tasa ordaintzeko obligazioa duten subjektuen ahalmena.

IV. ZERGAREN KUOTA

4. Artikulua.- Ordenantza honetan araututako zerbitzuak eskaintzeagatiko kuotak, hurrengo era honetan, izango dira:

TARIFAK

1.- Ibilgailu astunak gidatu, zaindu eta laguntzea, zerbitzu bakoitzeko	54,70€
2.- Konfiskatutako objektuak eta merkantziak erretiratu eta garraiatzea, zerbitzu bakoitzeko	54,70€
3.- Konfiskatutako objektuak jagon eta zaintzea, egun bakoitzeko	5,10 €/EGUNA
4.- Eremuak mugarritzea, trafikoa eten eta erregulatzea, zerbitzu bakoitzeko	54,70€
5.- Eskainitako beste zerbitzuak	54,70€

V. SORTZAPENA

5. Artikulua.- Egitate zergagarria osatzen duen udal iharduerari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa.

VI. KUDEAKETA, EPEAK ETA ORDANTZEKO MODUA.

6. Artikulua.- Tasen likidazioa eta ordainketa, zerbitzua eskaintzearekin edo udal jarduera egitearekin batera praktikatuko da.

Zerbitzua eskaintzeko eskaria egiten denean, administrazioak likidazioa, eskari hori erregistratzen den momentuan, egin ahal izango du, eta momentu berean, horren ordainketa eskatu, behin-behineko neurri gisa eta behin-betiko kuotaren kontura.

Konfiskatutako objektuak erretiratu, garraiatu, jagon eta zaintzeko zerbitzu bereziak eskaintzen diren kasutan, tasaren likidazioa eta ordainketa, konfiskatutako objektuak itzultzeko une berean, egingo da

7. Artikulua.- Ordenantza honek erabakitzen ez dituen gauza guztietan, Zergen Kudeaketa, Bilketa eta ikuskapeneko Ordenantza Fiskal Orokorra eta indarrean dauden gainontzeko xedapenak aplikatuko dira.

8. Artikulua.- Zergari buruzko hausteak eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskapeneko Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatua dagoena hartuko da kontutan.

VII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

HAMAZORTZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

KONTRIBUZIO BEREZIEI BURUZKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA.

I. XEDAPEN OROKORRAK.

Artículo 1.- Udal honek, Lurralde Historikoko Foru Arauean aurrikusita dagoen arabera, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, Kontribuzio Berezien gaineko Ordeanantza Orokorra onetsi du, horrek udalari dagozkion obrak egitea, eta zerbitzuak ezartzea edo haunditzea hartzen du barne.

2. Artikulua.- Ordenantza, udal barruti osoan, aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.- Kontribuzio berezien gaineko egitate zergagarria gertatuko da, subjektu pasiboak bere ondasunen balioa haunditzen duenean, edo horien gainean onura lortzen duenean, Udalak obra publikoak egiten dituelako, edo udal zerbitzu publikoak ezarri edo handitzen dituelako arrazoiz.

4. Artikulua.- 4.1.- Udalaren obra eta zerbitzuen izaera izango dute:

- a) Udalak bere ahalmenen barruan egiten dituenak berari atxikirik dauden helburuak bete ahal izateko, horietaz kanpo daude hala ere, haiek bere ondare-ondasunen jabe gisa egingo dituzten guztiak.
- b) Beste Ente Publikoren batek egotzi edo eskuordetu dizkionak izatearren, Udalak egiten dituen haiek, eta legeriaren arabera, titularitatea bereganatu ondoren, egiten dituenak.
- c) Beste Ente Publikoek egiten dituztenak, edo horien emakidadun direnak, bainan udalaren ekarpen ekonomikoarekin.

4.2.- Aurreko zenbakiko a) letran barne sarturik daudenak ez dute udal obra eta zerbitzu izaera galduko, nahiz eta Erakunde Autonomo edo Merkatal Sozietate batek eginak izaten badira ere, baldin eta kapital soziala Udalari badagokio bere osotasunean, edo udalaren ekarpenekin emakidadunak egiten badu, edo zergadunen elkarte administratibo batek egiten badu.

5. Artikulua.- Kontribuzio bereziengatik bildutako kopuruak obra edo zerbitzuko gastuak ordaintzera bakarrik destinatu ahal izango dira, hain zuzen ere, zeregin horretarako eskatuko baitira.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

6. Artikulua.- 6.1.- Kontribuzio berezien subjektu pasiboak izango dira, pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren Entitateak, baldin eta bereziki onuradun suertatzen badira udal obrak egitearren, edo zerbitzuak ezarri edo handitzearren, eta baldin eta zerga ordaintzeko obligazioa sortzen bada.

6.2.- Pertsona bati bereziki mesedea ekarri diola joko da:

- a) Obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo haunditzearren ordaindu beharreko kontribuzio bereziak direnean, baldin eta ondasun inmutableei eragiten badie, inmutable horien jabeak.
- b) Enpresen ustiapenagatik obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo handitzen direlako arrazoiz ordaindu beharreko kontribuzio bereziak direnean, horien titularitatea duten pertsonak edo entitateek ordainduko dituzte.
- c) Suhiltzaile zerbitzuak handitu edo hobetzeko xedez ordaindu behar diren kontribuzio bereziak direnean, afektaturiko ondasunen jabeek gain, baita, adar horretan, udal barruti barruan bere jarduera garatzen duten aseguru konpainiek ere ordaindu beharko dute.
- d) Lurpeko galeriak egitearren ordaindu beharko kontribuzio bereziak direnean, horiek erabili behar dituzten enpresa hornitzaileak.

6.3.- Jabetza horizontaleko erregimena den kasutan, jabetza komunitatearen ordezkariak Udal Administrazioari emango dio jabetza izena eta komunitatean horietako bakoitzak duen partehartze-koefizientea, horrela bakoitzaren kuota buruzko igorpena bidaltzeko. Horrela ez bada egiten, ulertuko da, onartzen dela kuota bakar bat bidaltzea, eta horren banaketaz komunitatea bera arduratuko dela.

IV. ZERGAREN OINARRIA.

7. Artikulua.- 7.1.- Kontribuzio berezien oinarri zergagarria gehienez honako hau izango da, obrak egitearren edo zerbitzuak ezarri edo handitzearren, Udalak eutsiko dion kostu osoaren ehuneko 90a hain zuzen ere. Udalak ordenazioko erabakia hartzen duenean, kasu bakoitzerako, aplikagarria izango den portzentaia zehaztuko du.

7.2.- Aipatu kostua hurrengo kontzeptu hauetaz osatua egongo da:

- a) Adituen lanak, proiektuen idazketak eta obraren, planen eta programa teknikoaren zuzendaritzak sortzen dituen kostu errealak.
- b) Egin behar diren obrek eta zerbitzuak ezarri edo handitzeko lanek sortzen dituzten zenbatekoak.
- c) Obra eta zerbitzuek modu iraunkorrean okupatu beharko lituzketen lursailen balioa kostu horretan sartua egongo da, ez badira behintzat erabilera publikoko ondasunak, Udalari obligazioz eta dohainik lagatako lursailak, edo legerian ezarritako terminoen arabera lagatako inmutableak.
- d) Indemnizazioak, baldin eta badatoz, eraikinak eraisteagatik, landaketak, obrak edo instalazioak suntsitzearren, hala nola, eraitsiak edo okupatuak izan behar duten ondasunak errentan ematearen ondorioz.
- e) Obretan edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, baldin eta Udalak kontribuzio bereziengatik bete gabe legokeen zatia finantzatzeko helburuz kreditua eskatzera jo behar duenean edo kontribuzio horrek bete arren horien zatikapen orokorra ematen bada.

7,3.- Obra eta zerbitzuetarako aurrikusitako kostu osoak, bakarrik aurrikuspen izaera eukiko luke. Kostu erreala aurrikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa izango balitz, hura hartuko litzateke kuoten kalkulua egiteko orduan.

7,4.- Baldin eta 4.1.c) artikuluan aipatzen diren obra edo zerbitzuak badira, edo obra horiek artikuluko bereko 2 zenbakian aipatzen den udal ekarpenarekin emakidadunak eginak badira, kontribuzio bereziei dagozkien oinarri zergagarria, ekarpen horien zenbatekoen arabera zehaztuko da, eta ez die kalterik eragiten beste Administrazio Publikoek obra edo zerbitzu horien gainean ezarri ditzaketenei. Edozein kasutan, artikuluko honetako lehen zenbakian aipatzen den %90ko muga errespetatuko da.

7,5.- Oinarri zergagarria zehazteko orduan, Udal Administrazioak jasaten duen kostua dela ulertuko da, kostu osoaren kopurutik Udal Administrazioak lor ditzakeen subentzio edo laguntzaei dagokien zenbatekoa kenduz ondorioztatuko dena.

7,6.- Baldin eta aipatu subentzioa edo laguntza kontribuzio bereziko subjektu pasibo batek emana izango balitz, horren zenbatekoa pertsona edo entitate horri dagokion kuota konpentsatzera destinatuko da lehenik. Baldin eta subentzio edo laguntzaren balioak kuota hori gaindituko balu, gehiegizkoak, prorratara, gainontzeko subjektu pasiboen kuotak murriztuko ditu.

V. KUOTA.

8. Artikulua.- 8,1.- Kontribuzio berezien zerga-oinarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontuan izanik, eta hurrengo arauetara makurtuz:

- a) Izaera orokorrarekin, batera edo banandurik aplikatuko dira, banaketa modulu gisa: inmuebleetako fatxadetako metro linealak, horren azalera, horien eraikin-bolumena eta Ondasun Inmuebleen gaineko Zergari dagokion balio katastrala.
- b) Suhiltzaile zerbitzua ezarri, hori haunditu edo hobetzea den kasuan, banaketa, arriskua estaltzen duten elkarre edo sozietateen artean egin ahal izango da udal barrutian kokatutako ondasunen bidez, justu aurreko urtean bildutako hobarien zenbatekoari dagokion proportzioan. Baldin eta subjektu pasibo bakoitzari eskatu behar zaion kuota hori bildutako hobarien % 5a baino altuagoa izango balitz, gehiegizkoa, hurrengo ekitaldietara aldatuko da guztia amortizatu bitartean.
- c) Ordenantza honetako 6. artikuluko barruan, bigarren zenbakiko d) atalean aipatzen diren obrak diren kasuan, kontribuzio berezien zenbateko osoa erabilpena egingo duten konpainia edo enpresen artean banatuko da, hain zuzen ere, bakoitzari erreserbatutako espazioaren arabera edo horiek osatzen duten sekzio guztiko proportzioaren arabera, nahiz eta ez erabili segitutik.

9. Artikulua.- Aplikagarri den arautegiak edo Nazioarteko Itunek onura fiskalak aitortuko balituzte ere, onuradunei egokitu lezaizkiekeen kuotak ez dira inolaz ere gainontzeko zergadunen artean banatuak izango.

10. Artikulua.- Ordaindu beharreko kuota zehaztu ezker, Udalbatzak eman ahal izango du, subjektu pasiboak horrela eskaturik, haren zatiketa edo luzamendua, gehienez ere bost urteko epean.

VI. ZERGAREN SORTZAPENA.

11. Artikulua.-11,1.- Kontribuzio bereziak, obrak eginak dauden momentuan edo zerbitzua eskaintzen hasten den unean, sortuko dira. Baldin eta obrak zatikagarriak izango balira, subjektu pasibo bakoitzarentzat sortzapena gertatuko da, obraren tarte edo zati bakoitzari dagokiona eginda egoten denean.

11.2.- Aurreko zenbakian erabakitakoaren kalterik gabe, ezarketa eta ordenazioko erabaki zehatza behin onetsitakoan, Udalak aurretiaz eskatu ahal izango du kontribuzio berezien ordainketa, hurrengo urterako aurrikusitako gastuari dagokion zenbatekoan oinarri hartuta. Ez da beste urtealdi berri baten aurrerakinik eskatu ahal izango, obrak egin gabe baleude, justu, aurreko aurrerakina horretarako eskatu baitzen.

11.3.- Kontribuzio bereziak sortzen diren unean kontuan eukiko da, ordainketako obligazioa duen pertsona zehaztu behar dela 6. artikuluan erabakitakoaren arabera, nahiz eta ordenazioko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa horren onespenera datan agertzen dena agertu eta nahiz eta kuotaren ordainketa aurreratu balu ere, artikulua honetako bigarren zenbakian erabakitakoaren arabera. Ordenazioko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa agertzen den pertsonak eta horri buruzko jakinarazpena jaso izan ondoren, ondasun edo ustiapenen gaineko eskubideak besterentzen dituenen, eskubide horiek arrazoitzen baitute ezarpena, erabaki hura onetsi zenetik sortzapen hori gertatu bitarteko epealdian, obligazioa izango du egindako besterenganatzearen berri Udal Administrazioari emateko, hori egin zenetik hilabeteko epe barruan, eta horrela ez balu egingo, aipatu Administrazioak ekintzak burutu ahal izango ditu kobrantza hori egin ahal izateko, espedientean subjektu pasibo gisa agertzen zenaren aurka.

11.4.- Behin obra guztiz edo horren zati bat amaitu ezker edo zerbitzuaren eskaintzari hasiera eman ezker, seinatu egin beharko dira, bai subjektu pasiboak, bai behin betiko oinarria eta bakoitzari dagokion kuota, eta jarraian egoki liratekeen kitapenak igorri beharko dira eta konpentsatu egin beharko dira aurretik kontura egindako ordainketak. Aipatutako behin-betiko ezarpen hori Udal Administrazioak egingo du eta horrek zerga ordaintzeko erabaki zehatzaren arauak bete beharko ditu, hain zuzen ere, obra edo zerbitzu baterako hartu direnak.

11,5.- Baldin eta aurretik egindako ordainketak, zergaren sortzapenera datan subjektu pasiboaren izaera ez duen pertsona batek eginak, izango balira edo egokituko litzaiokeen behin-betiko kuota indibidualetik goragokoa izango balitz, Udal Administrazioak, ofizioz, legokion itzulketa egingo du.

VII. EZARPENA ETA ORDENAZIOA.

12. Artikulua.-12,1.- Kontribuzio berezien ordainarazpenak kasu bakoitzean, aurretik ezarpeneko erabakia hartzea eskatzen du derrigorrez.

12,2.- Obra bat egiteko edo zerbitzu bat ezarri edo haunditzeko hartu beharreko erabakia, hori kontribuzio berezien bidez ordaindu behar denean, ez da burutzerik izango horien ordenazio zehatza onetsi bitartean.

12,3.- Ordenazioko erabakia derrigorrez hartu beharrekoa da eta obra eta zerbitzueterako aurrikusitako kostua hor jasoa egon behar du, eta baita onuradunen artean banatuko den kopurua eta banaketa egiteko irizpideak ere. Ordenazio zehatzaren erabakia Ordenantza honetan oinarrituko da.

12,4.- Behin kontribuzio berezien ordenazioko erabaki zehatza hartu denean eta behin ordaindu beharreko kuotak zehaztu direnean, horiek subjektu pasibo bakoitzari jakinaraziko zaizkio, baldin eta hori edo horren helbidea ezagutuko balira, eta horrela ez balitz, ediktu bidez jakinaraziko zaio. Interesatuak birjarpeneko helegitea formulatu ahal izango dute Udalaren aurrean, edo bere kasuan, Lurralde Historikoko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren aurrean helegite ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango dute, horrek kontribuzio berezien egokitasunaz hitzegin hal izango du, bereziki mesedetuak izan diren pertsonak ordaindu behar dituzten kostuaren portzentaiari buruz edo atxiki zaizkien kuotei buruz.

13. Artikulua.-13,1.- Udalaren eskuduntzakoak diren obra eta zerbitzuak Udalak berak egin edo eskaintzen baditu baina beste Toki Entitate baten laguntzarekin, eta baldin kontribuzio bereziak ezartzen badira foru-arauetan ezarrita dagoenaren arabera, horien kudeaketa eta bilketa, obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo haunditzea bere gain hartzen duen Entitateak egingo du, nahiz eta kalterik ez dion eragingo entitate bakoitzak ezarketa eta ordenazioko erabakiak hartzeko orduan dituen eskuduntzak euki eta mantentzeari.

13,2.- Ordenazioko erabaki zehatza horietako entitateen batek ez balu onetsiko, eraginik gabe geldituko litzateke iharduera burutzeko batasuna, eta bakoitzak bere kabuz egoki liratekeen erabakiak hartu beharko litzuke.

VIII. HERRITARREN LANKIDETZA.

14. Artikulua.-14,1.- Obren eraginpean geratzen diren jabeek edo titularitatea dutenek zergadunen elkarte administratiboa osatu ahal izango dute eta obrak egitea edo udal zerbitzuak ezarri edo haunditzea eska dezakete, eta konpromisua har dezakete Udalak egin beharreko ekarpena beren gain hartzeko baldin eta udalak duen egoera finantzarioak eraginda ekarpen hori egiterik ez balu, gainera horrezaz aparte beren ekarpena egin beharko dute obra edo zerbitzuaren izaeraren arabera.

14,2.- Halaber, Udalak sustaturiko obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo haunditzearen eraginez, afektaturik suertatzen diren jabeek edo titularitatea dutenek zergadunen elkarte administratiboa osatu ahal izango dute, eta hori egin ahal izango dute, kontribuzio berezien ordenazioko erabakia jendaurreko jartzen den epean.

15. Artikulua.- Aurreko artikuluan aipatzen diren elkarte administratiboak osatu ahal izateko, afektaturiko gehiengo absolutuak onartu egin beharko du hartutako erabakia, eta gehiengo horrek bestalde, gutxienez, ordaindu behar diren kuoten artetik bi herenak ordezkatu beharko ditu.

16. Artikulua.-16,1.- Zergadunen Elkarteetako funtzionamenduak erregelamenduzko arauak erabakitakora makurtu beharko du, eta arau horiek bestalde, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua garatzen dute.

16,2.- Edozein modutan, zergadunen elkarte administratiboak hartutako erabakiak, gehiengo absolutu bidez hartuak badira eta gehiengo horrek, ordaindu behar diren kuoten artetik bi herenak, ordezkatzan baditu, gainontzeko guztiei ere eragingo die. Baldin eta Elkarte horrek aipatu quorumarekin Batzorde edo Junta Egikaritzaila izendatzen badu bere barnean, horrek hartutako erabakiak indarra izango du gainontzeko interesatuak behartzeko.

16,3.- Zergadunen Elkarte Administrazioak, 14. artikuluko lehen eta bigarren zenbakian erabakitakoaren arabera osatu direnean, Udalari eskatu ahal izango diote obra eta zerbitzuak zuzenean burutu ditzala.

Horretarako, hurrengo baldintzok eukiko dira kontuan:

- a) Obra edo zerbitzuen egitea Udal Administrazioak proiekturako ezarri dituen baldintza eta epeei jarraiki egin beharko da, edo gutxienez, Elkarteak aurkeztu eta Udalak onespena eman dion proiektuaren arabera.
- b) Aipatu egitea, edozein kasutan, Udalak izendatutako terminoei atxikirik egingo da.
- c) Elkarteak egingo da bai interes publikoei bai interes pribatuei eragin lezaizkiekeen kalte eta galeren erantzule, hala nola horiek burutzean egon daitezkeen atzerapenaren eta obraren behin-betiko entrega egiten denetik hasi eta hurrengo bost urtetan ager daitezkeen akats izkutuen erantzule ere.
- d) Zergadunen elkarte administratiboak egin ditzaketen proposamenak onartu edo errefusatzeko ahalmena bere esku izango du Udalak, aipatu obra eta zerbitzuak egiteari dagokion bezainbatean.
- e) Obra eta zerbitzuei udalak egingo dien ekarpena, baldin eta egongo balitz, obra edo zerbitzuaren behin-betiko entrega egin ondorengo unean ordainduko litzateke.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza honi, behin-betiko onespena eman zitzaien, eta indarrean sartuko da 2006ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

HEMERETZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

KONTROLATU GABEKO ABEREAK ETA ETXEKO ANIMALIA ABONDONATUAK **JASOTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEAGATIK EZARTZEN DIREN** **TASAK**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurrusitakoari jarraiki, hurrengo tasa ezarri eta eskatuko du, hain zuzen, udalerritik inolako identifikazioarik gabe harat-hona aske dabiltzan kontrolatu gabeko abereak jasotzearen eta etxeiko animalia abandonatuen zerbitzu integrala eskaintzearen, edo, nahiz eta identifikazio ofiziala izan, une bakoitzean indarrean dauden arau aplikagarriak betetzen ez dituzten abereak, jasotzearen.

2. Artikulua.- Ordenantza, udal barrutiko eremu osoan, aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.- Zergapeko egitatea sortuko da, Udalak kontrolatu gabeko abereak edo etxeiko animalia abandonatuak jaso eta horren ondoriozko zerbitzuak eskaintzen dituenean, hain zuzen horiek udalerritik inolako identifikaziorik gabe harat-hona aske ibiltzearen, edo, nahiz eta identifikazio ofiziala izan, une bakoitzean indarrean leudeken arau aplikagarriak ez betetzearen; eta jasotze hori egingo da, bai eskatu egin delako, edo bai, kontrolatu gabeko abereen edo etxeiko animalia abandonatuen arduradunek egindako ekintzek edo ez-egiteek hori egitea behartu dutelako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.-

1.- Zergadun gisa, subjektu pasiboak dira, Zergaren gaineko Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorraren 34 artikuluan adierazten diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta horiek, Udalerrian kontrolatu gabeko abereak edo etxeiko animalia abandonatuak jasotzeko zerbitzua jasotzearen, onuradun suertatzen badira edo horren eraginpean gertatzen badira.

2.- Kontrolatu gabeko abereak jasotzearen ondorioz edo etxeiko animalia abandonatuen zerbitzu integrala izatearen ondorioz ezarri diren tasetan, aipatu abelburuen edo esandako animaliaren jabeek zergadunen ordezkioak izango dira, eta horiek, bestalde, eskubidea izango dute, bere kasuan, kuotak dagokien onuradunen gain ezarriak izan daitezen.

5. Artikulua.- Tasak hurrengo norbanako hauek ordaindu beharko dituzte, hain zuzen, beren ekintza edo ez-egiteen ondorioz, kontrolatu gabeko abereak jaso edo etxeiko animalia abandonatuari zerbitzua eskaini behar izan zaienean.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.- Zerga-salbuespenak edo beste zerga-onurak ematea, aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoari lotuko zaio.

V. ZERGA-OINARRIA

7. Artikulua.- Zerga-oinarria, kontrolatu gabeko abereen edo etxeko animalia abandonatuen bilketa gauzatzean, horietako abere edo animalia bakoitzak osatzen du, Eraskinetan agertzen diren terminoen arabera.

VI. KUOTA

8. Artikulua.-

1.- Zergaren kuotak, onetsitako tarifen aplikazio bateratutik ondorioztatzen den kopurua izango du, Eranskinetan ezarrita bezala.

2.- Kontrolatu gabeko abereen edo etxeko animalia abandonatuen bilketak, udal jabari publikoaren suntsiketa edo kaltetzea ere sortuko balu, onuradunak, ordaindu behar lukeen tasa ordaintzearen kalterik gabe, berreraikitze edo berritze gastuei dagokien kostu osoa itzultzeko obligazioa izango du, eta zenbatekoa aurretiaz jartzeko obligazioa ere izango du.

3.- Kalteak konponezinak izango balira, Udalari, suntsitutako ondasunen balio bereko zenbatekoa izango duen indemnizazio eman beharko zaio, edo kaltetuaren narriadurari dagokion zenbatekoa.

Udalak ezingo ditu, ez osorik, ez zati batean, barkatu aurreko ataletan adierazten diren indemnizazio eta itzulketak.

VII. SORTZAPENA ETA EZARPEN-ALDIA

9. Artikulua.- Tasa, kontrolatu gabeko abereak jasotzen direnean edo etxeko edozein animalia abandonaturi udal zerbitzua eskaintzen zaionean, sortuko da.

VIII. LIKIDAZIOAK ETA SARRERAK

10. Artikulua.- Udalak, kontzeptu bakoitzagatik egokia izan daitekeen likidazioa, egingo du, eta likidatutako kopurua esku-dirutan ordainduko da, Eranskinetan barne hartutako ordainarazpen bakoitzaren berariazko arauen arabera.

IX. TASEN KUDEAKETA

11. Artikulua.- Ordenantza honetan araututako Tasen gaineko likidazio, bilketa eta ikuskapena den bezainbatean, hala nola, zerga-arauhausteen sailkapenari, eta kasu bakoitzean, legokiokeen zigorra zehazteari dagokion bezainbatean, Lurralde Historikoko Zergen gaineko Foru Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikagarri.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

ERANSKINA. 1.-KONTROLATU GABEKO ABEREAK

1.-ABEREAK JASOTZEA:	
1.1.- Langileen gastuak (LANG./ORDUA)	15,00€
1.2.- Joan-etorriak (KM.)	0,24€
1.3.- Atzemateko materiala (XIRINGAK, GEZIAK)	75,00€
2.-ABEREEN MANTENIMENDUA (EGUNA)	
2.1.A.- Azienda handia. Lehen abelburua	30,00€
2.1.B.- 2. abelburua eta hurrengoak	8,00€/Abelburuko
2.2.A.- Azienda txikia. Lehen abelburua	18,00€
2.2.A.- 2. abelburua eta hurrengoak	5,00€/Abelburuko

ERANSKINA. 2. ETXEKO ANIMALIA ABANDONATUEN ZERBITZU INTEGRALA.

1.- ABANDONATUTAKO TXAKURRA JASOTZEA	
1.1.- abandonatutako txakurra jasotzea	21,67 €
1.2.- Urtea pasa baino lehenago, berriro ere, jasotzea.	28,48 €
1.3.- Laugarrenez edo gehiagotan jasotzea, birrerorle eran.	55,73 €
2.- KATUAK ZONA PRIBATUAN JASOTZEA	13,62 €
3.- ANIMALIA TXAKUR ZERBITZUAN ENTREGATZEA.	41,28 €
4.- ANIMALIA EUTANASIARAKO ENTREGATZEA.	102,17 €
5.- MIKROTXIPA JARTZEA	41,28 €
6. ADOPZIOA	
6.1.- Txakurraren adopzioa	27,86 €
6.2.- Antzututako txakurraren adopzioa	61,92 €
6.3.- Katuaren adopzioa	27,86 €
6.4.- Antzututako katuaren adopzioa	30,96 €
7.- TXAKURTEGIAN EGONDAKO EGUN BAKOITZEKO	10,84 €
8.- JAKINARAZPEN FROGAGARRIA MASKOTAREN JABEARI, BERRESKURA DEZAN	12,38 €

HOGEGARREN ORDENANTZA FISKALA

UDAL TALDEAK EGIN BEHARREKO KONPONKETA ZERBITZUA **ESKAINTEAGATIKO TASA**

I. ORDAINARAZPENAREN HELBURUA

1. Artikulua.- Ordenantza honek arautzen duen ordainarazpenaren helburua zerbitzuak eskaintzea da, eta zerbitzu horiek honetan dira: hots, Udal Taldeak jabetza partikularreko ondasunen konponketa bere gain hartzea urgentziazko izaera dutelako edo hirugarren batzuk udal jabetzetan eragindako kalteak konpontzea.

II. SUBJEKTU PASIBOAK

2. Artikulua.- Tasa honen subjektu pasiboak dira, ondasun-jabetzaren titularrak diren pertsona fisiko edo pribatuak, horietan ordainarazpenaren helburu diren jarduerak egiten direnean, edo udal jabetzei kalteak eragin dizkieten arduradunak badira, aipatutako jarduera egin beharra sortu delako.

III. ZERGA OINARRI

3. Artikulua.- Oinarri zergagarria, egin edo eskaintako zerbitzu edo jarduerak euki dezakeen kostu errealak edo aurreikusi daitekeenak finkatzen du, eta kontuan hartuko dira zerbitzu edo jardueraren kostu osoaren osaketan eragiten duten gastu zuzen edo zeharkakoak, hor sartzen dira, baita, bai izaera finantzariokoak direnak bai aplikagarriak diren ibilgetuaren amortizazioak bai gainontzekoak, horiek ez baldin badira behintzat kontribuzio berezien bidez ordaindu, eta kontuan harturik halaber, eskaintako zerbitzu edo jardueraren ezaugarriak eta tasa ordaintzeko obligazioa duten subjektuen ahalmena.

IV. ZERGAREN KUOTA

4. Artikulua.- Ordenantza honetan araututako zerbitzua eskaintzeagatiko kuota, orduko eta langileko 36 eurotan finkatzen da.

V. SORTZAPENA

5. Artikulua.- Egitate zergagarria osatzen duen udal jarduera edo zerbitzuaren eskaintza egiten denean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa.

VI. GESTIOA, TERMINOAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

6. Artikulua.- Tasen likidazioa eta ordainketa ofizioz praktikatuko da, behin, tasaren ordainarazpenaren helburu diren jarduerak egin direnean, eta Zerbitzu Teknikoen txostenean oinarrituta, non lan horiei egotzitako ordu kopurua zehaztuko den.

7. Artikulua.- Ordenantza honek erabakitzen ez dituen gauza guztietan, Kudeaketa, Zerga-bilketa eta ikuskapeneko Ordenantza Fiskal Orokorra eta indarrean dauden gainontzeko xedapenak aplikatuko dira.

8. Artikulua.- Zergari buruzko haustea eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskapeneko Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatua dagoena hartuko da kontutan.

VII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsia geratzen da, eta 2010eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

**AURRETIAZKO KOMUNIKAZIO ETA/EDO AITORPEN ARDURATSUAREN MENPE
DAUDEN ESTABLEZIMENDUAN IREKITZE ONDORENGO KONTROLEKO UDAL
JARDUERARENGATIKO TASA**

1. artikulua. Arrazoia eta izaera juridikoa

Konstituzioaren 133.2 eta 142 artikuluek, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106 artikulua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Ogasunei dagokien ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauan emandako eskumenak erabiliz, udal honek tasa hau ezarri du, hots, aurretiazko komunikazio eta aitorpen arduratsuaren menpe dauden establezimenduen irekitze ondorengo kontroleko udal jarduerarengatiko tasa.

2. artikulua.- Zergapeko egitatea

Tasaren zergapeko egitatea barne hartzen du kontroleko udal jardura teknikoa eta administratiboa, eta baita ere, subjektu pasiboak aurretiaz adierazitako eta aitortutako baldintzen egiaztapena, zeina jarduerari hasiera eman ondoren egingo den, modu horretan egiaztatu ahal izango baita, ea aurrera eramandako adierazi zen jarduerak, edo aurrera eraman nahi denak betetzen dituen, jarduerak egitera destinatutakoak diren eraikin, lokal, instalazio eta eremu libreei aplikagarri zaizkien hirigintzako arautegia, hirigintzako planeamendua eta udal ordenantzak, horren garapenerako aipatu tramitazioa obligaziozkoa denean, eta baita ere borondatezkoa izan daitekeen beste haietan, eta baita handitzeak, erabilera aldaketak eta beste jardueren gehitzeak diren haietan ere, eta hori egingo da, baldin eta jardura berria ez baldin badago Jardura Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren kode berean barne sartuta, eta baldin eta ez balu jardueraren kalifikazioan aldaketarik ekarriko. Hori guztia administrazioak esku hartzeko duen eskumenean arabera, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84. artikulua emanak, horrek arautzen baititu toki erregimeneko Oinarriak.

Udal jardura hori subjektu pasiboaren aurretiazko adierazpenaren ondorioz sor daiteke, edo ikuskapen jardueraren ondorioz, adierazi ez diren jardueren existentzia egiaztatzen den kasuetan, edo egindako aurretiazko adierazpenak bere osotasunean babesten ez dituen kasuak antzematen direnean.

3. artikulua. Sortzapena eta ordaintzeko obligazioa.

Tasa hau zergapeko egitatea osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean sortzen da eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa. Ondorio horietarako, hasiera, jardura hasteko aurretiazko komunikazioaren idatzia aurkeztutako datan, eman zaiola ulertuko da, adierazitako jardueren prozedurarako Udal Ordenantzan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber tasa sortuko da, adierazitako jardueren prozedurarako Udal Ordenantzan ezarrita dagoen arabera, jardura edo instalazioa aurretiazko adierazpena aurkeztu gabe garatzen direnean, edo garatutako jardura adierazitakoa ez denean, eta Udalak ikuskapen jarduerak burutzen dituen, eta horien ondorioz, garatutako jardura pribatua aurkitu eta egiaztatzen badu.

Zerga ordaintzeko obligazioa jardura gara daitekeen lokal bakoitzean sortzen da, aurretiazko komunikazio eta aitorpen arduratsuaren prozedurara lotutako jardura

egiten den bakoitzean (fabrikak, tailerrak, bulegoak, dendak, biltegiak eta edozein motatako lokalak).

4. artikulua.- Subjektu pasiboa

Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun kontzeptuan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta Erakundeak, aurretiazko komunikazioaren edo aitorpen arduratsuaren bidez Udalari horren berri eman beharra daukatenen jarduera garatzen dutenek.

Edozein kasutan, zergadunaren ordezkotza izatera hurrengo hauek izango dute, hots, Udalaren aurrean aurkeztutako aurretiazko komunikazioaren titular eraikitzaileak.

5. artikulua.- Salbuespenak.

Leku aldaketak eta irekitzeak tasaren ordainketatik salbuetsiak egongo dira, baldin eta horiek hondamen-aitorpenaren, berehalako hondamenaren, desjabetzearen, hondoratzearen, sutearen, kaleratzearen edo epai irmoaren ondorioz badira, eta horren arrazoia ezin bazaio jardueraren titularri egotzi, eta beti ere, jarduera beraren leku aldatzea edo berreraikitzea bada.

6. artikulua.- Kuota.

1. -Aplikagarri den tarifa orokorra hurrengo hau izango da:

- Establezimenduaren azalera 200 m² artekoa denean 7,01 €/m².
- 200 m²-tik gorakoa, establezimenduaren azalera 500 m² artekoa denean: 5,26 €/m².
- Establezimenduaren azaleraren 500 m².tik gorakoa: 4,38 €/m².

2.- Zergaren kuota ezingo da, inolaz ere, 9.547,09 € baino handiagoa izan, hori baita kuota gehienekoa.

Zergaren kuota ezingo da, inolaz ere, 201,20 € baino txikiagoa izan, hori baita gutxienezko kuota.

3.- Ordenantza honetan aurreikusitako denboraldiko establezimenduek 115 euroko tarifa finkoa izango dute, horien jarduera, etenik gabe, hiru hilabete baino gehiagokoa ez bada, bestela, kuota osoa ordaindu beharko dute.

7. artikulua. Likidazioa.

Tasa auto-likidazio erregimenean eskatuko da, jarduera hasteari buruzko aurretiazko adierazpenaren idatzia aurkeztu denean. Interesatuak, Aitorpen Arduratsuan, tasaren ordainketa egiaztatzen duten datuak zehaztu beharko dituzte.

Aurreko kasutik desberdinak diren beste kasuetan, tasa Udalak likidatuko du, eta horrek subjektu pasiboari jakinaraziko dio, eta hori borondatezko epean ordaindua izan beharko du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketa Arautegian ezarritako epeetan.

Auto-likidazioa Udal Zerbitzuek egiaztatuko dute, eta beharrezkoa litzatekeen kasuan, likidazio osagarria egingo dute.

8. artikulua- Itzulketa

Behin ordaintzeko obligazioa sortzen denean, ez du inolako eraginik izango subjektu pasiboaren uko egiteak edo atzera egiteak, egiaztapenak egin ondoren, adierazitako jarduerak diren kasuan.

Baldin eta atzera egitea, Udalak egiaztapen-jarduerei ekin aurretik, egiten bada, tasaren zenbatekoa osorik itzuliko zaio zergadunari. Horrela izango ez balitz, ez da inolako zenbatekorik itzuliko.

Edozein kasutan, tasaren itzulketa egin ahal izateko, subjektu pasiboak esan bidez eskatu beharko du hori.

9. artikulua.- Urraketak eta Zerga Zigorak.

Zerga urraketan kalifikazioari dagokion guztian, eta kasu bakoitzean horiengatik jarri daitezkeen zigorak zehazteari dagokion bezainbatean, Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean eta Gestio, Bilketa eta Ikuskapeneko Zerga Ordenantza Orokorrean, eta hori garatzen duten gainontzeko xedapenetan araututako erregimena aplikatuko da.

Amaierako xedapena

Ordenantza hau behin betiko onetsia geratzen da 2010ko urriaren 04an, eta 2011eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.